# Goienkaria

2006ko uztailaren 14a > Egubakoitza > VI. urtea > 252. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Arraroa bada ere, denbora honetan guztian oso hilketa gutxi ikusi ditut"



**Remi Arantzabal** Auzitegiko medikua > 09

**G2a** Danbakaren bigarren edizioa, zabalik > 43

**LANBIDE HASTAPENA** Matrikula egiteko epea luzatu egin dute datorren astera arte > 04

**ARETXABALETA** Guztiz berrituko dute Otalora kalea, saneamendu lanekin bat > 31

**ESKORIATZA** Maringo auzotarrek elkartzeko lokala lortu berri dute > 41

**BERGARA** > ISUNAK

## Zirkulazio isunak igo egingo dira

Irailetik aurrera, isun arinena, 18 eurokoa barik, 20koa izango da > 25

**ARRASATE** > ZERBITZUAK

## Lur azpiko aparkaleku berria dago

Zabalik dago Arrasateko lur azpiko aparkaleku berria, Biteri, eta astelehena arte doan izango da.

Zerbitzu berriak 450 ibilgailurendako lekua du, hiru solairutan banatuta. Orduka edo gauerako utz daiteke autoa, eta asterako, hilerako edo urte osorako bonoak eros daitezke. > 18

**KIROLA** > IGERIKETA

## Euskadiko txapelketan, ibarreko 15

Domekan jokatuko dute proba Oñati eta Bergarakoek > 41

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-42
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-Zer** > 54-55

**OSASUNA** > EAE-KO BIZIDUNEN ARTEKO LEHEN GILTZURRUN TRANSPLANTEA

# Bizirik dagoen aretxabaletar baten giltzurruna, emazteari

**LEHEN KASUA** EAEn lehenengo aldiz egin dute bizidun batek emandako giltzurrun transplantea, eta ondo irten da

**IBARREKOAK** Aretxabaletako gizon batek, Antoniok, emazteari, Beniri, eman dio behar zuen giltzurruna

**EMAILE GEHIEN** Mundu osoan, Euskal Herrian dago organo emaile gehien; horietatik 4.384 daude Debagoienean > 02-03

## Umeak atzerritik Debagoienera oporrak bakean igarotzeko

Oporrak bakean eta osasuntsu igarotzeko asmoz gurera ekarri dituzte Saharatik eta Txernobildik umeak, ibarreko elkartasun taldeen bidez; 29 guztira. Abuztuaren amaierara bitartean egongo dira gurean. Aldameneko argazkian, oporretan anaia-arrebatzat izango dituzten umeekin agertzen dira Bergarara etorritako hainbat neska-mutiko saharar. Bergaran ez ezik, Antzuolan, Arrasaten, Aretxabaletan eta Oñatin ere egongo dira umeok. > 07



**BATERA** Bergarara etorri diren ume sahararretako batzuk, familietako umeekin. IRATI AGIRREAZALDEGI






TRANSPLANTEAK > DEBAGOIENEKOAK, EUSKADIKO LEHENAK

# Ezkerreko giltzurruna eman dio Antoniok bere emazte Beniri

**LEHENAK** Bizirik dagoen emaile baten giltzurruna transplantatu dute lehenengo aldiz Euskadin eta Aretxabaletakoak dira emailea eta hartzailea

**BATERAGARRIA** Zortzi hilabetez egin dizkiote probak Antoniori Gurutzetako ospitalean, giltzurruna erabat bateragarria den ikusteko

**DEBAGOIENA** Munduko organo emaile gehien duen herria da Euskadi; Gipuzkoan 57.500 daude eta horietatik 4.384 Debagoienean bizi dira



ZUMARRAGA Debagoieneko giltzurruneko gaixo geh

OIHANA ELORTZA > ARETXABALETA

Antonio eta Beni Aretxabaletako senar-emazteak albiste dira. Antoniok giltzurruna eman dio Beniri. Gurutzetako ospitalean egin dizkiete ebakuntzak, eta baldintza horietan Euskadin egin duten lehen transplantea izan da; bizirik dagoen emaile baten giltzurruna beste bati jartzea, alegia. "Nik neuk ez nuen lehendabizikoa izan gura, gauza asko ez direlako ondo ateratzen lehenengoan, baina ez nuen emaztea horrela ikusi gura eta garbi nuen zer egin", esan digu Antoniok. 18 urte zituenean egin zen bera organo emaile.

**EZKERREKO GILTZURRUNA**

Ekainaren 27an jarri zioten Antonioren ezkerreko giltzurruna Beniri. "Niri hiru ordu eta laurdeneko ebakuntza egin zidaten eta ordu eta erdikoa emazteari. Ebakuntza aurreko proba guztiak niri egin zizkidaten eta ondorengoak Beniri. Bi hilabete barru, antzerako egoeran egongo gara biok", kontatu digu Antoniok.

Beniri giltzurruneko gaixotasuna antzeman ziotenean hasi zen Antonio informazioa batzen. Jakin zuen Bartzelonan eta Sevillan egiten zituztela emaile bizidunek emandako giltzurrunen transplanteak eta horixe proposatu zien Gurutzetako eta Gasteizko medikuei. "Itxaroteko esan zidaten hasieran, baina ezer egin ezean Kataluniara joango nintzela esan nien nik", gogoratzen du Antoniok. Handik gutxira, probak egiten hasi zitzaizkion.

**ZORTZI HILABETE PROBAK EGITEN**

"Sei fase ezberdinetan banatzen dituzte niri egin dizkidaten probak", dio Antoniok. "Nirekin batera beste emaile batzuk ere egin dituzte, baina hirugarren edo laugarren fasean esan diete batzuei ezin dutela euren giltzurruna eman, bateragarria ez delako. Behar handia dago eta oso gogorra da hori entzutea eta guk izugarrizko zortea izan dugula onartu behar dugu".

Izan ere, ez da erraza bateragarria den organoa aurkitzea. "Nik, gainera, pentsatzen nuen bizidun batek uztekotan senitartekoa behar zuela izan, baina gero konturatu nintzen hildako emaile guztiak ere ez direla nire familia eta eurena har badezaket senarrarenak ere balioko zukeela, agian. Baina hasieran ezetz esan nion senarrari, ez nuela nahi berak niri giltzurruna ematea", onartu du Benik.

Antonio, ordea, konbentzituta zegoen: "Giltzurrun bakarrarekin ere bizimodu bera egingo nuela bermatu zidaten medikuek eta nik emaztearen aurpegia aldatu gura nuen, bizi kalitate hobea eman nahi nion. Hala ere, ez pentsa erraza izan denik nire erabakia benetakoa dela esatea, psikologoekin eta epaileekin makina bat bilera egin behar izan dut".

**20 eta 45 urte bitarteko emaile gutxi daude eta luzaro ez itxaroteko hartu zuen erabakia Antoniok**

**Emaileen organo guztiak ez dira bateragarriak izaten eta normala da behin baino gehiagotan deitzea ospitaletik**

**OKINDEGIKO ESAMESAK**

Antoniok okindegiak ditu Aretxabaletan, Arrasaten eta Eskoriatzan eta erosleek ia egunero hitz egiten zioten transplanteari buruz. "Ea erotuta nengoen galdetzen zidaten askok, nolatan egin behar nuen hori", kontatzen du Antoniok .

Bitartean Beni dialisia egitera joaten zen astean hirutan. "Begietako koloreak ere berreskuratu ditut dagoeneko. Begiaren zurigunea erabat horituta nuen lehen eta transplantea egin eta gutxira zuria nuela ikusi nuen ispiluan", dio, pozik, Benik.

18 eta 14 urteko bi alaba dituzte Aretxabaletako senar-emazte horiek eta transplanteak lauron aurpegiak aldatu dituela dio Benik: "Alabek ere gaizki pasatu dute. Orain, aldiz, eurekin egoten naiz dialisian pasa behar nituen orduak eta alde ederra da hori. Egia da oraindik ez naizela erabat osatu, ez naiz askotan makurtzen, adibidez, baina eguneroko bizimodua egiteko gai naiz eta horrek izugarrizko indarra ematen dit".

**EMAILE GUTXI**

"44 urte ditut nik eta 41 emazteak. 20 eta 45 urte bitarteko emaile gutxi izaten dira, denbora luzea pasa behar duzu giltzurrun berria jasotzeko eta horixe izan da erabakia hartzeko arrazoi nagusia", dio Antoniok.

Bergarako Maria Asun Zubimendiri bi aldiz egin diote giltzurrun transplantea. "Lehenengoa jasotzeko hiru urte egon nintzen zain eta bigarrenerako urte eta erdi. Luze egiten da", dio Zubimendik. "Gainera, emailearen organoa ez dator beti bat zure gorputzarekin, ez da bateragarria. Niri, adibidez, bost aldiz deitu zidaten lehenengo giltzurruna jartzeko, lehen lau saiakerak antzuak izan ziren. Bigarren ebakuntza egiteko, berriz, hiru aldiz deitu zidaten", gogoratzen du bergararrak.

Izan ere, emaileen organoen ehuneko gutxi bat izaten da hartzailearekin bateragarria. "Organo guztiak ez dira berdinak eta batzuekin tentu handiagoa behar da beste batzuekin baino. Gibela, adibidez, momentu jakin baten transplantatu behar dela uste dut, galdu egiten da bestela", azaldu du Zubimendik.

Maria Asun Zubimendi > Giltzurrun transplantea

## "Prest egon behar da behar ez diren organoak emateko"

O.E. > BERGARA

**34 bat urte zituenean esan zioten Mariasuni giltzurruna ez zebilela ondo. Lehen transplantearekin zazpi urte egin zituen baina gorputzak ez zuen onartu. Bigarrenarekin, hiru urte egin ditu martxoan.**



O.E.

**Debagoieneko zenbatek duzue giltzurrunetako gaixotasuna?**

Bergaran 12 bat lagun gaude, batzuk dialisian eta beste batzuk transplantea eginda. Beste herrietan ez dago elkarterik ez dakit guztira zenbat izango garen.

**Non egiten dituzue dialisiak ?**

Donostian edo Zumarragan egiten dituzte, Gipuzkoan. Ibarreko gehienak Zumarragara joaten gara, edo Gasteizera. Niri, adibidez, Gurutzetako ospitalean egin zidaten transplantea, gehienei bezala, baina dialisiak eta tratamenduaren jarraipena Zumarragan egin ditut.

**Nolakoa izaten da dialisia? Zenbatean behin egin behar izaten duzue?**

Normalean, astean hirutan egin behar izaten da eta lau ordu aldiro. Astuna izaten da. Gainera, norberak ikusten du odola ateratzen bere gorputzetik garbitzeko eta berriro sartzeko, eta hori oso gogorra izaten da askotan.

**Badago sentsibilizaziorik?**

Gero eta gehiago, gazteen artean batez ere. Hala ere, azken hitza etxekoek dute. Datuen arabera, %7k ezetz esaten dute, baina beherantz doan kopurua da.

**Nola prestatu behar da jendea?**

Aurretik hartu behar dute erabakia, eta etxekoek ere jakin behar dute erabaki horren berri. Hala ere, oso errespetagarria da edozein erabaki.

**Zein mezu eman nahi diezu irakurleei?**

Batetik, emaile guztiei esan nahi diet transplantea izan dugunok inoiz ez dugula behar beste eskertuko egin dutena. Bestetik, esan nahi dut jendeak prest egon behar duela behar ez dituen organoak behar dituen bati emateko.



nak Zumarragara edo Gasteizera joaten dira dialisiak egitera. L.K.

ESANAK

"Psikologoekin eta epaileekin egin ditut bilerak erabakia sendoa dela esateko"

"Kataluniara joango ginela esan nien Gurutzetako eta Gasteizko medikuei"

"Ebakuntza aurretik, niri egin dizkidate probak eta ondoren, emazteari"

**Antonio** > Emailea eta senarra

"Hasieran ezetz esan nion senarrari, ez niri uzteko bere giltzurrun bat"

"Dialisiarekin begiak horituta nituen eta orain, zurigunea zuri dut berriro"

"Bi alaben eta gure aurpegiak aldatu ditu transplanteak, guztiok sufritu dugu"

**Beni** > Hartzailea eta emaztea

ODOLAK ERE GARRANTZIA DU

## Odola emateko dei egin dute, behar handia dagoelako

"Bergaran, adibidez, mundialak jokatu dituzten astetan emakumeak bakarrik etorri dira odola ematera. Telebista bat erosi beharko dugu odola emateko gelan jartzeko", dio Fernando Idigoras Bergarako odol emaileen elkarteko kideak, txantxetan. Hala ere, kezkati dago, azkenaldian ohi baino jende gutxiago joan delako odola ematera.

Uda sasoian urteko beste edozein sasoitan baino odol behar handiagoa egoten da eta odol emaileen elkarteak dei berezia egin gura die odol emaileei hurrengo odol ateratzeetara joateko. Hauexek dira, adibidez, hurrengo odol ateratzeetako batzuk: Oñatin uztailaren 14an, ikastolan 18:30etik 20:00etara; Aretxabaletan uztailaren 17an, anbulatorioan 16:15etik 20:00etara; Arrasaten, uztailaren 18an eta 19an anbulatorioan 16:00etatik 20:00etara; Eskoriatzan uztailaren 20an eta 27an osasun zentroan 16:15etik 20:00etara eta Bergaran uztailaren 26an ikastolan 18:30etik 20:30era. Uda osteko hitzorduetara joateko dei ere egin dute.

**SALBUESPENA GURUTZETAN**

Operatu baino egun bat lehenago ingresatu zituzten Antonio eta Beni Gurutzetako ospitalean, ekainaren 26an. Normalean sexu bereko bi gaixo egoten dira ospitaletako geletan, baina Antonio eta Benirekin salbuespena egin dute: elkarrekin egon dira gela berean San Fermin egunera arte.

Gaur, egubakoitza, berriro joan dira Gurutzetara ebakuntzaren jarraipen probak egitera eta agian datozen asteotan ere joan beharko dute berriro, ebakuntza osteko prozesua jarraitzeko, baina biek ondo erantzun diote transplanteari. Antoniok bulegoko lanak egiten dihardu orain, baina uda ostean hasiko da berriro okindegian lanean. "Lehenengoa izateak erreparo pixka bat ematen zidan hasieran, baina dena ondo joan da, profesional onak ditugu hemen ere eta Gurutzetako ospitalean ondo baino hobeto zaindu gaituzte emaztea eta biok. Gu ere primeran gaude eta gehiago ezin da eskatu", aitortu du Antoniok.

### Ibarreko organo emaileak

| | |
|---|---|
| Antzuola | 224 |
| Aretxabaleta | 232 |
| Arrasate | 1.184 |
| Bergara | 1.684 |
| Elgeta | 76 |
| Eskoriatza | 139 |
| Leintz-Gatzaga | 1 |
| Oñati | 844 |
| **Debagoienean guztira** | **4.384** |
| **Gipuzkoan guztira** | **57.500** |

DATUA

**2**

**HILABETEKO JARRAIPENA**

Transplantea ondo atera dela esan diete medikuek eta eurak ere oso ondo daude baina datozen bi hilabetetan, errebisioak egitera joan behar dute hamar egunetik hamar egunera. Epe hori eta gero, lehengo bizimodura itzuliko dira.



**HEZKUNTZA** > LANBIDE HASTAPENA INDARTU GURA DUTE

# "Lanbide Hastapeneko ikasleak eta gurasoak oso gustura ibiltzen dira"

Lanbide Hastapeneko matrikulazio epea datorren aste osoan luzatu dute

Aurreiritzi txarrak gainditu eta "barruko irudia" zabaldu nahi dute arduradunek



**EGOITZA** Arrasaten dago Lanbide Hastapeneko egoitza. Hura ere laster berritu gura dute. XABIER URTZELAI

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Lanbide Hastapenean izena emateko aukera dago oraindik, datorren astean barrena, eta DBH gustuko ez dutenek edo, beste arrazoi batzuengatik, ohiko ikasketetan bere lekua topatzen ez dutenek, kontuan hartzeko moduko alternatiba izan dezakete hor. Mezu hori zabaldu gura dute arduradunek, matrikula epea zabalik dagoela aprobetxatuta. Gainera, Lanbide Hastapena den bezala ezagutarazi gura dute: "Jende askok aurreiritzi txarrak ditu Lanbide Hastapenarekiko, baina ikasleak eta aita-amak oso gustura ibiltzen dira. Barruko irudia zabaldu gura dugu, eta jakinarazi Unibertsitatea ez dela irtenbide bakarra", dio Rafa Ugartek, Lanbide Hastapeneko zuzendariak.

Lanbide Hastapeneko egoitza Arrasaten dago, Nafarroa etorbidean, eta zerbitzu publikoa da, Mankomunitateak eskainitakoa eta Eusko Jaurlaritzak finantzatutakoa, Debagoieneko herritarrendako. Hori dela eta, ez da ezer ordaindu behar han ibiltzeko.

**PRAKTIKEN ONDOREN, KONTRATUA**

Datorren urtean, Iturgintza eta Elektrizitatea emango dituzte lehenengo mailan, eta Industria Mekanika, bigarrenean. Oraingoz, 20 lagunek egin dute aurrematrikula, eta 16 matrikulatuta daude dagoeneko. Hala ere, ikasle gehiagorendako lekua dago; horregatik, izenemate epea luzatu egin dute datorren astean barrena.

Berez, bi ikasturte egiten dituzte ikasleek; gero, praktikak egiteko aukera izaten dute Debagoieneko enpresa handi edo tailerretan. Rafa Ugartek dioskunez, praktikak bukatzen dituzten %35i enpresa horretan bertan kontratua egiten diote. Beste batzuetan, ikasteko ahalmen eta dedikazio berezia izan duten ikasleek erdi mailako Lanbide Heziketarako sarrera proba egiteko prestakuntza jasotzeko aukera dute; iaz bik egin zuten hori, eta Erizaintza Laguntzaile ikasketak egiten ari dira; aurten, beste bik egin dute, eta Ekipamendu Industrialen Mantenu ikasketak egiteko asmoa dute.

Bere bokazioa eta lanbidea han topatu duten gazteetako bat da Aitor Ramirez bergararra. 18 urte ditu eta Industria Mekanika egin zuen Lanbide Hastapenean. Orain, Erizain Laguntzaile praktikak hasiko ditu. "Lanbide Hastapeneko esperientzia oso ona izan da. Jendeak ez du horren gaineko irudi zuzena, baina jakin behar dute hara doan jendea, askotan, DBHtik motibazioa galduta irten den jendea dela. Nik Lanbide Hastapenean ikusi nuen benetan zer den tailer bat, eta lagun asko egin nituen", diosku Aitorrek.

**GURASOAK ERE, GUSTURA**

Ofizio bat egin gura duten gazteendako aukera bada ere, aitaamek eurek ere aurreiritzi txarrak izaten dituzte; hori, Lanbide Hastapena gertutik ezagutu aurretik. Horixe diosku semea han ikasten eduki duen oñatiar batek, Pilarrek: "Guk entzunda genituen Lanbide Hastapenaren gaineko komentario txarrak. Baina gure semea oso pozik ibili da han. Egunero etortzen zenean, egin zuena komentatzen zigun. Elektrizitatea ikasi du, praktikak egin ditu eta orain Altunan lan kontratua egin diote".

Rafa Ugarteren hitzetan, mutil horien kasua ez da bakarra: "Ikasleen aldaketa nabarmena da. DBH uzten dutenean, libreago sentitzen dira, han zuten presioa gainditu egiten dutelako", azaltzen du.

## Eguneroko lan praktikoaren bidez autoestimua hobetzen dute ikasleek

DBHko ikasketa akademikoak gustuko ez dituzten ikasleek oso bestelako mundua topatzen dute Lanbide Hastapenean. Euren lanaren bidez, ekarpen praktikoak egiteko gai dira ikasleak, eta horrek autoestimua hobetzen laguntzen die. Hala, Lanbide Hastapenean, urtero eraikin zaharrak eraberritzeko lanetan parte hartzen dute ikasleek, praktika moduan; betiere, euren mailan. Modu horretara, Debagoieneko zenbait eraikin historiko eraberritu dira.

Lanbide Hastapenaren egoitza bera ere eraberritzeko premian dago, eta horretan lanean hasiko da laster Mankomunitatea. Hor ere, ikasleek parte hartuko dute, bakoitzak ahal duen neurrian.



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) I KODEA

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) I AITORMENA
Aizkolari (Kortatu) I AIZKO
Amore amore (Karidadeko benta) I AMORE
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) I ASKATA
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) I BEGIAK
Bi Minutuero (Hertzainak) I BIMINU
Dub manifest (Fermin Muguruza) I DUB
Egunero (Hertzainak) I EGUNERO
EH Sukarra (EH Sukarra) I SUKAR
Ellos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) I ELLOS
Enamorado de la muerte (RIP) I ENAMO
Entzuidazu (Aterking's) I ENTZU
Etorkizuna (Etsaiak) I ETORKI
Ezer ez da betiko (Ken7) I EZER
Gora Herria (Negu Gorriak) I GORA
Hator Bel-Air (Bide Ertzean) I BELAIR
Haizea (Ken7) I HAIZEA
Hegal egiten (Itoiz) I HEGAL
Ikusi (Delirium Tremens) I IKUSI
Ilargia (Ken 7) I KEN
Inpernuen ate joka (Gatibu) I INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) I JOKIN
Kaixo (Urtz) I KAIXO
Lau Teilatu (Itoiz) I ITOIZLAU
Laztana (Latzen) I LAZTA
Lotuta egon arren (Kokein) I LOTUTA
Loretxoa (EXKIXU) I LORE
Marea Gora (Itoiz) I MAREA
Musturrek sartunde (Gatibu) I MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) I NICA
No time for love(Hertzainak) I NOTIME
Salve (La Polla) I SALVE
Sarri Sarri (Kortatu) I SARRI
Sorginen leizean (Exkixu) I SORGIN
Txatxo (Zarama) I TXATXO1
Txus (La Polla) I TXUS

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) I SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) I BAI1
Bakezaleak (Anje Duhalde) I BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) I BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhalde) I EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) I EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) I EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) I POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) I FURRA
Galiziara noa (Oskorri) I GALIZIARA
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) I GERNIKA1
Haika Mutil (Mikel Laboa) I HAIKA
Izarren hautsa (Xabier Lete) I IZARREN
Lepoan hartu ta (Pantxoa/Peio) I LEPOAN
Marinelaren zai (Sorotan Bele) I MARINE
Nere herriko neskatxa maite (B.Lertxundi) I NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) I NON
Oi! Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) I OIAMA
Tirauki (Oskorri) I TIRA
Txatxamatxalinatxu (Mikel Urdangarin) I TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) I TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordorika) I ZAINDU

SOCIEDAD GENERAL DE AUTORES Y EDITORES

LOGOAK (SMS 1)
KODEA
ZINEMA AIZKORAK
GLOBUAK EGUZKILORE3
NIREKIN SORGINGA

OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

WEBGUNEAN www.smsoinu.com

> EKONOMIA

### Kongresua Arantzazun enpresa partehartzaileei buruz

Mondragon Unibertsitateak antolatuta enpresa partehartzaileen gaineko nazioarteko kongresua egiten dihardute Gandiaga Topagunean. Guztira, munduko hainbat tokitatik etorritako 67 hizlarik jardungo dute eta entzuleak, berriz, 100 inguru izango dira. besteak beste landuko dute era honetako enpresek zein egoerari egin behar dieten aurre. Kongresuaren inaugurazio ofizialean Ibarretxe lehendakaria izan zen.

> ENPRESA

### Lehen seihilekoan %38 gehitu da Elkargiren abal-jarduera

Elkargi enpresen alde egiten duen finantza erakundea da, batez ere enpresa txiki eta ertainendako. Aurtengo lehen seihilekoan %38 gehitu da bere abal-jarduera. Ekainaren 30era arteko datuei erreparatuta formalizatutako abalen kopurua 146 milioi eurokoa izan da. Bazkideen kopurua ere handitu egin da, 218 enpresa gehiago dira, hain zuzen ere. Honela, Elkargik 9.000 ia enpresa ditu bere baitan.

> HILTEGIA

### Erreklamazioak aurkezteko laguntza izango dute kaltetuek

Ekainaren 16an hiltegian izandako ezbeharraren ostean erabiltzaileei eskutitz zertifikatua bidali diete kalteen balorazioa egiteko. Eskutitza jasotzen dutenetik astebeteko epea izango dute erreklamazioetarako. Hiltegia bizirik plataformak abokatua ipini du balorazioarekin ados ez dauden kaltetuei laguntzeko (943 76 21 71, Amaia). Izan ere, euren esanetan, "eskaintzen diren prezioak baxu xamarrak dira".

> INDARKERIA

### Emakume bat atxilotu dute, ustez laguna erasotzeagatik

Martitzen iluntzean izan zen atxiloketa. Ertzaintzaren arabera, bikoteak eztabaida izan zuen eta ordenagailuaren pantaila bat bota zion 28 urteko R.A.S.N. emakumeak gizonezkoari burura. Ertzaintzak emakumea atxilotu zuen eta Bergarako ertzain-etxera eraman, etxe barruko tratu txarrak eragitearen akusaziopean. Gizonezkoa, berriz, Debagoieneko Ospitalera eraman zuten eta buruan puntuak eman behar izan zizkioten.

**Jose Luis Lizarbe** > Fagor Industrialeko zuzendari nagusia

# "Planta berriarekin, bezeroei zerbitzu hobea emango diegu"

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

**Gaur, egubakoitza, inauguratu dute Oñatiko Migelena auzoan dagoen Fagor Industrialen logistika gune berria; bide batez, ISO 14001 ziurtagiria ere eman diete Fagor Industrialeko arduradunei. Fagor Industrialeko zuzendari nagusi Jose Luis Lizarbek eman digu enpresaren berri.**

**Zer da logistika gunea?**

Logistika gunea da Fagor Industrialen bukatutako produktuen biltegia. Gune honek bi helburu ditu: batetik, Santxolopetegi auzoan dagoen Fagor Industrial fabrikan espazioa handitzea; bestetik, logistikako gune honen bitartez zerbitzu hobea ematea.

**Zer da logistika gunean egingo duzuena?**

Gaur egun, logistika arloak urtean 70.000 makinen banaketa kudeatzen du. Orain dela bi urte irratі frekuentzia bidezko komunikazioa erabiltzen hasi izanak lagundu digu denbora errealean 4.000 erreferentzia baino gehiagoren informazioa edukitzea, hemendik bertatik bost kontinenteetako 90 herrialde baino gehiagora gure produktuak banatuz. Gainera, munduan zehar ditugun beste fabriketan kudeaketa sistema bertsua ezarriz, Oñatiko logistika gune honetatik Lucenako, Bartzelonako, Poloniako eta Turkiako filialetako entregak eta harrerak planifikatzen dira.

**Zer suposatzen du gune berri honek Fagor Industrialerako?**

Fagor Industrialentzako, gure bezeroei zerbitzu nabarmen hobea eskaintzea suposatzen du logistika espazio berri honek. Halaber, gure beharrak asetzeko gune berriak handitzeko aukera ere ematen digu. Bestalde , eskari nazional zein internazionalaren handitzea dela-eta, pabilioi berria eraikitzean Santxolopetegiko plantan espazioa handitu egin dugu, muntatzeko lineak luzatu ahal izateko.

**Zenbat lagunek eta zein azpiegiturarekin jardungo dute logistika gunean?**

Gaur egun, 13 langilek egiten dute bertan lan. Dena den, gunea handitu ahala langile gehiagoren beharra izango dugu, dudarik gabe. Gainera, planta nagusian espazioa sortuz, produkzioa era nabarmenean handitzea espero da. Makineria berria erostea aurreikusten dugu, muntaia linea gehiago martxan jartzea, eta horrek ekarriko duena da 100 lanpostu berri sortzea Oñatin.

**Fagor industrialen baitan beste pauso bat da hau. Azken aldian zein dira Fagor Industrialek emandako pausurik garrantzitsuenak?**

Azken lau edo bost urte hauetan, negozioaren dimentsioa nabarmen handitu dela ikusi dugu. Turkiako, Poloniako eta Mexikoko fabrika berriez gain, ostalaritzako gure eskaintza osatzeko beste negozio batzuk eskuratu ditugu, eta beste negozio linea batzuk sortu, hala nola, janaria banatzeko aparatuak egingo dituen fabrika bat datorren urtean eraikiz.

Azken bost urteotan salmenten bolumena bikoitza baino gehiago izan da. 2000 urtean 406 langile izatetik 2005eko abenduan 1.100 langile izatera pasa ginen, %170eko hazkundea suposatuz.

Uste dugu egiten ari garen inbertsio eta egin diren egokitzapenerako esfortzuak etorkizuneko erronkei aurre egiteko egoera oso onean jartzen gaituztela.

**"Orain, 13 lagun daude logistika gune berrian, baina laster gehiago behar izango ditugu"**

**"Fagor Industrialen produkzioa handitu egingo da, eta 100 lanpostu sortuko dira"**



ZUZENDARI NAGUSIA Jose Luis Lizarbe, bere bulegoan. FAGOR INDUSTRIAL

**0 km**
- Mondeo TDCi – 130 ZP
- Focus TDCi – 115 ZP
- Focus TDCi – 136 ZP
- C-Max TDCi – 115 ZP
- C-Max TDCi – 136 ZP

**Aukerako ibilgailuak**
- 4x4 Nissan Pafainder Dci –174 ZP
- 4x4 Toyota Land Cruiser D4D – 163 ZP
- 4x4 Toyota Land Cruiser HDJ-100 – 204 ZP
- 4x4 Toyota Rav 4, 3 ate SP D4D – 110 ZP

MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es

Ford
gozatzeko pentsatuak
irauteko eginak

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin
JUAN ZELAIA
VI. Saiakera saria
antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.
Saria: 6.000 €
Lanak bidaltzeko:
Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUÑEA.
Abuztuaren 31a arte
Tel.: 948 326535
soltxate@pamiela.org
Arauak: www.pamiela.org





**AUTOBUSA** Debagoieneko zerbitzua hobetu egin nahi dute. UBANE MADERA

**GARRAIOA** > ZERBITZUA HOBETZEKO AKORDIOAK

# Garraio publikoa kudeatzeko erakundean dago Debagoiena

Gipuzkoako garraio publikoa hobetzea eta indartzea, horiek dira Garraio Agintearen helburuak

**A. LASAGABASTER** > ARRASATE

Garraio Agintea sortu berri dute, Gipuzkoako garraio publikoa kudeatzeko. Hasiera batean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Donostiako Udalak sinatu dute akordioa. Hala ere, etorkizunean, Gipuzkoako hainbat eskualdek ere hartuko dute parte; tartean, Debagoieneko Mankomunitateak.

Hilaren 19an egingo dute akordioa zehazteko bilera, baina dagoeneko Diputazioak hartu ditu hainbat erabaki. Hasteko, Garraio Agintеak 300 mila euroko kapitala izango du. Kopuru horretatik %46 Foru Aldundiak jarriko du, %15 Eusko Jaurlaritzak eta Donostiako Udalak eta %6 –hau da, 18.000 euro– Debagoieneko Mankomunitateak, Debabarreneko Debegesa elkarteak, Irungo Udalak eta Oarsoaldeko Garapen Agentziak.

Erakunde berriak, besteak beste, garraio publikoaren zerbitzuak, prezioak eta informazioak koordinatuko ditu Gipuzkoan.

**ZERBITZU BERRIAK**

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Debagoieneko Mankomunitateak garraio publikoaren eskaintza hobetzeko hartutako konpromisoak aurrera doaz. Irailetik aurrera zerbitzu berriak jarriko dituzte martxan Pesa konpainiaren bitartez. Horietatik aipagarriena Debagoiena Urola Garaiarekin lotuko duena izango da. Bergaratik irtengo dira bi autobus, bi noranzkotan. Batek Bergara-Oñati-Legazpi-Zumarraga-Antzuola ibilbidea egingo du eta besteak, aurkakoa, Bergara-Antzuola-Zumarraga-Legazpi-Oñati.

Bestalde, Bergara, Eibar eta Eskoriatza arteko komunikazioa indartzeko zerbitzu gehiago jarriko dituzte. 15 minutuan behin izango da aukera autobus bat hartzeko.

Berrikuntza horiek guztiak oraindik ez dira ofizialak, elkarrizketatan adostutakoak baizik. Edonola ere, aurreikusten dute irailaren 1ean martxan jartzea.

**HEZKUNTZA**

## CIM eta Bai&By banandu egin dira

Orain arte, CIMek Bai&By sistema multimediarekin eman ditu eskolak

**A.L.** > ARRASATE

Arrasateko CIM akademiak, orain Mondragon Lingua denak, guztiz eten ditu loturak Bai&By sistema multimediaren bitartez hizkuntzak ikasteko enpresarekin. Azken urteetan, lankidetzari esker, euskara eta ingeles irakasgaiak eman dituzte.

Mondragon Linguak *on line* teknologia erabiliko du hemendik aurrera hizkuntzak irakasteko.

Loturak apurtzeak ez dio kalterik ekarriko ikasleari. Norbaitek kontratatua badu aldez aurretik Bai&By-rekin ikasteko aukera, kontratu hori amaitu arte indarrean egongo da. Aukera hori posible izango da, kontsumitzaileen bulegoaren parte-hartzearekin, enpresa biek sinatutako akordioari esker.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
BERGARAKO UDALA
gazte informazioa

**ELKARTASUNA** > SAHARAKO ETA TXERNOBILGO UMEAK IBARREAN

# Oporretarako gurera etorri dira Sahara eta Ukrainiatik

Bubisher, Nubi, Iesbaa eta Banoia Txernobilekin elkarteen bidez ekarri dituzte umeak ibarreko herrietara; guztira, 28 neska-mutiko



**BERGARA** Bubisher elkartearen bitartez etorri dira argazkiko ume sahararrak. I.A.

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Ume sahararrak udan etxean hartzeko kanpaina abian da. Umeak asteon etorri dira Debagoieneko hainbat herritara eta ibarreko familiekin pasako dituzte oporrak.

Bergararako Bubisher elkartearen bitartez zazpi neska-mutiko etorri dira Bergarara eta bi Antzuolara. Elkartetik esan digutenez, tartean da 19-20 urteko neska gor-mutu bat ere eta arazo bera duen ume baten familian egongo da. Ume guztiei, atzo, eguenean egin zieten harrera Bergarako udaletxean.

Arrasatera hamaika ume etorri dira Saharatik Nubi elkartearen bitartez; guztiak 8 eta 12 urte bitartekoak; batzuek aurrez hemen egondakoak eta bi sekula etorri gabeak. Besteak beste, Smara, Aaiun eta Dajla kanpamenduetatik etorri dira umeok. Haiei ere eguenean egin zieten harrera. Elkarte honen bidez Oñatira ere etorri da beste bat.

**TXERNOBILGOAK OÑATIRA**

Bestalde, Oñatiko Banoia Txernobilekin elkarteak bideratuta, Ukrainiako, Txernobilgo, sei ume etorri dira ibarrera aurten; bost Oñatira eta Bergarara bestea. 8 eta 14 urte bitarteko umeak dira eta beste urte batzuetan etorritakoak denak. Aurten ume gutxiago etorri dira, ordea, euren etxeetan hartzeko familia gutxiago aurkeztu direlako.

Aretxabaletara ere etorri dira umeak: Saharako bat eta Txernobildik beste bat neska bat , aurrez ere etorritakoa bera.

Bi hilabete inguru emango dituzte umeok gurean.

**ENPRESA** > LANGILEEN KALERATZEA

# LABek salatu ditu Elgetako eta Bergarako enpresa banatan izandako kaleratzeak

Talleres Anzuolan eta Alufersan izan dira kaleratzeak, eta lantegiek diote enpresa arrazoiak direla zergatia

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Bergarako Talleres Anzuola eta Elgetako Alufersa enpresek langile bana kaleratu dute. Elgetan, 9 urtez lanean zihoan eta lanpostu finkoa zuen gizonezkoa eta Bergaran, 36 urtez langile finkoa zen emakumea. Kaleratze horiek salatzeko kale bilkurak egin ditu asteon LAB sindikatuak Elgetan eta Antzuolan, *Despido baten aurrean, salatu, borrokatu, garaitu!* lelopean. Bestalde, Talleres Anzuolako lankideek kaleratutako emakumeari elkartasuna adierazteko bilkura egin zuten astelehen iluntzean eta 170 lagun elkartu ziren.

**ARRAZOIA, LAN GUTXIAGO EGOTEA**

Sindikatutik esan dute bi kaleratzeak bidegabeak izan direla. "Talleres Anzuolako kasuan modua ez da batere zuzena izan. Lanera joan eta 12:00etan esan zioten langileari ez bueltatzeko 14:00etan. Enpresak eman duen arrazoia da lan gutxi dagoela, baina ez da pisuzko arrazoia pertsona bat horrela kaleratzeko".

Enpresaren arabera, "lana asko jaitsi da eta langile hau aukeratu dugu bere lana ordezkatzen errazena delako. Makina berri bat erosi genuen eta horrek lana aurreztu digu; bestalde, piezak kanpotik ekartzeak ere lana gutxitu du".

Talleres Anzuolako lankideek deituta lanuztea egitekoak dira enpresan datorren astean.

Alufersan hauteskunde sindikalak egiteko daude oraindik eta LABetik aurkeztutako hautagaia da kaleratu dutena. "Argi dago diskriminazio sindikala izan dela", esan digu LABeko ordezkariak.

Enpresako arduradunek, ostera, kanporatzea enpresa arrazoiengatik izan dela diote. Alufersako arduradunak Goienari esan dio "gauzak ongi eginda daudela, eta hala ez bada Auzitegiak hartu beharko duela hitza".

**kontsumoa**




Hilaren hasieratik abuztuaren amaierara arte izango dira. I.A.

## Beherapenetan erosketa frogagiriak gordetzeko eskatu du Ministerioak

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Beherapen denboraldia hasi dela-eta Kontsumo Ministerioak gogorarazi die kontsumitzaileei erosketa frogagiria gordetzea komeni dela, eroslearen eskubideak bermatzeko. Beherapenetan salgai ipintzen dituzten produktuak aurretik hilabetez –gutxienez– salgai egon behar dute ohiko salneurrian, inolako eskaintzarik gabe. Produktuen kalitateari eta kontsumitzaileen eskubideei urte guztian barrena eutsi behar diete merkatariek, beherapenak izan ala ez izan. Legearen arabera saltzaileak salneurri osoa bueltatu beharko dio erosleari, baldin eta produktua akastuna bada edo kontsumitzailea ados ez badago produktuaren erabilerarekin. Bestalde, kontsumitzaileen elkarteetatik gomendatu dute garai honetan egiten diren publizitate kanpainak arrazionalki aztertzeko, beharrezkoak ez diren erosketak edo erosketa konpultsiboak saihesteko eta kontsumo arduratsua egiteko.



### Oporretarako etxe propioa dute EAEko familien %36k

EAEko bizilagunak bigarrenak dira Espainiako Estatuan, Madrilen atzetik, udako oporretarako etxebizitza partikularrak erabiltzen. EAEko familien %36 dira oporretarako bigarren etxebizitza baten jabe. Datu horrek ez du esan nahi maila ekonomiko altuko familiak direnik. Izan ere, etxebizitza horien erdiak doan utzitakoak dira eta %48 propioak. Etxebizitza horietako gehienak EAEn (% 27) eta Gaztela eta Leonen (%26) daude; eta Kantabria ere lekua hartzen ari da.



### Egunean 2,2 litro ur edatea gomendatu dute sendagileek

Egarririk ez eduki arren, deshidrataziorik ez izateko egunean gutxienez 2,2 litro ur edatea gomendatzen du Familia Medikuen Elkarteak. Hain zuzen ere, egarrisentsaziorik ez izatea da deshidratazio kasu askoren arrazoia, batez ere adineko pertsonetan. Ura bere horretan edan beharrean fruta zukuak hartzea ere gomendatu dute, horrela, likidoak barneratzea gustagarriagoa izan daitekeelako. Adinekoek ez ezik umeek eta gaitz kronikoak dituztenek kontu handiagoa izan behar dute.

## gure artekoak

**ARRASATE ZOO** > Arrasaten animaliak saltzen dituen denda bakarra dago; Mari Kruz Kortabarria da haren ugazaba eta berarendako animaliak zaletasun direlako zabaldu zuen; gainera, orain dela 15 urte katuak hazten ditu.

Arrasate Zoo

# "Konpainia behar duten bezero asko ditugu"

UBANE MADERA > ARRASATE

**Arrasateko Otalora kalean zabaldu zuen denda Mari Kruzek, Arrasate Pentsuak izenarekin. Eta urteak geroago, denda berria zabaldu zuen lehenengo dendatik gertu, Zarugalden: Arrasate Zoo. Kontuak kontu, 16 urte daramatza animaliak zaintzen eta saltzen.**



Mari Kruz Kortabarria, dendan dituen hegazti eta arrainen artean. U.M.

**Zela hasi zinen animaliekin lanean?**

Lehen ospitalean lan egiten nuen, baina aldi baterako langile izateaz nekatu egin nintzen, handik hona ibiltzeaz. Eta orduan zabaldu nuen animalien denda. Nire zaletasuna da.

**Zuk bakarrik diharduzu?**

Dendan bai. Baina albaitari aholkularitza zerbitzua ere badaukat, Altamirako klinikako Humberto eta Itzirekin. 15 urte daramatzagu elkarrekin.

**Beraz, animaliak saltzen dituzu eta albaitari zerbitzua ere baduzu?**

Bai, osoa, gainera: ebakuntzak ere egiten dituzte... Eta 24 orduko zerbitzua eskaintzen dute. Adibidez, txertoak ipintzera dendara etortzen dira.

**Dendari dagokionez, zer eskura daiteke hemen?**

Animaliendako beharrezkoak diren osagarri guztiak.

**Saltzeko, zein animalia duzu?**

Katuak, txoriak, loroak, arrainak, katagorriak... Berez, katuak hazten ditut orain 15 urte. Asko gustatzen zaizkit, baina horrez gainera, merkeago saltzeko ere hazten ditut. Izan ere, katu bategatik 480-500 euro ordaindu behar da, pertsiar katu bategatik, adibidez; eta nik haziz gero, asko jota 375-410 eurorengatik saltzen dut.

Denetariko arrainak ditut: tropikalak, ur hotzekoak...Txakurrak enkarguz ekartzen ditut.

FITXA TEKNIKOA

**> BESTELAKO ZERBITZUAK**
Abuztuan partikularren animaliak zaintzen ditu: txoriak, katuak...

**> BEZERO MOTA**
Herritarrak, eta gehienak konpainia beharra dutenak, jende asko bakardadean bizi delako.

**> PRODUKTUAK**
Gehienak itxian hazitako animaliak dira. Txakurrak Madrildik ekartzen ditu, oso txakur onak bidaltzen dituztelako handik eta arrainak, jeneralean, Singapurtik.

## etxeko leihotik



**Julen Iriondo** > GOITBko albistegietako arduraduna

# Gure hizkuntza ikastea, puntuak irabazteko era

Lan kontuak aldi baterako ahaztu eta gutako asko oporretara joango gara laster: Valtierrara, Macoterara, Moralejara... senideak bisitatu eta sorlekuan egun batzuk pasatzera asko.

Txalotzekoa da bere garaian aipatu herrietatik etorritako lagunek erakutsitako ausardia, beharrak eragindako ausardia, elkarren beharrak: ogi(bide) bila etorri ziren gehienak, etorkizun hobe baten peskisan; eta hemen ere bazen zerbaiten premia, lanean hastearekin bat euren herrietatik jende gehiago ekartzeko eskatu bazitzaien.

Gauza bat ez zait gehiegi gustatzen, ordea: "Nos integramos muy bien" diotenean, alegia. Kanpotik etorri eta batzuek ikasi zuten euskaraz –bejondeiela–; beste batzuek, aldiz, ez. Dena dela, horietako askok ere nahi izan dute euren semealabak euskaldun izan zitezen: horretara bideratu eta horretan lagundu behar ditugu aurrerantzean ere etorkinak.

**"Bideratu eta lagundu ditzagun etorkinak euskara ikas dezaten"**

Horrela, gainera, oporretan sorterrira doazenean etorri zirenean baino aberatsago izango dira. Zoazte, beraz, baina itzul zaitezte, onik; hori da garrantzitsuena.

**> Integrazio osorik** ez dut uste egon daitekeenik hartu zaituen herriko hizkuntza ikasi ezean. Horrelakoetan gertatzen da harrera herriak (herritarrek) egokitu behar izaten duela kanpokoagana.

**> Puntukako karneta** indarrean jarri eta aurreko asteburuan iazko epe berean baino %40 hildako gutxiago: gure bizitzak baino gehiago inporta al digu gidabaimena galtzeko arriskuak?

## begi-bistan



**Lapurtu aurretik begiratu egin behar... (Arrasate) 2006/07/01**

**Argazkia:** Bikani enpresa.
**Testua:** Ubane Madera.

Obretan zebiltzala, bi bider lapurtu dute Biteri parkingean zaintzarako kamera. Baina bigarren aldian, kamerak funtzionamenduan zebiltzan eta gaueko *bisitaria* grabatu egin zuten.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Pello Zabala**
FRANTZISKOTARRA

Rikardo Arregi sarien barruan, Ohorezko Aipamena eman diote. "Eskola sortu du, bere arrastoa utzi du", nabarmendu du epaimahaiak. Hiztegian egin dituen ekarpenak goraipatu dituzte eta eguraldiarekin lotutako kazetaritza generoa bihurtu duela ere bai, besteak beste.



**Jose Antonio Azpiazu**
HISTORIALARIA

Oñatiko San Migel errotaren eta, oro har, Euskal Herriko erroten gaineko liburua idatzi du oñatiarrak, Juantxo Madariaga historialariarekin batera: *El molino de San Miguel*. Liburua eskuratu gura izanez gero, Oñatiko Turismo Bulegoan dago salgai.



**Edu Muruamendiaraz**
DANTZARIA

Aukeran dantza taldeak ikuskizun berria egin du, Edu Muruamendiaraz bergararraren zuzendaritzapean: *Bideak*. Erdi Aroko mundua irudikatu nahian, herriak eta hiriak lotzen zituzten bideak ditu hizpide ikuskizunak. Irailaren 30ean Elgetan egingo dute.

Ez du lan erraza Remi Arantzabalek. 46 urte ditu eta azken 17 urteetan auzitegiko mediku lanak egin ditu. Bergarako auzitegian du lantokia. Hilketak, eraso sexualak, auto istripuak, suizidioak... Bertatik bertara ikusten ditu horrelakoak. Baina ez egunero. Urtean, batez beste 30 autopsia besterik ez du egiten. Sinisteko zaila bada ere, bizimodu lasaia darama Arantzabalek.

**Remi Arantzabal** > Auzitegiko medikua

# "Arraroa bada ere, denbora honetan guztian oso hilketa gutxi ikusi ditut"

AMAGOIA LASAGABASTER > BERGARA

**Gipuzkoa osoan 13 bat auzitegiko mediku besterik ez dago eta horietako bat da Remi Arantzabal bergararra. Duen lana ez dela horren berezia dio. Hala ere, 17 urteko ibilbide luzean, hamaika bizipen izan ditu; batzuk, benetan gogorrak, ahazteko modukoak.**



Remi Arantzabalek Bergarako auzitegian egiten du lan. Aurreiritziak albora utzita, ordenagailu baten aurrean duela beharra argitu digu. A.L.

**Nola egiten da bat auzitegiko mediku?**

Medikuntza ikasi ondoren oposizioak egin behar dira. Azken proba hori benetan gogorra izaten da eta gutxi batzuek gainditzen dute. Ni, egia esan, bitarteko auzitegi medikua naiz. Oposizioak egitera joan nintzen, baina ez nituen gainditu.

**Zuk zeuk zergatik hartu zenuen bide hori?**

Kasualitatez; ez zen nire planetan sartzen, baina aukera izan nuen eta ordutik hona benetan gustura nabil.

**Nola da posible gustura izatea?**

Ez dakit zer duen. Lanbide honetan ikusten ditugun gauza gehienak ezatseginak dira, baina, hala ere, badu tira egiten duen zerbait. Zaila da zer den azaltzea.

**Nolakoa da eguneroko lana?**

Euskadiko auzitegi-medikuntza erakundearen menpe lan egiten dugu. Eta nire lanak hainbat alor ditu: istripu baten ondorioz izandako lesioak aztertzen ditugu, psikiatria alorrean indarrezko barneratzeak egiten ditugu, lan ezintasun iraunkorrak baloratzen ditugu eta, azkenik, delituen leporatzeetan hartzen dugu parte. Horrez gain, hilotzak jaso eta autopsiak egiten ditugu.

**Zein kasutan praktikatzen da autopsia bat?**

Heriotza susmagarria edo bortitza den bakoitzean beharrezkoa da. Heriotza naturala izan arren, badaude arraroak direnak, eta horietan ere autopsia egiten dugu. Esate baterako, gazte baten bat-bateko heriotza kasuan.

**Hilketa kasurik izan duzu esku artean?**

Bai, baina oso gutxi izan ditut. 17 urte daramatzat lan honetan eta arraroa da horrelako gutxi izatea. Kontuan izanda, gainera, zein ingurutan bizi garen; Euskal Herrian politikak hildako ugari utzi ditu.

**Valentziako metroan duela gutxi gertatutako istripuaren antzeko zerbait bizi izan duzu?**

Zorionez, ez. Hildako bat baino gehiago izan diren istripuetan lan egin izan dut, baina horrelako tragediarik ez dut bizi izan.

**Horrelakoetan nola identifikatzen dira gorpuak?**

Kasu bakoitza desberdina da. Batzuetan arropagatik identifika daitezke: tatuaje bat, markaren bat, haginak ere garrantzitsuak dira... Eta horrek guztiak huts eginez gero ere, ADNaren froga dugu.

**Zenbateraino dira fidagarriak hilotz batetik ateratako ondorioak?**

Ezin da portzentajerik eman. Brometan esaten dut ni lan honetan nagoenetik ez dela krimen perfektua existitzen. Ez; egia esan, fidagarritasuna asko zaintzen dugu. Edonola ere, ikerketa lana ez da autopsian hasten, ezbeharra gertatu den lekuko froga guztiek ere kasua argitzen laguntzen dute. Gorpua jaso aurretik ahal den eta informazio gehien batu behar da. Testiguak, argazkiak, Ertzaintzaren txostena... Guztiak balio du.

AUTOPSIA

**"Heriotza bortitza edo susmagarria izan den kasu guztietan egin behar da autopsia"**

KASU GOGORRAK

**"Umeen autopsiak eta adin txikikoen sexu erasoak dira kasu gogorrenak"**

TELEBISTA

**"Froga txiki batetik hiltzailearen historial guztia egiteko gauza dira; hori ez da erreala"**

**Zeintzuk dira kasu gogorrenak?**

Umeen autopsiak eta adin txikikoen sexu erasoak. Horietara ez naiz sekula ohituko. Duela gutxi, urte eta erdi eta bederatzi urteko bi ume aztertu behar izan ditut... Benetan gogorra da.

**Emakumeen kontrako erasoetan ere parte hartzen duzu?**

Bai, biolentzia izan den kasu guztietan egin behar dugu mediku txostena.

**Azkenaldian gehitu egin dira kasu horiek?**

Hego Amerikako etorkinen inguruan gehitu dira indarkeria erasoak. Kultura desberdina dutelako-edo, hamar erasotik bost horrelako kasuak dira.

**Telebistako telesail askotan zarete protagonistak; jarraitzen dituzu?**

Ez asko. Batzuk ikusi izan ditut eta uste dut erabiltzen duten terminologia ona dela, baina fikzio handia dago. Froga txiki batetik hiltzailearen historial guztia egiteko kapaz dira eta hori, zoritxarrez, ez da horrela izaten.

**Zuri gertatutako kasurik arraroena?**

Araotzen gizon bat kiskali zen auto barruan. Femurra besterik ez geneukan identifikatzeko. Kasualitatez, belauneko artrosia zela-eta, erradiografia bat eskuratu genuen. Konparaketa egin eta minutu gutxira, femurra guztiz desegin zitzaidan.

**Etxean zer esaten dizute?**

Emazteak pazientzia handia izan du beti. Horregatik, lerro hauek aprobetxatu gura ditut eskerrak emateko. Seme-alabek, oraingoz, behintzat, ez dute galdera askorik egiten.



zabalik

Diego Martiartu

# Oporretan

Hainbeste maite du bere ingurua eta bere herria mendebaldar hankabikoak ze, kartzelatik ihesi doan presoaren antsia berak bultzatuta, udako hamar-hamabost eguneko oporraldia hartzearekin batera –lehen hil osokoak izaten ziren bakantzak– ireztua legetxe egiten baitu hanka bizilekutik bostehun, mila, hamaika mila kilometrora dauden paradisuetara.

Udako migrazioetan, norakorik ohikoena barrualdetik kostalderakoa da. Hainbat milioi izaten dira errepideetan pilatzen diren lau gurpildun tramankulu metalikoak. Banaka batzuk ez dira inoiz euren helmugara iristen, baina hori, jakina, urteroūrtero estatistikak eskatzen duen ordainsaria baino ez da.

Zein polita den askatasuna!, horixe esan dio mendebaldarrak bere buruari, itsasoak eta zeruak bat egiten duten marrari bizkarra emanda, seme-alabek etxetik hondartzarantz irten duten unean. Txangurru bati goialdea kentzen zaion antsia berarekin zabaldu du bere ordenagailu txikia mendebaldarrak.

> **"Zein polita den askatasuna!, esan dio mendebaldarrak bere buruari"**
>
> **"Txangurru bati goialdea kentzen zaion antsia berarekin zabaldu du ordenagailua"**

Enpresan eman berri dioten 3 G txartela baliatuta, segundo batzuen buruan argitxo urdina piztu da: konexioa ondo egin den seinale.

Ez kablerik, ez WI-FIrik, ez hostiarik. Ezin sinetsizkoa. Irribarrea loratu zaio ezpainetan, eta hankartea txingurritu.

Posta elektronikoa zabaldu du. Lantegitik mezua: "Uriarte, gogoratu inbentarioari buruzko txostena eta salmenta plana hemen behar ditudala, etziko. Ondo ibili. German".

Gero, Uriarte logelara zuzendu da, emaztea lo seko dagoela egiaztatzera. Maitasunez begiratu dio, azken batean Matilderi esker lortu baititu oporrak: "German, mesedez, astebeteko oporraldia behar dut, zazpi egun bakarrik, andreak ultimatuma eman dit eta".

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

## KALAMU KONTSUMOAGATIK KEZKATUTA

**Guraso batek hauxe diosku: "13 urteko semeak porroak erretzen dituela jakin berri dut, eta kezkatuta nago. Nora jo dezaket?"**

Debagoienean, Arrasateko, Bergarako, Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Oñatiko udalek drogamenpekotasun prebentzio zerbitzua ematen dute. Arrasateko teknikariak, Maite Aizpirik, hauxe diosku: "Gurasoendako informazio eta orientazio zerbitzua ematen dugu, eta prebentzioa lantzen dugu hainbat girotan: familian, ikastetxean…".

Informazio hori lortzeko, norberak aukeratutako udaletxera deitu behar da, eta txanda eskatu teknikariarekin.

## EZKONTZEN BERRI ALDEZ AURRETIK EMAN BEHARRA

**"Bikote bat ezkondu behar denean, aldez aurretik hori udaletxeko arkupetan argitaratu egin behar dela irakurri dut, baina bakarrik 25.000 biztanle arteko herrietan. Zergatik egin behar da hori, eta zergatik bakarrik biztanle horietako herrietan?", galdetzen digu irakurle batek.**

Gure irakurlearen informazioa ez da guztiz zehatza: herri bakoitzeko Bake Epaitegiak du argitaratzeko obligazioa, ez udalak; Bergaran, berriz, Epaitegiak argitaratzen du.

Oñatiko Bake Epaitegiko Laguntza Judizialeko kideak, Remek, eman dizkigu azalpenak. Bikotea ezkondu baino 15 egun lehenago argitaratu behar da ediktu hori, inork alegaziorik ipini nahi badu (adib., bikotekideetako bat dagoeneko ezkondu-ta baldin badago eta inork hori baldin badaki).

Bestetik, 25.000 biztanletik gorako herri eta hirietan ez dago derrigortasun hori. Horren ordez, beste neurri bat dago: ezkontideek ezkonduta ez daudela zin egin behar duten bi lekuko eraman behar dituzte.

Erroldatuta dauden lekuan egiten da espedientea, baina azken bi urteotan bizi izan diren lekuko araua ezartzen zaie.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## ORTUAK ERRENTAN HARTZEKO AUKERA

**Arrasatear batek hauxe galdetu digu: "Garagartza auzoan ortuak errentan emateko zituela eta, izenematea zabaldu zuen udalak. Oraindik izena eman dezaket?"**

Ortu baino interesatu gehiago agertu dira udaletxera. Hala ere, oraindik beste hilabetez luzatu du udalak izenemate epea. Gero, zozketa egingo dute. Izena emateko, jo Udal Ingurumen Sailera.

marrazkiz

Alex Ugalde




blog

# Julenengatik, Julenengandik

**Julen Zelaieta**
www.blogari.net/julen

Enuke nere burua futbolzaletzat hartuko, eta azkenaldian guttigo, deskonektatuta baitut aspaldian mundu hortatik, hori bai, nolapattere futbol munduari lotu beharko banio hitz batekin lotuko nuke: Errealzalea.

Lehenago ere aitortu izan dut bertan nere pekatu ttikia eta berriz ere aitortzen dut; garai batean Erreaeko bazkide izan nintzen, errealeko forofo number one, eta bide hortan nengoela hameka irain jasan behar izan zituen gaur negarrez ikusi dudan portugaleteko tokaioak orduan Atletikeko haur mimatua zen, gaztetxoa, orduko gure adineko nesken idolo, eta agian jeloskor jartzen ginelako edo iraintzen genuen. Derbitan, kornerra ateratzera atera orduko ttak! burla, oihua, iraina, *nenaza, niñopera, niñomimau, pijoplaya* (hoiek oroitzen naizenak)… zergatik? Atletikekoa zelako!

Gaur ordea, ia adinean aurrera egin dugu, ia burua erabiltzen ikasi dugu, eta mutila malkotan blai prentsaurrekoa ematen ikusi dudanean zer pentsatua eman didala. Zergatik egin du negar?, zelaian bereak egin eta orain gai eztela ikusi duelako edo kluba maite duelako? Nik bigarren arrazoia dela pentsatu nahi nuke, eta malko hoiek urtetan klubak eman dion babesaren fruitu direla, koloreak sentitzen dituela, eta benetan arro dagoela dagoen lekuan.

Horrelakorik ikusi al da inoiz Errealean? nik dakidala ez, nor joan da malkotan Zubietatik? Joan badira, eskuz kontatzeko moduan, zergatik? Bueno, hori talde txuriurdine-

plazara

Artikuluaren egileak, EA alderdiko Iñaki Galdosek, politikaren eta Eliza Katolikoaren arteko harremanaz gogoeta egiten du, azken egunotan Elizako kideek Euskal Herriko egoera politikoaren eta bake bidearen gainean egin dituzten ekarpenen harira. Bera "ez fededun" definitzen den arren, politikari moduan, Elizaren aldetik gero eta ekarpen gehiago igarri dituela dio Galdosek.

**Iñaki Galdos ***

# Elizatik politikara eta alderantzizko ibilbidea

Duela egun batzuk bake prozesuei buruzko ikastaroa izan da Oñatin, Lege-Soziologiako Nazioarteko Erakundeak antolatua. Izugarri ikastaro aberasgarria izan da, besteak beste Kolonbian, Irlandan edota Ekialde Hurbilean gertatzen ari denari buruzko argibideak eskaini dizkiguna.

Ikastaroaren baitan hitzaldi jendetsua antolatu zen Arantzazuko Gandiaga topagunean. Iñaki Beristainen aurkezpenaren ondoren, J.M. Setien, Alec Reid eta Harold Goodek hartu zuten hitza, apaizak hirurak. Arantzazura, ikastaroko hirurogei bat parte-hartzailez gain beste horrenbeste gizon eta emakume ere hurbildu ziren, gehienak oñatiarrak. Azken hauetako asko ikusi nituenean sortu zitzaidan arratsaldeko lehen gogoeta.

Izan ere, nire buruari galdezka hasi nintzaion ea horietako zenbatek pentsatuko zuten duela urte batzuk, egunen batean hiru apaiz eta frantziskotar baten hitzaldiak txalotzen bukatuko zutenik, non eta Arantzazun. Eta nire buruarekin berriketan hasi nintzen, susmatzen hasieran eta egiaztatzen ondoren, politikak Elizara hurbildu egin nauela ni azken urteetan, Eliza ulertzeko modu batera behintzat.

Badakit egun horretako entzuleak Setien "politikoa" eta Reid-Good bikote bitartekaria entzutera joan zirela batez ere. Bistan dago Setienen aipamen teologikoak eta Reiden Jainkoaren Graziaren aipamenak piztu zutela arreta txikiena. Baina horrekin batera, ukaezina da ordu batzuetan gutxienez hurbilketa bat egon



MIKEL ARROIABE

zela, urte luzez elkarri begiratu gabe ibili diren munduen artean.

Kazetari gisa hasi nintzen Setien Gotzainaren sermoiak jarraitzen. Garai hartan izugarrizko oihartzuna izaten zuten eta lan egiten nuen egunkaritik Arantzazura bidaltzen ninduten urtero meza jarraitzera, gero kronika egiteko aginduarekin. Ordura arte urteak neramatzan, mezetara halabeharrez joaten nintzen apurretan, han esaten zenari jaramonik egin gabe.

Politikan murgildu naizenean, gero eta gehiago egin dut topo Setienekin. Adibidez, politikarien artean dagoen eztabaidaren aurrean, hau da, bakearen prezioaren gaiaren aurrean, ez dut aurkitu Setienek Juan XXIIIren *Pacem In Terris* entziklikaren inguruan idatzitako liburuan emandakoa baino arrazoi borobilagorik. Oso aberasgarriak iruditu zitzaizkidan baita ere *Hemen* aldizkaritik bakearen inguruan duela bi urte inguru egindako ekarpen anitzak.

**"Egiaztatzen hasi nintzen politikak Elizara hurbildu nauela ni azken urteetan, Eliza ulertzeko modu batera, behintzat"**

**"Bakearen prezioaren gaiaren aurrean, ez dut aurkitu Setienek emandakoak baino arrazoi borobilagorik"**

Euskaditik kanpora, beste hainbat adibide jarriko nituzke munduan pil-pilean dauden arazoei buruz. Adibidez, islamismoarekin gertatzen dena ulertzeko, izugarri interesgarri egiten zait Hans Kung teologoak kristautasunetik egindako irakurketa.

Ez naiz fededuna. Baina nire ibilbide honetan gauza asko ari naiz aurkitzen Elizaren baitan. Oñatiko zinegotzi gisa nire lehen Gorpuzti eguneko mezara joan nintzenean, meza ondoren alderdikide bat etorri zitzaidan esaten oso guapo nengoela traje harekin, baina pena hartu zuela ikustean ez nuela Jauna hartu eta ni izan nintzela Aitaren egin ez zuen bakarra. Hamaika urte beranduago, garbi aitor dezaket orain dik ere ez dudala Aitarenik egiten, baina han esandakoari dezente jaramon gehiago egiten diodala.

Beti esan izan da politikan jende asko dagoela, gehiegi agian, Elizatik, komentu eta seminarioetatik iritsia. Ikusten denez, badago kontrako ibilbiderik ere. Agian mezetan Jauna hartzen bukatuko dut, baina ordurako ez naiz zinegotzi izango eta ez dut alderdikide harekin daukadan zorra kitatzeko betarik izango.

*Iñaki Galdos EAko Gipuzkoako presidentea da.

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Bakeari lagunduko dio Bob Dylanek?

| | |
|---|---|
| BAI | %25 |
| EZ | %75 |

**> HERRITARRON LANA**
Baliteke kontzertuak norabide hortan laguntzea, baina gure lana da bakea deitzen duten hori kontenidoz jostea.
**Anbotoko Mari**

**> SINBOLOAN GERATZEN DA**
Gesto sinboliko moduan, oso ondo dago. Musika ederra da, eta Dylan bera beste sinbolo bat da. Baina hor geratzen da kontua.
**Lennon**

**> AZORESEKOA BAINO HOBE**
Azoreseko argazkia baino askoz ere erakargarriagoa, ederragoa, interesgarriagoa, beharrezkoagoa... da Dylan Euskal Herriko hondartza batean 50.000 lagunen ondoan ikustea.
**Baez**

**> MARKETIN HUTSA**
"Bakearen aldeko kontzertua" izena izatea marketin hutsa da, ez du bakea blindatuko. Benetako bakea izateko hasi gaitezen salbuespen egoerei bukaera ematen.
**Senidea**

**DATORREN ASTEKO GALDERA:**
**Oporretarako kreditua eskatuko zenuke?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

top

ko *jet set*-ari galdetu beharko genioke. Errealak badu zer ikasi jokalariei koloreak sentitzen erakusten.

Animo tokaio! Eutsi goiari... hori bai, aupa Erreala!

## Lana!

**Sare**
www.blogari.net/saregu

Oso nekatuta nago. Baina oso oso!

Behingoagatik ulertzen ditut kotxeak konpontzeko tailerrak; igeltseroak; arotzak; iturginak... Guzti hoiek eta beste hainbatek oporren aurreko asteetan lan bikoitza izaten omen dute.

Mundu guztiak nahi izaten omen du oporretara joan aurretik guztia txukun uztea; bukatzeko dauden txapuza guztiak bukatzea; autoa presto presto izatea...

Nik uste dut guri berdina gertatzen zaigula.

Abuztua edo beno, udako oporrak gainean dauzkagun hontan jendeak bere gorputza, minak, ahuleziak... konpontzea nahi ditu. ITV-a pasata joatea urte guztian esperoan egon diren data hoietan hara nora. Denak gaude minez, estresatuta, kargatuta, oso gaizki... Baina abuztua iritsiko da. Eta gure lanean asko nabariko da jendearen hutsunea. Lasai egingo dugu lan. Estutu gabe. Gustora. Eta oso gaizki dauden hoiek. Edo oporretan etxean geratu diren hoiek. Edo oporrik ez duten hoiek izango ditugu gure eskuartean. Guztiok patxaraz. Presarik gabe. Gustora lanean. Polita da abuztuan lan egitea.

Baina iraila iritsiko da eta oporretako harutz-honutza dela eta mundu guztia gaizki etorriko da. Minez. Kargatuta. Estresatuta.

Baina beltzaran.

koplak

**Jokin Labayen**

## Zer da bakea? Bakea al da...

Zer da bakea? bakea al da
dardara gitarren sokan?
bakea al da 10 abesti
300.000 eurotan?

Bakea al da parranda baten
hondarra zapatiletan?
bakea al da edari dena
plastikozko botiletan?

Bakea al da marketingaren
ekimen ofiziala?
bakea al da Donostin suak
bezain artifiziala?

Bakea al da argazki on bat
portada batetarako?
bakea al da preferentzia,
ordaintzen dutenentzako?

Bakea al da sentsazio bat
soilik saldu nahi denean?
bakea al da jendetza pila
pantailen aldamenean?

Bakea ez da soilik kantari
sonatuen talentua
da herritarron hitza, ahotsa
ta herritarron lekua.

# Biztanleen arreta zerbitzua edo mondragoetarrok zoli egoteko laguntza

**Ramon Ugalde Gosrostiza**
Arrasate

Zeharo harrituta utzi nau Arrasateko Udalak Portaloian zabaldu berri duen bulegoari ipinitako izenak. Itxuraz, herritarron/hiritarron eskabideak jasotzeko zerbitzu bat ei da, baina jarritako tituluaren arabera zerbitzu horretan arituko diren zerbitzariek Mondragoeko biztanleen arreta piztu eta berenganatu nahi dute. Ez da lan makala; izan ere, mondragoetarrok aspaldi honetan mozolo samar gabiltza, ezerez ere ez gara enteratzen, eta geroz eta beharrezkoagoa dugu zoliago, eta argiago ibiltzeko laguntza hori.

Zer da, baina, biztanleen arreta? Biztanleen ardura? Biztanleen atentzioa? Nortzuk izan behar dira arreta jarri behar dutenak? Arrasateko biztanleak edo horko bulegoko zerbitzariak?

Baliteke, bestalde, izen hori, BAZ delako hori, asmatu duenak mondragoetarroi mezu ezkutu bat bidali nahi izan digula, eta funtsean esan nahi duguna zera dela: Arrasateko biztanleok zoli egon behar dugula gure udalarekin.

Beste zalantza bat ere badaukat: Mondragoeko biztanleentzat soilik izango da zerbitzu hori? Atxabaltarrak edo aramaioarrak arrimatu ere ez daitezela egin gure bulegora. Eta agian guztiz oker nago eta zerbitzuarena bere zentzu komun-komunean ulertu behar nuen: andereño komunera joan naiteke barik, andereño zerbitzura joan naiteke?

Bueno, honaino jarraitzeko pazientzia eskertuz noan harira: Behin baino gehiagotan euskal morroiok erdara txar batetik euskara txarrago batera itzultzen dugu. Erdaraz ondo jakin barik euskal hiztegian gaizki ulertutako berbak harrapatuz dihardugu. Ez da gauza bera *estar atento* edo *estar atendido*. Eta hala arreta hitza ez da egokia *estar atendido* adierazteko. Biztanlearena ere oso adiera bortxatua da, bulego horretan ez dituzte bereiztuko Arrasateko biztanleak eta herritar edo hiritar arruntak, eta Zerbitzuarena ere oso kontzeptu iluna da. Beraz, euskaldun normalak izan nahi dugunontzat zergatik ez dira izen egokiagoa asmatzen hasten. Ez da gauza bera biztanleak zoli egotea edo biztanleak *atendiruta* egotea.

# Hitza eskatzen dugu

**Jose Ramon Kortabarria** (Arcelor Bergarako LABeko sail sindikala)
> Bergara

Ekainaren 30ean GOIENKARIAn Mittal eta Arcelorri buruzko berri bat azaldu zen honako izenburuarekin: *Egoerak okerrera egin dezakeen beldur dira langile ordezkariak*. Hurrengo azpitituluak: *Enpresa bien arteko akordioa "merkataritza operazioa" izan dela salatu du komiteak* eta *Uztailaren 8ra arte Mittalek eskaintza alda dezake, eta beldur dira Bergaran*. Gero, albistean, Iñaki Arregi langile komiteko lehendakariaren iritzi batzuk azaltzen ziren. (Esan beharra daukagu komiteari eta langileen ordezkariei buruzko iritziak ez baziren azaldu zuzenago izango zela).

Langileen komiteko lehendakariak ez digu deitu ere egin gai honi buruz hitz egiteko eta ez dugu bilera bakar bat ere egin. Iñaki Arregik esandakoei buruz, berriz, zera esan nahi dugu: ematen du Arcelorrek huts egin diola erabakia hartzeko orduan langileen iritzia kontuan ez dutelako hartu, noizbait hartu izan balute bezala. Hurbileko adibideak baditugu Arcelorrek Lesakako Tubos de laminacioneseko saila eta Azpeitiko Marcial Ucin saltzea erabaki zutenean, sekula ez zuten gertatzen zenari buruz informatu komitea, eta hori ondo baino hobeto daki Iñaki Arregik.

Gauzak horrela, interes borroka honetan (nahiz eta GOIENKARIAko berrian honi buruz ezer ez esan) Iñaki Arregi buru-belarri ibili da akzioak saltzeko enpresan egindako kanpainan. Kolaborazioa eskatu die langile guztiei Arcelorri laguntzeko, Arcelor baita gure nomina sortzen duen enpresa (sindikalista batek hau esatea kezkagarria da). Gure lana eta gure ahalegina dira nomina sortzen dutenak eta Arcelor gure lana erosten duena, baina badirudi Iñaki Arregi oso osorik erosia izan dela.

Azkenik, esan nahi dugu orain arte komiteko lehendakaria konturatu ez bada, akzioen salmenta kanpainan izan duen jarrera ikusita ondo egongo zela konklusio bat ateratzea, diruak ez dituela ez mugak eta ez sentimenduak ezagutzen.

# Beste emakume baten hilketa

**Esther Lizarralde** (Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako Arrasateko plataforma)
Arrasate

Berriro ere emakume baten hilketa: joan zen astelehenean Lorena gazteari egokitu zitzaion, Basauri herrian, noneta oraindik gogoan dituzten Begoñaren eta Mariviren hilketak. Hegoaldean hiru emakume hil dituzte aurten, eta 37 emakume estatu osoan.

Galdetu behar diogu gure buruari ez ote garen ohitzen ari hildako emakume pila horren aurrean, ez ote garen hartara egin, halako egoera bidegabeen aurrean.

Gure hausnarketak bilatu nahi du ahalik eta energia guztiak piztea, gizartearenak, gizarte eragileenak, hedabideenak, erakundeenak,… emakumeenganako indarkeriaren aurkako borrokan.

Salatzea, elkartasuna adieraztea, mobilizatzea guztiz beharrezkoak ditugu, piztu egin behar ditugu.

Hedabideei eskatzen diegu jarrera aktiboa izateko, erne eta adi egoteko. Horiek ere gizarte eragileak dira, gure gizartearen partaide dira. Hedabideek asko egin dezakete gizartea sentsibilizatzearen alde.

Erakundeei (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, udalak,…) esaten diegu haien erantzukizuna dela ahalik eta gehien egitea, gizarteko gaitz honekin bukatzeko. Gure ustez alde handia dago esan eta adierazten dituztenen eta benetan egiten dituztenen artean. Erantzukizuna izateko eskatzen diegu eta arren eskatzen diegu abian jartzeko behar beste politika biktimei laguntzeko, behar beste prebentzio politika eta gizartea sentsibilizatzeko politika.

Azkenik, gizarteak eta haren gizarte eragileok ulertu behar dugu emakumeenganako indarkeria ez dela emakumeen arazoa bakarrik, ezta halako arazoak lantzen dituzten elkarteena ere, ez eta erakundeena bakarrik ere. Gizarteko gaitz honen aurkako borrokak berdin eragiten die emakumeei eta gizakumeei eta gizarte eragile guztiei. Batu behar ditugu ahaleginak eta energiak eta piztu behar dugu emakumeenganako indarkeriaren aurkako borroka.

# Beti gezurretan

**Julen Romaratezabala**
Oñati

Azken egun hauetan Oñatiko alkatesaren aldetik uztailaren 1eko Gaztetxe Eguna zela eta zabaltzen ari diren esamesen aurrean, Oñatiko Gazte Asanbladak gertakizunak nola izan diren argitu nahi ditu:

Maiatzaren 22tik ekainaren 22ra 31 egun daude. Normalean, eskari baten erantzuna 15 eguneko epean ematen dute. Gaztetxe egunerako 9 egun bakarrik falta zirela eman ziguten erantzuna.

Plazako pilotalekuan ezin zela egin esan zigutenean, guk unibertsitate ondoan, txosnagunean, egitea proposatu genien. Beraien erantzuna ezezkoa izan zen. Arrazoia: guk aterako genuen zarata plazatik entzungo zela eta ezingo zutela beraien jaialdiaz gozatu. Orduan, guk Olaiturrin egitea proposatu genien, oraindik urrunago, baina beraien erantzuna ezezkoa izan zen berriz, handik ere zarata entzun egingo zela eta gainera kotxeentzako aparkalekuak kenduko genituela esan ziguten. Hori bai, San Juan sua egiteko berdin da aparkalekua kentzea! Ibarrako futbol zelaian egitea ere proposatu genien eta beraien erantzuna ezezkoa berriz ere. Argi dago Udalak ez zuela nahi Valtierra, Moraleja eta Macoteratik etorritako jendeak gu kalean ikustea.

Egoera honen aurrean, ETEO atzealdean dagoen Larraña Institutuko zuzendariarengana jo genuen, Gaztetxe Eguna, hango instalazioetan egiteko baimena eskatzera. Zuzendariaren erantzuna baiezkoa izan zen, beraz, Oñatiko alkatesak, *Asteleheneko Goienkaria*-n, esan zuen ez bezala, hor egitea gure ideia izan zen eta ez Udaletxearen proposamena.

Behin jaia egiteko lekua lortuta, Bergara, Arrasate eta Aretxabaletako udaletxeetara jo genuen kontzerturako eszenatokia eta bazkarirako mahaiak eta aulkiak eskatzera, Oñatiko Udalaren material guztia hartuta baitzegoen. Baina ekainaren 28an, a ze kasualitatea, 6x4 metroko eszenatokia libre zegoen.

Mahaiak eta aulkiak Arrasateko Udalari alokatu genizkion. Oñatiko Udaleko brigadakoek, eszenatokia kontzertuen lekura eraman zutenean, material guztia han utzi, guk muntatu beharko genuela esan eta alde egin zuten. Iazko Gaztetxe Egunean guk esan genien brigadakoei geuk muntatuko genuela eszenatokia eta beraiek esan zuten guk ezin genuela muntatu seguruen kontuak direla eta.

Muntatzen hasi ginen eta pieza batzuk falta ziren eta beste batzuk ez ziren eszenatoki horretakoak, edo hori uste dugu behintzat, guk ez baitakigu eszenatoki bat muntatzen. Azkenean hala moduz muntatu genuen.

GOITBri ere muxu kariñoso bat bidali nahi diogu, asteleheneko albistegietan, Gaztetxe Egunari buruzko erreportaian, alkatesaren bertsioa komentatu zutelako eta gurea ez.

Gutun hau ere halabeharrez idatzia izan da, boligrafoa paper gainean jarri eta tinta isurtzen hasi da! Guk ez dugu inoiz Oñatiko Udala gezurretan ari dela esateko asmorik izan. Zeruko lainoek, ere, negar egitean euria isurtzen dute.

Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiogu Larraña Institutuari bere instalazioak uzteagatik.

## Goienako zuzendaritzak elkartasuna adierazi nahi dio Pablo Muñozi

Lerro hauen bitartez, gure elkartasuna adierazi nahi diegu *Diario de Noticias de Navarra* eta *Noticias de Gipuzkoa* egunkarien zuzendari Pablo Muñozi eta baita egunkariotako langile guztiei ere, une desatsegin hauetan. Pablo Muñozen ibilbide profesionalak nahiko berma ematen digu bere errugabetasunaz zalantza izpirik ez izateko. Horregatik, bere atxiloketa arbuiatu eta berehala aske uztea eskatzen dugu.

Bidegabekeria deritzogu froga moduan atxilotu baten adierazpena oinarri hartuta Pablo Muñoz atxilotzeari, are gehiago Pablo Muñozek berak aldez aurretik leporatu zaizkion delituekin zerikusirik ez duela publikoki adierazi duenean. Bidegabekeria, era berean, Pablo Muñoz inkomunikatuta edukitzea eta sumarioa sekretupean egonda, atxilotuen adierazpenak prentsara zabaltzea.

Gure kezka azaldu nahi dugu Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileek darabilten jokabidea delaeta, jokabide hori urrun dagoelako eskubide estatu bati dagokionetik. Kezkatuta gaude, era berean, azkenaldian euskal hedabideen aurka Auzitegi Nazionalak darabilen jokabidearekin, adierazpen askatasuna urratzen duelako.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**
**Telefonoa:** 943 25 05 01
**Faxa:** 943 25 05 13
**Posta elektronikoa:** goienkaria@goiena.com

# EGUNEZ EGUNEKO UKIPEN-LENTEAK

Bausch & Lomb

MULTIOPTICAS
1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

0,90€ eguneko




R.P.S. Nº 190/04 I.L.G.

TXARTEL PLANA

| 1. EROSKETA | 2. EROSKETA | 3. EROSKETA | 4. EROSKETA |
|---|---|---|---|
| 2 kaxa x 90 unit. | 2 kaxa x 90 unit. | 2 kaxa x 90 unit. | 2 kaxa x 90 unit. |
| -%30 97€ + OPARIA | 90€ | 76€ | 69€ |

| J. Carlos Guerra, 1 Tel. 943 79 29 95 ARRASATE | Ibargarai, 16 Tel. 943 76 15 75 BERGARA | C/ Nueva, 15 - GROS Tel. 943 32 66 49 DONOSTIA | Bidebarrieta, 2 Tel. 943 20 05 22 EIBAR | Koldo Mitxelena, 7 Tel. 943 51 78 11 ERRENTERIA | Mendibil M. G. Tel. 943 63 99 01 IRUN | J.M. Barandiaran Enp. Tel. 943 88 99 88 ORDIZIA | San Frantzisko, 23 Tel. 943 69 84 70 TOLOSA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|



# ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, SHARP eta EDESA etxetresnetan sekulako eskaintzak!
**Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.**



2 URTE BERMEA
1.260 x 850 x 600 mm
A+
IZOZKAILU HORIZONTALA
Super-isolamendua CFS-126
Bolumena: 296L
FAGOR
365 € 60.731 pta



2 URTE BERMEA
1.850 x 598 x 590 mm
A
HOZKAILUA COMBI 4FAC495
345 € 57.403 pta
aspes



2 URTE BERMEA
A
ONTZI-GARBIGAILUA LJA - 0140
199 € 33.111 pta
aspes



2 URTE BERMEA
1.000 b/min
6 kgr.
A+A
GARBIGAILUA 4L104
240 € 39.933 pta
edesa

"RENOVE PLANA" 75 euroko deskontua



AIRE EGOKITUA
HOTZA ETA BEROA
3000 KCL/orduko
2 URTE BERMEA
230 € 38.268 pta



TELEBISTA SHARP LC-26P55
LCD 26''
899 € 149.557 pta



TELEBISTA SHARP LC-32P55
LCD 32''
1.250 € 207.950 pta



2 URTE BERMEA
AIRE EGOKITU PORTATILA ADR73
HOTZA ETA BEROA
3000 KCL/orduko
405 € 67,387 pta

ETIKETA ENERGETIKOA
Eraginkortasun gehien A+ A B C D E F G Eraginkortasun gutxien

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

# Uda 2006

## ARRASATE MARSANS BIDAIAKen!

### Irteerak Bilbotik – 8 egun 7 gau

**Fuerteventura:**
Irteera uztailaren 23an - 290€-tik aurrera.

**Ibiza:**
Irteera uztailaren 29an – 370€-tik aurrera.

**La Palma:**
Irteera uztailaren 19an eta 26an – 299€-tik aurrera.

**Cancun:**
Irteera uztailaren 29an - 655€-tik aurrera.

**Egipto:**
Irteera astelehen eta ostiraletan (abuztua barne) – 549€-tik aurrera.

**Tunisia:**
Irteera astelehenetan (abuztua barne) – 560€-tik aurrera.

**Mallorca:**
Irteera astelehenetan (abuztua barne) – 350€-tik aurrera.

**Tenerife:**
Irteera asteazken eta igandetan (abuztua barne) – 370€-tik aurrera.

### Beste eskaintza batzuk:

**Txina:**
14 egun – Mantenu erdian – Irteera Madriletik abuztuaren 6an – 2.105 €-tik aurrera

**Cuba:**
9 egun 7 gau – Irteera Madriletik – 950€-tik aurrera

**Argentina:**
Hegaldiak bakarrik edo zirkuituak

**Europa:**
Praga, Viena, Budapest, Errusia, Italia, Madeira...

**Penintsula:**
Peñiscola, Mojacar, Roses, Salou, Benidorm...






**Zure konfiantza saritu nahi dugu!**
Postal bat bidaltzen badiguzu,(Arrasate Bidaiak – Kontzeziño kalea 12 – ARRASATE) urte amaieran egingo dugun zozketan parte hartzeko aukera izango duzu:
**BAINUETXE BATEN ASTE BUKAERA ZORAGARRIA!**

**UMEAK DOAN**
edo deskontu bereziekin.
UDA OSOAN

**BIDAIA HANDIETAN ESPEZIALISTAK GARA**
Costa Rica, Argentina, Australia, Zeelanda Berria...

Arrasate Bidaiak
CIE 2214
BIDAIA - AGENTZIA ELKARTUA

marsans viajes

Kontzeziño kalea 12 - ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30 Faxa: 943 79 74 45
E-posta: d4051@marsans.es

# Herriak

**Arrasate** > 18-23 **Bergara** >24-29 **Aretxabaleta** > 31-33 **Eskoriatza** > 34-35
**Antzuola** > 36 **Elgeta** > 37 **Aramaio** > 38 **Gatzaga** > 39



**> ARRASATE**
Parking publiko berria zabaldu dute herriaren erdian: Biteri **> 18**



**> BERGARA**
Errege Seminarioa patronatoaren esku utzi dute gaur, barikua **> 24**



**> ARETXABALETA**
Otalora guztiz berrituko dute; ia 2 milioi eta erdiko aurrekontua du **> 31**



**> ELGETA**
Irailean hasiko dira Uruburuko etxebizitzak eraikitzen **> 37**



**PARKEA** 5.000 $m^2$ izango ditu berdeguneak. ISDESING



**GIZARTE ETXEA** Hiru solairuko eraikina izango da. ISDESING



**GAZTETXEA** Anbulatorioa zegoen lokalean ipini nahi dute. ISDESING

**ANTZUOLA** > SAGASTIKO ZELAIRAKO PROIEKTUA

# Irailean hasi nahi dituzte Sagastin gizarte etxea eraikitzeko lanak

**UDALA** Sagastin gizarte etxea eta parkea bateragarriak direla uste du Udalak

**PLATAFORMA** Gizarte etxeko zerbitzuak beste eraikin batzuetan kokatzea proposatu dute

IRATI AGIRREAZALDEGI> ANTZUOLA

Antzuolako Udalak bi hirigintza proiektu ditu abian: Eguzki auzoko etxebizitzak eta Sagastiko gizarte etxea.

Udalak erabilera eta funtzio askotako eraikina egin nahi du Sagastin: sozializatzeko elkargune izan nahi duen gizarte etxea. Bertan kokatuko dituzte liburutegia, kultur eta gizarte ekimenak egiteko erabilera askotariko aretoa, erretiratuen egoitza, erretiratuendako egokitutako etxebizitzak eta osasun etxea. Horren harira, osasun etxea sagastiko eraikin berrian ipiniko dutenez, oraingo anbulatorioa libre geratuko da eta Udalaren asmoa da lokal hori gaztetxe bihurtzea.

**GIZARTE ETXEAREN ORDEZ**

Sagastiko proiektuak eman du zeresanik. Hainbat herritarrek ez du nahi zelai horretan eraikinik egiterik, eta parkearen aldeko sinadurak jaso dituzte.

Bide batez, Sagastiko gizarte etxearen alternatiba izan litezkeen hainbat aukera planteatu dituzte; betiere argi utzita horiek ez direla bakarrak eta balitekeela besteren batzuk sortzea. Euren ideiak azaltzeko, jaietan hainbat panel ipiniko dituzte jendaurrean. Aurkeztutako asmoak dira, batetik, eskola aldameneko jolastokia altxatu eta azpian liburutegia, anbulatorioa eta erabilera askotariko aretoa egitea; erretiratuendako zerbitzuak, berriz, Olaran etxean eskaintzea. Bigarren ideia da Olaran etxeaz gain, Maristetan egingo dituzten etxeak aprobetxatzea eta hainbat zerbitzu bertan eskaintzea. "Horrek ekarriko luke 20 beharrean etxebizitza gutxiago izatea saltzeko", diote parkearen aldekoek.

Udalak erakutsi nahi du "Sagastin parke txukuna geratuko dela. Sagastik dituen 6.000 metro koadroetatik 1.000 hartuko ditu gizarte etxeak eta 5.000 metro koadro parkerako izango dira. Gainera, Sagastitik 100 metrora beste berdegune bat daukagu, 1.200 metro koadrokoa. Orain, ikusita parkearen inguruan herritarrek kezka azaldu dutela, saiatu behar dugu ahalik eta egokien lantzen parkearen proiektua, baina horren eta eraikina hor ez egiteko eskaeraren artean tarte handia dago", dio alkateak.

Erretiratuei ere aurkeztu zien Udalak Sagastiko proiektua eta haiek uste dute "Sagastiko zelaian proiektatutako zerbitzuak kolektibo osoarenonerako izango direla. Proiektu honekin gure ilusioak forma hartzen ari dira. Leku ezin hobean kokatuko den erretiratu etxe batez gozatzeko aukera izango dugu". Bestalde, eskatu dute erretiratu etxearen eraikuntza epeak betetzea.

Sagastiko proiektuaren epeei dagokienez, hilaren 19an lehiaketako oinarriak kaleratu eta abuztuaren 8rako batu nahi dituzte proposamenak; ondoren, irailaren 4an lanak esleitu eta irailean barrena obrekin hasteko. "Gainera, lanak aurten hasi ezean dirulaguntzak galdu egingo genituzke", esan digu Jose Angel Zabalo alkateak.

**EGUZKI AUZOKO ETXEBIZITZAK**

Hautsak harrotu dituen proiektua Sagastikoa izan bada ere, Eguzki auzoan etxebizitzak egitekoa ere abian da, bere garaian zeresana eman ostean. Azken udalbatzarrean onartu zuten Antzuolako Udal Etxegintzak kapital handitzea egitea, Udalak Eguzki auzoko lursailen ekarpena eginda; bide batez onartu zuten proiektuak aurrera egitea, eta Antzuolako Udal Etxegintzari enkargatu exekutatzeko. Alkateak azaldu digunez, "etxeak saltzen direnean Eguzki auzoko lurrak ez dira herriarenak izango. Lur horien balioa gutxi gorabehera 140 milioi pezetakoa da eta guk etxeei 100 milioi pezeta kargatu dizkiegu; babestutako etxebizitzak izanik, merkeago izateko, 40 milioi horiek gure kargu hartu ditugu".

## Parkearen aldeko plataformak 681 sinadura jaso ditu

Sagastin parkea egitearen aldeko taldeak antzuolarren 681 sinadura jaso ditu eta udaletxean entregatu dituzte. Sinadurekin batera aurkeztutako agirian zera diote: "Antzuolako herriak gizarte eta kultura ekipamenduak behar ditu. Baina Udalak Sagastin gizarte etxea egiten badu, herriaren erdigunean daukagun lursail berde bakarra galduko dugu. Agiria sinatu dugunok uste dugu posible dela ekipamendu egokiak bermatzea Sagastiko eremua parkerako lagata. Sinaduren bidez Udalari proiektua geratzeko eta herritarren partaidetzarekin beste aukera batzuk aztertzeko bideak jar ditzala eskatzen diogu". Alkateak horren aurrean esan du "plataformakoak epez kanpo ibili direla. Planeamenduko denboran eztabaidatu behar zuen gurekin eta orain ez dago atzera bueltarik onartuta dago-eta".



Udaletxean aurkeztu dituzte herritarren sinadurak. I.A.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 15 | Zabola | Zarugalde 42-44 | 943 77 16 30 |
| Domeka, 16 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Astelehena, 17 | Irizar | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| Martitzena, 18 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Eguaztena, 19 | Ruiz | Maala 31 | 943 79 14 09 |
| Eguena, 20 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Egubakoitza, 21 | Irizar | Erguin 11 | 943 79 12 39 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 15 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Domeka, 16 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Astelehena, 17 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Martitzena, 18 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Eguaztena, 19 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Eguena, 20 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Egubakoitza, 21 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 15 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Domeka, 16 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Astelehena, 17 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Martitzena, 18 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguaztena, 19 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Eguena, 20 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Egubakoitza, 21 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 15 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 16 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 17 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 18 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 19 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 20 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 21 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |

### TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA (Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)....943 76 55 76
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala....943 03 53 00
- Antzuola....943 76 62 23
- Aramaio....945 44 53 40
- Aretxabaleta....943 71 19 59
- Bergara....943 03 54 00
- Elgeta....943 03 54 00
- Eskoriatza....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola....943 76 62 46
- Arrasate....943 79 14 39
- Aretxabaleta....943 71 18 63
- Bergara....943 77 91 06
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate....943 79 12 22
- Aramaio....945 44 50 33
- Aretxabaleta....943 77 12 64
- Bergara....943 79 12 22
- Eskoriatza....943 71 40 59
- Oñati....943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate....943 77 11 43
- Bergara....943 76 44 42
- Oñati....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio....945 44 53 35
- Arrasate....943 77 16 77
- Aretxabaleta....943 71 26 28
- Bergara....943 76 56 41
- Elgeta....943 76 82 84
- Eskoriatza....943 71 53 28
- Oñati....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola....943 76 60 65
- Aramaio....945 44 53 74
- Arrasate....943 77 01 05
- Aretxabaleta....943 71 10 27
- Bergara....943 77 91 58
- Eskoriatza....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola....943 76 62 46
- Aramaio....945 44 50 16
- Arrasate....943 79 09 00
- Aretxabaleta....943 71 18 62
- Bergara....943 77 91 00
- Elgeta....943 76 80 22
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |

| Gasteiz | Aramaio | Arrasate |
|---|---|---|
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 15**
Bezperan baino gehiago berotuko du. Gure inguruan sargori izango da. Garbi egongo da zerua, baina ilunterako ekaitzerako arriskua izango da.



**Domeka, 16**
Giro sanoagoa egingo du. Ipar haize leuna sartuko da eta horrek leunduko du bezperako sargoria. Egun benetan atsegina iragarri dute.

### EUSKAL HERRIAN

Gaur, barikua, baliteke iluntzean zenbait puntutan ekaitza izatea nahiz eta euririk ez egin. Osterantzean, zapatuan bero eta domekan giro sanoagoa egingo du. Halakoetan ohi denez, barruko aldean kostaldean baino gehiago berotuko du. Ondorioz, ekaitz arriskua izango da, iluntzean.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Zapatua, 8 — **14 ºC**

**MAXIMOA** Astelehena, 10 — **37 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **1,7 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 5** | 22 ºC | 15 ºC | - l/m² |
| **Eguena, 6** | 21 ºC | 15 ºC | - l/m² |
| **Egubakoitza, 7** | 29 ºC | 14 ºC | - l/m² |
| **Zapatua, 8** | 30 ºC | 14 ºC | - l/m² |
| **Domeka, 9** | 25 ºC | 19 ºC | - l/m² |
| **Astelehena, 10** | 37 ºC | 16 ºC | 0,4 l/m² |
| **Martitzena, 11** | 22 ºC | 20 ºC | 1,3 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA UZTAILEAN

| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| **17** | **25** | **3** | **11** |

## oharrak eta deialdiak

ELGETA
**> Posta elektronikoaren gaineko ikastaroa**
Posta elektronikoa erabiltzen irakatsiko dute hilaren 19an, eguaztena, KZgunean, 10:00-12:00.

ANTZUOLA
**> Hirigintza proiektuen gaineko erakusketa**
Herriko hirigintza proiektu garrantzitsuenen gaineko erakusketa dago udaletxean. Sagastiko gizarte etxearen eta Eguzki auzoko etxebizitzen proiektuak daude.

ARETXABALETA, ESKORIATZA
**> Udaero programan izena eman daiteke**
Aretxabaletako eta Eskoriatzako gazteria sailek uztailaren 25era arte luzatu dute Udaero udako aisialdi programan izena emateko epea. Datorren astebukaeran, gaztelekuetan eman daiteke izena.

DEBAGOIENA
**> Hiznet ikastaroa antolatu du Asmoz-ek**
Hiznet soziolinguistikako ikastaroa antolatu du Asmoz fundazioak. Euskararen egoera hobeto ulertzeko eta normalizaziorako estrategiak finkatzeko oinarriak ematen ditu. Argibideak: 943 32 63 98.

BERGARA
**> Irudi digitalak tratatzen irakatsiko dute**
Irudi digitalak tratatzeko ikastaroa emango dute hilaren 18an eta 19an, 09:00-11:00, KZgunean.

ANTZUOLA
**> Hezkuntza musikala emango dute**
Hezkuntza musikal, ahots teknika eta koraleko eskolak emango dituzte datorren ikasturtean. Izena ematera dei egiten dute, lehenbailehen taldea osatzeko.

ARRASATE
**> Bi Internet ikastaro emango dituzte**
Honako ikastaroak emango dituzte hilaren 17an: egunkaria irakurtzekoa (09:00) eta postal bat bidaltzekoa (10:00).

ELGETA
**> Ordutegi berezia izango du autobusak**
Hauxe da Bergararako autobusaren uztaileko ordutegia: Elgeta-Bergara: 07:40, 11:45 eta 13:30; Bergara-Elgeta: 11:30, 13:15.

DEBAGOIENA
**> III. Ideia eta Proiektu Berritzaileen Sariketa**
Landa eremurako ideia eta proiektu berritzaileen sariketa antolatu du Deba Garaiak, Debagoieneko Landa Garapenerako Elkarteak. 1.000 eta 500 euroko sari bana eta proiektua lantzeko 3.000 euroko beka emango dituzte. Txostenak Deba Garaiaren elkartera eraman behar dira. Argibideak: 943 76 25 47.

BERGARA
**> Gazta-dastatze ikastaroa antolatu dute**
Gazta-dastatze ikastaroa irailaren 7an hasiko da, eta izenemate epea irailaren 5era arte izango da zabalik. Argibideak, kultura etxean (943 77 91 59 da telefonoa).

ARRASATE
**> Odol-ateratzeak egiteko aukera dago**
Odola emateko aukera dago hilaren 18an eta 19an osasun etxean, 16:30etik 20:00etara.

OÑATI
**> Bi Internet ikastaro emango dituzte**
Honako ikastaroak emango dituzte KZgunean: *ViaMichelin-ekin bidaiatu* (hilak 14, 11:00etan) eta *Etxetik eros ezazu* (hilak 18, 16:30ean).

ARETXABALETA
**> Odol-ateratzeak egingo dituzte**
Odola emateko aukera izango da astelehenean, hilaren 17an, osasun etxean, 16:15-20:00. Arabako Odol Emaileek antolatzen dute.

ESKORIATZA
**> Interneteko liburutegien gaineko ikastaroa**
*Aurkitu zure liburua* izeneko Internet ikastaroa emango dute gaur, egubakoitza, KZgunean, 10:30-11:30 ordutegian.

ARETXABALETA
**> Gazte Astea antolatu du Gazte Ekimenak**
Honako ekintzak antolatu ditu Atxabaltako Gazte Ekimenak Gazte Astean: AHTren inguruko hitzaldia (gaur, egubakoitza, plazan, 19:00), mendi irteera autobidearen bidetik (bihar, zapatua, herriko plazatik, 10:00etan); eta herriko taldeen kontzertuak kalean (bihar, zapatua, arratsaldean).

DEBAGOIENA
**> Baserri inguruan erabilitako plastikoak jasoko ditu Deba Garaia elkarteak martitzenean**
Hilaren 18an jasoko ditu Deba Garaia elkarteak baserrian erabilitako plastikoak. Siloa estaltzeko erabiltzen den plastikoa, belar boletan erabiltzen dena, eta negutegietarako eta ortuetarako plastikoa jasoko dute. Ohiko lekuetatik pasako dira. Argibide gehiagorako, deitu 943 76 25 47 telefonora.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

## kale inkesta

# Behar da gaztetxea? Tren geltoki zaharra kokapen egokia da?



**Joseba Rielo**
Langilea
Eskoriatza

Bai, derrigorrezkoa da gazteentzat. Tren geltokia ez dut ezagutzen zela dagoen, baina ondo jarriz gero leku aproposa dela iruditzen zait. Herritik ez dago urrun, baina bai aparte zaratentzat.



**Maria Jose De Sousa**
Langilea
Eskoriatza

Bai, gazteek zerbait izan behar dute, betiere errespetuz jokatuz gero. Geltokia ondo iruditzen zait, herritik aparte dago eta gazteek zarata atera ahal izango dute inori kalte egin barik.



**Estefania Izagirre**
Langilea
Eskoriatza

Gazteentzat irtenbide bat da, eta eurendako txoko bat izateari ekintzak antolatu eta egiteko ondo deritzot. Tren geltokia urruti samar ikusten dut herritik, baina besterik ez badago…



**Fernando Etxebarria**
Langilea
Eskoriatza

Gazteentzat toki bat da eta ondo deritzot egoteari herrian. Geltokiaren aukera ez dakit ba... Zaratarik ez da entzungo, baina automobil asko egoten da aparkatuta inguru horretan.



**Sonia Ignacio**
Langilea
Eskoriatza

Bai, Eskoriatzan gero eta gazte gehiago dago eta beharrezkoa ikusten dut. Geltokia urruti samar geratzen da, baina bueno… Lekua handia izango dela iruditzen zait, nahiz eta ez ezagutu.

## txaloak eta txistuak



LEIRE KORTABARRIA

# Aparkalekua margotu dute

Oñatiko Olakua auzoan pozik daude, orain arte aparkaleku moduan erabiltzen zuten gunea aparkaleku itxurarekin margotu dietelako. Kontua da orain arte inolako seinaleztapenik ez zegoenez desordena handia sortzen zela ibilgailuekin.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

## asteko datua

# 89

*Goiena.net*-ek eskaintzen duen blog zerbitzuari esker 89 blog sortu dira. 48 dira blog komertzialak eta 41 blog pertsonalak. Komertzialak daude zuzenduta ibarreko negozioei. Eta helburua da sarean euskara indartzea.

## usteak uste

**Oihana Elortza**

# Plisti, plasta eta gero plust?

Badut gogoa Bergarako igerileku berriak probatzeko. Ur putzuko zoruak nolako ukimena duen sentitzeko gogoa dut, batez ere. Ez dute baldosarik izango eta hori hankapean nola sentitzen den probatu gura dut.

Instalazio berriak izango dira eta itxura ona dute, gainera. Prezioak noraino igoko dituzten kezkatzen nau eta, batez ere, txartel edo behatz bera izango ote dudan ibarreko beste instalazioak erabiltzeko ere, edo Bergararen eta beste herrien arteko aukera egin behar ote dudan. Obrak ordaindu behar direla jakinekoa da eta horiek autofinantzatu nahi izatea ere normala da, baina dena egin, probatu eta erosi gura dugun gizarte honetan kirola egiteagatik zenbat ordaintzeko gertu gauden zalantzan jartzen dut. Are gehiago, orain arteko putzu hori egon eta den moduan egonda eta eskualdeko beste instalazioak ezagutu eta bidea ikasi dugunean.

Gero zerbitzu guztiak sartuko ei dira tarifa bakarrean eta tarifa hori zehazten hasiko ei dira azaroan edo abenduan. Ikusteko dago zenbat zale erakarriko dituen.

Orain arteko putzua erabiltzea gehiago baloratu izan balute, sikiera.

## 5 galdera...

# Daniel Berridi

Ospitaleko dermatologoa
Arrasate

**1. Zenbat kontsulta pasa dituzu aurten eguzki erredurengatik?**

Oro har, eguzkiak eragindako erredurengatik jendea ez da etortzen kontsulta espezializatuetara. Normalean, etxean konpontzen dira, pediatrekin edo familia medikuekin konpontzen dira. Dena den, beste zerbaitegatik datorren jendeak erreduraren bat badu, errietan egiten diogu, lagunkoi.

**2. Urteotan, hobetu edo okertu egin da, oro har, gure azalaren egoera?**

Hobetu egin da. Arazoarekin ondo jabetu gara. Eta orokorrean, azalaren gaineko kontsulta eskaera handitu egin da asko. Horrek esan gura du jendeak gehiago zaintzen duela azalaren tratamendua; jendeak badakielako eguzkiak arazoak eragiten dituela, eta kezka handiagoa dauka.

**3. Gu bizi garen gune honetan zenbaterainoko arriskua dugu?**

Hemen, urtean ez da eguzki ordu askorik egoten. Ondorioz, beste gune batzuetan baino arrisku txikiagoa dugu. Dena den, gure gunean ere aire librean lan egiten duten pertsonek asko zaindu behar dute euren burua.

**4. Edozelan ere, eguzkiak bitaminak ditu; beraz, beltzaran egotea osasuntsua da edo moda da?**

Eguzkiak ematen dituen bitaminak eskura daitezke paseo soil bat ematen, jantzi eta guzti. Ez da beharrezkoa hondartzara joatea ezta eguzkia hartzea ere. Beltzaran egotea, duda barik, estetika kontua da.

**5. Oporrak datoz. Gogora iezaguzu, mesedez, oinarrizko aholkuak.**

Eguzkitik babestu behar dugu, artifizialki (jantziekin, eguzkitako betaurrekoekin…) edo izpi ultramoreak pasatzen uzten ez duten kremekin. Krema horiek izan behar dute norberaren azalerako egokiak, egunean behin baino gehiagotan eman behar dira eta ez da pentsatu behar krema emateagatik luzaroan egon gaitezkeela eguzkipean.



**ZERBITZUAK**> LUR AZPIKO APARKALEKUA

# Joan den egubakoitza ezkero zabalik dago Biteri, Arrasateko parking publiko berria

Hiru solairu ditu: bi auzokoendako eta beste bat eguneroko erabiltzaileendako

Joan den egubakoitzean zabaldu zuten; astelehenera arte doan da parkinga




MAALA Biteri aparkalekura Maalatik sartzen da; sarreran semaforoa ipiniko dute aparkalekuaren zirkulazioa bideratzeko. U.M.

DATUA

**450**

**APARKALEKU**

Lur azpiko hiru solairutan banatuta, 450 aparkaleku ditu Biterik. Lehenengo solairua da egunero erabiltzeko, txandaka, edozein hiritan moduan. Horrek ditu 137 aparkaleku aurreneko solairuan eta beste 13 bigarrenean.

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Orain arteko parking publikoa, Laubide, itxi egin dute eta haren lekuan Biteri zabaldu dute, herriaren erdian, Garibai etorbidean.

Lur azpiko 450 aparkaleku ditu Biterik, hiru solairutan banatuta. Lehenengo solairua da publikoa edo txandaka erabiltzekoa. 137 aparkaleku ditu, "baina proiektuaren arabera, 150 beharko lituzke. Hori horrela, erabiliko ditugu bigarren solairuko beste 13 aparkaleku". Hala kontatu digu Janire Nietok, parkinga eraiki duen eta haren kudeaketaz arduratuko den Bikani enpresako kideak.

**EGUNEROKOEN PREZIOAK**

Biterin ibilgailua laga daiteke zenbait ordutarako, gau osorako edo baita ere eskura daitezke aste osorako, hil osorako edo urte osorako bonoak.

Ordu erdirako lagaz gero, 0,57 euro ordaindu behar da eta hortik aurrera 0,99 euro orduko: "Baina aurkeztu diogu Udalari minutuko tarifetan oinarritutako txosten bat eta uste dugu ahalik eta lasterren onartuko dutela; beraz, hura onartu bezain laster aldatu egingo dira prezioak (irailean, asko jota). Eibarko parkingerako aurkeztu genituen tarifa berak aurkeztu ditugu".

**BONO MOTAK**

Bonoei dagokienez, berriz, daude urterokoak (egunerako edo gauerako), hilerokoak edo asterokoak. Prezioak honakoak dira: urte guztikoa, egunez 670,14; gauez, 512,45; asteko bonoa 35,47 eta hilekoa 86, 70.

**%15EKO BEHERAPENA**

Eta egunero erabili barik aparkalekua 50 urterako hartu gura duenak ere oraindik badu aukera: "Hirugarren solairua bete barik dago; bigarrenean leku gutxi dugu eta Laubiden beste 170 leku ditugu. Gainera, Udalarekin hitzartu dugu irailaren 15era arte %15eko beherapena egiten segitzea halako aparkaleku bat eskuratu nahi duenarendako. 15.000 euro balio du batek, BEZa barne; eta beherapenarekin geratuko da 13.500 eurotan. Badakigu jendeak oraindik ez duela oso begi onez ikusten sistema hori, baina nire ustez ikusi behar dugu epe luzerako alokairu oso merke bat balitz moduan".

**ITXURA ARGITSUA, ETA ZABALA**

Aparkalekura Maalatik sartzen da autoarekin, eta Garibai etorbidera du irteera. Oinezkoendako beste bi irteera ditu: bata Lasagabaster ingurura eta bestea Maalara (azken hori igogailuarekin).

Bikani enpresak eraiki du Oa arkitektoen laguntzarekin. Itxura asko zaindu dutela nabarmendu digu Nietok: "Partzela guztiak itxi bakoak dira eta tamaina aldetik dira aurreikusitakoa baino zabaltxoagoak, beraz, erabiltzeko errazagoak. Eta zaindu dugu zirkulazioa ahalik eta errazena izaten". Gaineratu digu aparkaleku argitsua egiten ahalegindu direla: "Lurra margotu dugu, zutabeak Arrasateko koloreekin margotu ditugu eta argi mordoa dauka".

Segurtasun aldetik, berriz, 24 orduko zaintza zerbitzua dute: "Zinpeko zaindaria dago 24 orduan, egunero, eta segurtasun kamerak ere baditugu".

Oraingoz, auzotarrak oso gustura daudela ere esan digu, "baina pattal dabiltza egunerokoak. Jendeak oraindik ez du aparkalekua ezagutzen. Horregatik ez dugu kobratuko astelehenera arte".

Laubide parkingari dagokionez, itxita dago eta hala utziko dute. Bikaniren asmoa da 50 urterako kontzesioan saltzea aparkalekuak, baina oraingoz bi eskaera bakarrik dituzte. Bitartean, berritze obrak egiten dabiltza.

HASIERAKO ERABILTZAILEEK ONDO IKUSTEN DUTE



**Susana Mata**

Ondo dagoela iruditzen zait. Sarrera etxetik gertu daukat. Eta barruko aldea ere ondo dago; zutabeen artean distantzia dezente dago, eta zailagoa da autoarekin kolpea ematea.



**Juan A. Quevedo**

Oso ondo dagoela uste dut. Itxura polita dauka aparkalekuak; gainera, zabala da, eta oso argitsua. Eta inportantea da, baita ere, oso kokaleku egokian dagoela.



**Izaskun Zubizarreta**

Lehenengo aldiz nator gaur eta sarrera nahiko xelebrea dauka, baina bestela nahiko ondo dago. Hori bai, sarrerako txartelean ipintzen du *Feliz aparcamiento*, espainolez bakarrik.



**Manuel Tapia**

Ondo ikusten dut nik. Atentzioa eman dit batez ere herriaren erdi-erdian dagoela, eta alde zaharrera datorren jendearendako, kokaleku hori oso ondo dagoela uste dut.

Garagardo ona, giro hobea
TXIRRITA
Taberna
Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

OSORIK
PUB
Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

**GIZARTE ZERBITZUAK** > DIRULAGUNTZAK

# Gizarte Saileko 2006ko laguntzak erabaki dituzte

Gizarte gaiak lantzen dituztenei, gobernuz kanpoko erakundeei eta erretiratuen elkarteei eman dizkie laguntzak Udalak

**UBANE MADERA**> ARRASATE

Zenbateko handia onartu du oraingo astean Gizarte Sustapeneko batzordeak dirulaguntzetarako: 160.600 euro. Urte osorako dirulaguntzak dira horiek eta orain onartu arren, zatika emango ditu Udalak. .

**ERRETIRATUEN ELKARTEENDAKO**

Diru horren banaketari dagokionez, honakoa da: 60.000 euro Arrasateko erretiratuen lau elkarteendako; horien artetik, Abaroak eramango du kopururik handiena: 27.000 euro. Musakolako erretiratuen elkarteak, berriz, eskuratuko ditu 11.878 euro; Toki Argik 11.199 euro eta Uribarrik 9.905 euro.

**GOBERNUZ KANPOKO TALDEAK**

Beste 57.700 euro bideratuko ditu Udalak gobernuz kanpoko 11 erakunderendako. Horien artean, kopururik handiena eramango du Elkartasunean Hezi programak: 15.000 euro. Eta bestelakoen artean, Harremanek 6.500 euro eskuratuko ditu eta AMSOGRAk eta Felix Iñurrategi Fundazioak beste 6.000 euro, eskuratu dituzte.

**EUSKAL FONDOA ETA BESTE**

Horrez gainera, Euskal Fondorako 32.000 euro emango ditu Udalak; hain justu ere, El Salvadorko komunitate batera ura eramateko.

Bukatzeko, gizarte gaiak lantzen dituzten 18 elkarteren artean banatuko ditu 11.100 euro. Kasu honetan, elkarte guztiek 400 eta 850 euroren arteko laguntzak eskuratuko dituzte; esaterako, ATECE, Mugarik Gabeko Injineritza, AMS, Acabe eta Harremanek 850 euro eta Izan Fundazioak, Gautenak, Adahigik, Jeiki Fundazioak, Agifesek eta Atzegik, berriz, 700 euro.

### Laguntzarik handienak

| | |
|---|---|
| Erretiratuendako | 60.000 € |
| Abaroa | 27.017 € |
| Musakola | 11.878 € |
| GKE | 57.500 € |
| Elkartasunean H. | 15.000 € |
| Euskal Fondoa | 32.000 € |
| Gizarte gaiak | 11.100 € |



MESEDEETAKO ANDRA MARI

## Erretiratu egin dela-eta, lankideen agurra

Mesedeetako Andra Mari ikastetxeko irakasle Arantza Iregiri erretiratzeko ordua iritsi zaiola-eta, agurra egin zioten lankide eta lagunek. Ondo landutako agurra egin zioten gainera, lankideen esanetan, "merezitakoa". Hala, Bizkaiko kostaldera txangoa egin zuten, egun-pasa eta Bakioko Zintziri Errota Jatetxean bazkari oparoa egin zuten gero. *Bixi bizi!* Esanez agurtu gura zaizkio lankideak Arantza Iregiri.

**OBRAK** > OLANDIXOKO TUNELA

# Datorren urtean hasiko dira eraikitzen tunela

LKSri adjudikatu dio Diputazioak Olandixoko tunelaren proiektua idazteko lanak; zortzi hilabete ditu horretarako

**U.M.**> ARRASATE

Oraingo astean jakinarazi dio Diputazioak Udalari LKS enpresari esleitu diola Olandixoko tunelaren proiektua, 574.200 euroko aurrekontuarekin. Jakinarazitakoaren arabera, ekainaren 8an hartu zuen erabaki hori Bide Azpiegituretarako Foru Diputatuak, eta zortzi hilabeteko epea eman dio LKSri proiektua idazteko. Proiektua idatzi eta gero, ohiko prozedura jarraitu eta jendaurrean ipiniko dute proiektua, alegazioak batzeko.

Beraz, horrek guztiak esan gura du aurten ez direla hasiko Olandixoko tunela eraikitzen.

> GALDUTAKO OBJEKTUAK

### Udaltzaingoak urrezko bitxi bi ditu galdutako objektuen artean aspalditik, inork eskatu barik

Pare bat hilabete inguru dela, urrezko bitxi bi eraman zituzten Udaltzaingora eta oraindik inork eskatu ez dituela ikusita, horren berri emateko eskatu dio Udaltzaingoak GOIENKARIAri. Kontua da bitxietako bat urrezko kate bat dela, inizialak dituen txapa batekin eta han ipintzen dituen datuen arabera, pertsona nagusi batena izango da. Maiatzaren 10ean eraman zuten hura Udaltzaingora, baina eramaileak esandakoaren arabera, apirilean aurkitu zuten. Beste bitxia da urrezko eskumuturreko bat. Kasu horretan, maiatzaren 21ean eraman zuten hara. Beraz, bietako edozein galdu duenak oraindik badu berreskuratzeko aukera.

**EZKER BATUA** > FROGA BERRIAK

# Txosten juridikoa aurkeztu du EBk orain

Ezker Batuaren esanetan, ustez Udalak Gelmarekiko faborezko tratua izan duela erakusten duen txostena aurkeztu dute

**U.M.** > ARRASATE

Ezker Batuak martitzenean fiskaltzari aurkeztu zion txosten juridiko bat, Udaletik kanpoko aholkularitza juridikoak egindakoa. Ander Rodriguezen esanetan, "txosten horrek erakusten du Zabalgunea/Gelma operazioak ez zuela interes publikorik eta bakarrik interes pribatuak babesten zituela".

**BUKAERARAINO**

Bestalde, gaineratu du espero duela eurek aurkeztutako salaketaren ostean zabaldutako aurretiko dilijentziek aurrera egingo dutela.









**GAZTEAK** > FANTZINE BERRIA

# Gaztetxeko 'Trikili-Trakala' fantzineak zeresan handia eman du gazteen artean

AGAKOko lagunek hilero kaleratzen dute, gazteen artean eztabaida eta hausnarketa sortzeko; doan banatzen dute eskura eta tabernetan

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

AGAKOk, gazte batzarrak, beste ekimen bat abiarazi zuen apirilean. Hilero *Trikili-Trakala* fantzinea argitaratzen dute. Zenbaki bakoitzeko ehun bat ale kaleratzen dituzte eta eskura banatzen dizkiete herriko gazteei. Horrez gain, herriko zenbait tabernatan ere egoten dira eskuragarri. Fantzineak doan ematen dituzte.

*Trikili-Trakala* egiten duten lagunek azaldu digute fantzinearen helburua dela "gazteen artean eztabaida sortzea". Hain zuzen ere, AGAKOko lagunek uste dute "herriko gazteek ez dutela euren artean berba ezta eztabaidarik egiten". Gazteen arteko komunikazioa bultzatu eta kontra-informazioa landu" gura dute.




**AZAL DEIGARRIAK** Egileen asmoa da fantzinea irakurtzea eta gazteen artean hausnarketa bultzatzea. IKER BARANDIARAN

"Urrutiko gaiak izan barik, egunerokotasuneko gauzak zalantzan jartzen saiatzen gara: drogen erabilera dela, autoen gaineko kultua dela, tabernetako bingoak, telebista, punka estetika bihurtu izana...".

**MONDRAGOERA BULTZATU**

*Trikili-trakala* esamoldeak zera esan gura du: kostata ibiltzea. Izenburuaz gain, fantzinean mondragoeraz idatzitako hainbat testu ageri dira. "Arrasateko euskara galtzen dabil. Are gehiago, idatzizkoa. Horregatik dakigun apurra gordetzeko ahalegina egiten dugu".

**POLEMIKA SORTU DUTE**

*Trikili-Trakala* fantzinearen idatzietako batzuek zelanbaiteko polemika sortu dute gazteen artean. Batez ere, punkaren eta kokainaren gaineko hausnarketek.

"Kaleratu genuen bigarren fantzinean (0.a izan zen lehena) Arrasateko gazte askok buruan kokaina besterik ez dutela idatzi genuen. Arrazoi horregatik hainbat lagun haserretu egin dira. Horrez gain, zenbaki horretan punkaren gaineko hausnarketa ere egin zuten. "Gure ustetan, gaur egun herrian punka aldarrikatzen duten gazteek ez dakite punka benetan zer den. Musika estilo, estetika zehatz bat eta gauzak apurtzea beharrean, beste gauza asko dira punka. Horrek ere gazte batzuk mindu ditu".

AGAKOkoek gazteei gogorarazten diete herrian alternatibak daudela, eta euren esku dagoela beste gauza batzuk egitea.

**JAIAK** > SANTA MARINA AUZOKO JAIAK

# Gaurtik, egubakoitza, domekara bitartean, Santa Marinako jaiak

Javier Segarra umoristaren eta Potxin eta Patxin pailazoen ikuskizunak eta herri kirolak egongo dira, besteak beste

**I.B.** > ARRASATE

Asteburuan *Distrito 33* delako bizilagunek Santa Marina auzoko jaiak ospatuko dituzte.

Gaur, egubakoitza, Ikurrina jasoko dute jaiei hasiera emateko. Hori 19:00etan izango da. Horren ostean, Agerre plazan luntxa egingo dute, eta buruhandiak irtengo dira umeekin jolastera. Eguna bukatzeko, Javier Segarra umorista eta musikariak ikuskizuna egingo du plaza berean.



**MUSIKA** Jaiak girotzeko, musika ere izango da Santa Marinan. GOIENKARIA

**GORRITI ETA BERE ANIMALIAK**

Bihar, zapatua, denetatik egongo da goiz-eguerdian: Gorriti eta bere animaliak Mentu plazan, auzoko erretiratuen omenezko meza eta bazkaria Mesedeetako Amaren elizan eta mojen eraikinean eta txirrindularien lasterketa, besteak beste.

Zapatu, arratsaldean, berriz, Potxin eta Patxin pailazoek ikuskizuna egingo dute, eta Shangai orkestrak dantzaldia egingo du afalostean.

Domekan herri kirolak egingo dituzte. Hain zuzen ere, hainbat emakumezkok harriak jasoko dituzte eta aizkolariak ere arituko dira. Hala ere, 00:00ak arte beste hainbat ekitaldi egingo dituzte auzoan.

**MUSIKA** > AED ETA KULTUR ERROTAREN ESKUTIK

# Folkari buelta erdi emango dio Igelaren Trikimailua taldeak

Oinarrian folka egiten duen arren, boskote horrek funka, ska, punk-rocka eta beste doinu batzuk ere batzen ditu

**I.B.**> ARRASATE

Uztailero moduan, AEDk eta Kultur Errotak zuzeneko musika eramango dute Ferrerias kaleko plazatxora. Gaur, egubakoitza, izango da emanaldi hori, eta taula gainera Igelaren Trikimailua taldea igoko da, hain zuzen ere.

Bitxia da Ferreriasko plazatxo hori, eta are bitxiagoa da plaza horri urtean egiten zaion erabilera urria. Hain zuzen ere, inork ez du han ezer egiten, salbuespen bakarrarekin. Aurreko urteotan, AEDk eta Kultur Errotak elkarlanean egin izan dituzte emankizunak, eta aurten ere hala egingo dute; egubakoitzean, hain justu.

Taldea orain dela hiru urte sortu zuten, baina bidean hainbat aldaketa egin dituzte. Gaur egun Igelaren Trikimailua boskotea da, eta honako instrumentuak erabiltzen dituzte: eskusoinua, alboka, baxua, mandolina, panderoa, biolina eta bateria, hain zuzen ere. Oinarrian folka egiten dute, baina gaur egun beste musika estilo batzuk ere batzen dizkiote folkari, hala nola: punk-rocka, funka, ska, Irlandako doinuak, eta abar.

**FOLKA OSO MODU IREKIAN**

Maketa pare bat kaleratu dituzte: *Luzeletrikopalu* eta *Kroak* izenekoak 2004an eta 2006an, hurrenez hurren. Egunotan, berriz, *Folkpunska* izeneko diskoa prestatzen dabiltza.

Hiru urteotan ehun kontzertutik gora egin dituzte, batez ere Euskal Herrian, baina baita Espainiako lurralde batzuetan ere. Eskarmentu handia izanagatik, ikusleak dantzarazteko helburua dute.





• AURREZ PRESTATUTAKO JAKIAK EGUNERO ETA ENKARGUZ

- HASIERAKOAK
• Jakobitoak
• Urdaiazpiko kroketak
• Bakailao kroketak
• Oilasko kroketak
• Mingaina bexamelarekin
• Muskuiluak
• Entsaladilla errusiarra
• Gula entsalada
• Pasta entsalada
• Antxoak
• Txanpiñoiak saltsan
• Berdura menestra
• Paella
• Pasta

- ARRAINAK
• Bakailaoa ajoarriero erara
• Bakailaoa pil-pilean
• Txipiroiak saltsa beltzean
• Piperrak bakailaoz beteta eta piperrekin
• Legatza saltsan
• Atun hegaluzea tomatearekin

- OKELAK
• Okela gisatua perretxikoekin
• Albondigak saltsan
• Mingaina saltsan
• Mingaina tomatearekin
• Okelazko lasagna
• Erredondoa saltsan
• Oilasko errea
• Tripakiak
• Txerri-muturrak tomatearekin
• Piperrak okelaz beteta
• Piperrak idi-buztanez eta onddoz beteta

Zabaldu berria!

A

AZPILIKUETA

harategia • urdaitegia
janari prestatua

Bañez doktorea 10
ARRASATE
Tel.: 943 79 28 21






ROUTER COMUNICACIONES, S.L

Errebal, 15
Eibar
943 700 369

Maalako Errebala, 8
Arrasate
943 712 781

Euskaltel -en Banatzaile Ofiziala



GAZTETXOAK Iturripeko saioetan saskibaloiaren hainbat kontzeptu landuko dituzte jokalari gaztetxoek. GOIENKARIA

**SASKIBALOIA** > INFANTIL ETA KADETE MAILAK

# Gaztetxoei zuzendutako teknifikazio saioak

Infantil eta kadete mailetako mutilei zuzendutako saskibaloi teknifikazio saioak Iturripen, Txus Brizuelaren zuzendaritzapean

**E.M.** > ARRASATE

Debagoieneko infantil eta kadete mailetako mutilei zuzendutako saskibaloi teknifikazio saioak antolatu ditu Ointxe! saskibaloi elkarteak, datorren asterako.

Teknifikazio saio hauen zuzendaria, goi mailako entrenatzaile eta Arrasaten oso ezaguna den Txus Brizuela izango da. Alboan elkarteko entrenatzaileak izango ditu laguntzaile. Brizuelaren eskutik, Gipuzkoako lehen saskibaloi taldea izatera iritsi zen Arrasate, 1990eko hamarkadaren hasieran, EBA mailara igo zenean. Baskonia taldeko jokalari ohia Euskadiko Federazioan ere izan da lanean hainbat urtez.

Teknifikazio saio hauetan garrantzi berezia emango zaio jaurtiketa, botea, irteera-geldiketa mugimenduei eta jokoaren kontzeptuei.

Saioak egunero izango dira Iturripen, uztailaren 17tik 21era, 18:30etik 21:00etara. Esan bezala, 1991 eta 1994 bitartean jaiotako mutilei zuzenduta dago. Izenemateak 20 euro balio du eta 30-40 jokalari biltzea da helburua. Datozen urteetan ere esperientzia errepikatzea da asmoa.

**LAGUN ARTEKO AFARIA 21EAN**

Bestalde, eta Txus Brizuela etorriko dela aprobetxatuz, Arrasateko saskibaloiarekin zerikusia izan duten pertsona guztiei gonbitea luzatu zaie datorren egubakoitzean, uztailaren 21ean, Ziorla elkartean ospatuko den afarira etortzeko. Gonbitea jaso ez dutenek, *ointxe@ointxe.com* helbidera idatzi edo 651 70 80 12 (Pedro Basurko) telefonora deitu dezakete. Elkartearen proiektuen berri jasotzeko eta lagunartean aspaldiko kontuak gogoratzeko aukera izango da.

**DENBORALDI BERRIA**

Mugarri Alkesa taldea abuztuaren 20an hasiko da denboraldi berria gertatzen. Lehen mailan lehiatuko den taldeaz gain, elkarteak senior mailako beste talde bat izango du Gipuzkoako ligan. Era berean, junior mailakoa eta kadete mailako beste bi osatuko ditu. Infantil mailan hiru talde aurreikusi dituzte.

Era berean, proiektu berria dute esku artean datorren denboraldirako: igande goizetako saskibaloi eskola, alebin eta benjamin mailetako neska-mutilei zuzenduta, eskola kiroleko osagarri bezala.

**FUTBOLA** > MONDRAREN BATZAR OROKORRA

# Mondrak talde bat sortuko du erregional mailan

Hori izango da zuzendaritzaren erronketako bat; ekonomikoki ahalegina egitea eskatzen du horrek

**X.U** > ARRASATE

Mondrako zuzendaritza atzo arratsaldean zen batzar orokorra egitekoa. GOIENKARIA, baina, batzar hori baino lehenago izan zen taldeko zuzendaritzakoekin: "Ekonomikoki defizit txiki bat izan dugu, 1.200 eurotakoa. Berriak gara honetan, eta hainbat gauzatan igarri egin dugu hori. Adibidez, futbol zelaiko publizitatearen kontua ez dugu behar beste landu, eta hori egiten dugunean jasoko dugun diru kopuruarekin defizita gainditzea espero dugu, hori da asmoa".

**BALORAZIO POSITIBOA**

Zuzendaritzak joan den urtearen balorazio positiboa egin du. Preferenteko taldeak sailkapenaren erdian amaitu du, baina datorren urtean aurrerago egotea da asmoa: "Lehenengo bost taldeen artean". Horrekin batera, baina, aipatzekoa da emakumeen taldeak egin duen denboraldia: "Azken unera arte egon dira mailaz igotzeko lanean, lan oso ona egin dute, eta badakigu aurten ere helburu horrekin hasiko direla".

Talde nagusian aldaketa gutxi izango dira. Gordobilen laguntzaile izan den Andoni Azkargortak Antzuolan izango du erronka berria, eta Muruak Durangon jokatuko du.

Berritasun handiena, baina, erregional mailako taldea sortzea gura duela da. Gazte mailatik igoko diren jokalariek osatuko lukete taldea, eta baita futbola utzi berri duten jokalariek ere.

**FUTBOLA** > REALA

# Gonzalezek Realarekin egingo du aurre-denboraldia

Jauregirekin eta Brechetekin zalantzak daude eta Bakerok arrasatearra deitu du Zubietara

**E.M.** > ARRASATE

Mikel Gonzalezek Realarekin egingo du aurre denboraldia. Hasiera baten, iaz Sansen aritutako defentsa Las Palmas taldeari (2.A mailara igotzeko *play-off*-etan Reala kanporatu zuen taldera, hain justu) utzi behar zioten, baina Jaureguiren lesioa dela eta, Jose Mari Bakerok Gonzalez lehen taldean geratzeko agindu eman du. Jauregirekiko zalantzez gain, ikusteko dago Jeremie Brechetek Realean jarraituko duen edo ez. Realeko jokalariak astelehenean hasi ziren denboraldi berriko entrenamenduekin. Bravo, Juanito, Gerardo, Felicio eta Rivas dira aurpegi berriak.



Mikel Gonzalez.

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua
Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70
Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak

bote prontuen

**Hibai Garai** > Nothing Without The Shop-eko dendarixe

# "Kaleko janzkerien hutsunie bete gure dou"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

**Nothing Withouth mugimenduek beste pauso bat emun dau oinguen, dendie zabaldute. 1998xen lagun talde batek izen hori euken fanzinie argitarau euen. Gero etorri zien izen hori eukien arropak, lagun taldiek antolatutako skate txapelketak, erakustaldixek, kontzertuek... Otalora kalien zabaldu daue Hibai Garaik eta Gorka Zubillagak dendie.**



**Zer moduz lelengo astiek?**

Ondo, pentsau baiño mugimendu haundixaue egon da dendan. Gaiñera, zabaldu aurretik gauza mordue egitten ibilli gitzen, eta bazan zabalketako ordue. Oin, poliki-poliki arropa gehixau ekarten gabitz, baitte neskendako be.

**Ze estilo emun gure izen dutzezue dendiei?**

Hasieran, Nothing Without-ek hardcore musikiekin eta skate mugimenduekin euken harremana. Gero, beste kirol batzuetara (snowa) eta musika estilo batzuetara zabaldu gitzen, eta dendiei be estilo hori emun gure izen dutzou. Mondraguen *urban* edo kaleko janzkeran dauen hutsunie bete gure dou. Neurri baten, Dotakon dendiek itxi euen hutsunie bete gure dou.

**Horrenbestez, estilo askotako arropak dauketzue.**

Bai, kaleko janzkeran bai. Neuri arropa nasaixek ibilttie gustetan jat, baiñe dendara danetik ekarri dou, nasaixek, estuauek... Neuk ez dot gure jente dana neure moduen janztie, eta seguro jente danak ez dauela neure moduen jantzi gure.

**Arropa marka batzuekin lanien hastie gatxa izengo da.**

Batzuekin bai, asko saltzie eskaketan dauelako. Beste marka batzuekin ondo gabitz lanien. Datorren astien Zaragozara goiez arropa gehixauren bille.

**Oin dala gutxi egin dozue Urban Festa Mondraguen; zer moduz juen zan eguna?**

Azkenien oso ondo, Zaldibar jendez beteta egon zalako, baiñe neuk zerure begire pasau neuen egune, eurixe botako euen bildurrez.

hau be badaukogu

## Toki Argiko erretiratu taldeari eta esklerosiaren alde busti zirenei, eskerrak

**Mezu hori helarazteko eskatu digute esklerosi anizkoitzaren kaltetuen alde lanean dabiltzanek. Beste urte batez, joan den domekan egin zuten *Busti zaitez* kanpaina. Eta, *Busti zaitez* kanpaina. Eta, Toki Argi elkartekoak laguntzaile lanetan ibili zirelako eskerrak eman gura dizkiete antolatzaileek. Eguraldi eskasa egin zuenez jende gutxi ibili zen kiroldegian, baina behera egin barik, Musakolako tabernetan ibili ziren dirulaguntza eske, eta Seber Altuberaino ere joan ziren materiala saltzera. Ekimen nagusiak amaitu badituzte ere, poltsikoko telefonoarekin 4004 zenbakira mezua bidalita ere badago laguntzerik. Mezuan *mojate* idatzi.**




IMELDA

bere ustez



Oihan Zubizarreta

## Herri baten ahotsak

Koro batean irudikatzen dut gure herrian egunotan entzuten den kantuaren doinua. Ahotsak entzuten dira azkenaldian. Askotarikoak eta ezberdinak. Zintzoak eta gaiztoak. Hurbilak eta urrutikoak. Ahotsek oihartzun egiten dute, haien artean nahastuz, eta ez da ezer ulertzen. .

Ahots eskasa dutenek, koroan protagonista izateko gosez edo, albokoari zapaltzen diote ahotsa. Zenbait ahotsek berriz isilik dihardute, partituraren doinuak norbere baitarako kantatzen eta letraren lerroak buruan ordenatzen.

**"Koro batean irudikatzen dut herrian egunotan entzuten den kantuaren doinua"**

Koroetako ahotsak zoragarriak izan daitezke edota kakalarria ematen duten horietakoak. Baina ahotsak grabeak eta agudoak dira. Eta horra, entzuten diren ahots batzuen grabedadea. Dispertsioak, apartheidak, atxiloketek eta torturak ez dute lekurik koroan. Norberak badaki zein ahotsetan kantatu behar duen.

Kantaren lerroak idazten hasita daude, koroak noiz abestuko zain; autodeterminazioa, lurraldetasuna, demokrazia, justizia, bakea… bada garaia ahotsak berotu eta herriak abesteko, kantatzen duen herria ez baita inoiz hilko.

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
K21
Arotz lanak orokorrean
•
Horma armairuak
•
Altzariak • Leihoak • Ateak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

Aitor Belardenda
Dietetika eta elikadura
• Produkto dietetikoak
• Sendabelarrak
• Kirol dietetika
• Elikadura naturala
• Kosmetika naturala
• Dieta pertsonalizatuak
Olarte 7 • ARRASATE • Tel.: 943 79 90 43

**SEMINARIOA** > 11:00ETAN SINATUKO DUTE LAGAPEN HITZARMENA

# Errege Seminarioa patronatuaren esku egongo da gaurtik, egubakoitza, aurrera

Eraikineko fatxada berrituko dute eta hainbat konponketa egingo dituzte barruan, auditorioa eta ikastolako lan berriekin batera

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Gaur, egubakoitza, 11:00etan, zuten hitzordua eginda Errege Seminarioaren lagapen hitzarmena sinatzeko Victoriano Gallastegi alkateak, Juanjo Alvarez UNEDeko zuzendariak eta Paulino Luesma Espainiako Gobernuak Euskadin duen delegatuak.

**BALDINTZAK**

"Lagapen honek bi baldintza nagusi ditu: UNEDek Bergaran jarraitzea eta eraikina hezkuntzarako eta kulturarako erabiltzea", dio Juanjo Alvarez UNEDeko zuzendariak. "Horregatik, UNEDek eta Aranzadi ikastolak bertan jarraituko dute eta hirugarren zatia Udalak erabiliko du auditorioa egiteko", azaldu du, segidan, Juanjok.



**LUZE** Duela sei urte egin zuen fundazioak eskaera ofiziala eta egubakoitzean onartu zuten ministroen kontseiluan. GOIENKARIA

**DENA BERRITUKO DUTE**

Eraikina patronatuaren esku egonda, zati bakoitza erabiltzeko lanak hasiko dituzte.

Kanpotik begiratuta, eraikinaren fatxada eta arkupeak berrituko dituzte eta ikastolak sarrera berri bat izango du Munibe plazatik, pasabide bat eginez. "Telefonicako eta San Martin plazako sarrerak galduko ditugu eta Munibekoa eta jolastokiko biak izango dira sarrera berriak", dio Patricia Urrutia Aranzadiko zuzendariak. San Martin plazako sarrera nagusitik auditoriora sartuko da gero eta UNEDera joateko, berriz, beste sarbide bat egingo dute ezkerretara, Banco Guipuzcoano aldera.

Barruko aldaketak ere handiak izango dira. "UNEDek erabiliko duen gunean, adibidez, gela handiekin txikiak egingo ditugu, komun berriak egingo ditugu, igogailua jarriko dugu, liburutegi berria eta beste solairu bat izango du eta eraikin osoan wifi sistema sartuko dugu. Gero eta ikasle gehiago ditugu eta lan hauek ikastetxearen eskaintza sendotuko dute", dio Juanjo Alvarezek.

Auditorioa egiteko, berriz, erretaula atzera botako dute. "500 lagunendako tokia izango du eta proiektua irailaren 15erako entregatuko dute", dio Victoriano Gallastegi alkateak. Hori egiteko, ikastolako gela batzuk erabiliko dituzte baina beste txoko bateko tokia hartuko du gero ikastolak.

**JOLASTOKIAN APARKALEKUA**

Ikastolako jolastokian aparkalekua egingo dute, "baina datorren ikasturtea bukatu arte, behintzat, ez dituzte lanak hasiko", aurreratu du Patriciak.

Gainerako lan guztiak 2007an hasiko dituzte, auditorioaren proiektua onartu eta gero.

**AURREKONTUA** > INBERTSIOEN ADIBIDE BATZUK

# Herriko zerbitzuak sortzera eta hobetzera bideratuko dute aurrekontuen zati handi bat

Domingo Irala kaleko proiekturako dirua eta komun publikoak egiteko asmoa ere jaso dute aurrekontuetan

**O.E.** > BERGARA

Zerbitzuak hobetzeko eta sortzeko gastatuko du Udalak aurrekontuen zati handi bat. Inbertsioetarako euro gehien Agorrosingo instalazio berriek hartuko dute. "Lehenengo faseak zortzi milioi euroko kostua du. Datorren urtean zabalduko ditugun spa eta berdegunea ere hortxe sartzen dira. Bi milioi eta ehun mila euro Diputazioak eman digu eta guztia ordaintzeko gelditzen diren hiru milioi euroak aurrengo aurrekontuetan sartu ditugu", azaldu du Victoriano Gallastegi alkateak.

Agorrosinekin batera, beste zerbitzu batzuk egiteko eta hobetzeko diru partidak gorde dituzte, adibidez: urrian zabalduko duten haurreskolako lanak egiteko, liburutegi berriko proiektua egiteko eta udal eta auzoetako frontoiak konpontzeko.

Bergara Aurrerak bestalde, gastu arruntak murrizteko batzorde bat osatzea eskatu du eta epe luzerako plan bat egitea proposatu, inbertsioak ikusteko.



**HAURRESKOLA** Hasi dituzte haurreskolako lanak; 55 ume hartuko ditu. O.E.

GAZTELU
BURDINKI DENDA
Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

REMENTERIA
Altzariak
Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan
Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Dixula
BOKATAK DAUZKAGU
Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

**ZIRKULAZIO ISUNAK** > TARIFA BERRIAK

# Irailetik aurrera, garestitu egingo dituzte isunak

## Udaltzainek ere gidabaimeneko puntuak kentzeko ahalmena dute eta isunarekin batera adieraziko dute horrela gertatzen denean

**OIHANA ELORTZA**> BERGARA
Datorren irailaren 1etik aurrera, zirkulazio isunak garestiagoak izango dira. Zirkulazioko lege berriari egokitzeko udal ordenantzetan hainbat aldaketa egitea onartu du udalbatzak eta irailetik aurrera hasiko dira aldaketa horiek aplikatzen.

**20 EUROTIK 301 EURORA**
Oinarrizko aldaketa da isunak hiru mailatan sailkatu dituztela eta maila bakoitzak bere zenbatekoa duela.

Arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke isunak. Arinek 20 euroko zigorra dute, orain 18 euro; isun larriak 100 eurorekin zigortuko dituzte, orain 30 eurorekin; eta oso larriek 301 euroko zigorra izango dute, egun 90 euro.

**30 EGUNEKO EPEA**
Isun larriak izango dira, adibidez: aparkatu ezin daitekeen tokietan aparkatzea; semaforoak ez errespetatzea; debekatutako noranzko aldaketak egitea; oinezko guneetan zirkulatzea; seinaleak ez errespetatzea edo kaskorik ez eramatea. Isun oso larriak dira, adibidez: kontrako noranzkoan zirkulatzea, alkohol tasak gainditzea eta abiadura baimendutakoa baino %50 handiagoa izatea.

Isunaren jakinarazpena egin eta hurrengo 30 egunen barruan ordainduz gero, %30eko beherapena izango du zigorrak.

**PUNTUAK**
Isuna puntuak kentzeko bestekoa bada, ohar bat idatziko dute udaltzainek isunean, dagokionari jakinarazteko. Isuna Zirkulazio Sailera bidaliko dute eta hark kenduko dizkio gero puntuak dagokion horri. Uztailean hasi dira puntuak kentzen.

DATUA

**301**
**EUROKO ISUNAK**

Hiru mailatako isunak jarriko dituzte Bergaran irailaren 1etik aurrera: arinak 20 eurorekin zigortuko dituzte, larriak 100 eurorekin eta oso larriak, 301 eurorekin.



GOIENKARIA

## Garbigunea garbi edukitzeko eskatu dute

Hondakinak garbigune kanpoan ez uzteko kartela egon arren, askok ez dutela kasurik egiten salatu du Mankomunitateak. Jendeak hondakin asko garbigunearen kanpoaldean uzten dituela dio, irudian agertzen den moduan, eta kasu batzuetan saguak eta arratoiak ere topatu dituztela hondakinen artean. Antzerako egoerak ez errepikatzea nahi du Mankomunitateak eta erabiltzaileei eskatzen die zerbitzuaren egutegia, ordutegia eta arauak behar bezala errespetatzeko.

> BOCCIA

### Agustin Toledo omenduko dute gaur San Joxepen

Agustin Toledok brontzezko domina lortu du bocciako Espainiako Txapelketan. Horregatik zorionak emateko, omenaldia egingo diote gaur, egubakoitza, San Joxepen. Omenaldiarekin batera, XIV. boccia txapelketa antolatu dute; 19:30ean izango da. Santa Marinako jaien barruan egingo diote omenaldia.

> BIDAIA

### Arantzazura eta Loiolara bidaia egingo dute Santiago egunean

Arantzazuko eta Loiolako santutegiak ikusteko bidaia egingo dute hilaren 25ean, Santiago egunean. Erromesaldi bidaia izango da; goizean penitentzia komunitarioa egingo dute nahi duten erromesek Arantzazun eta arratsaldean, errosarioa eta benedikta. Agirrebeñan, Zerkauzin eta Zatoian eros daitezke txartelak.

> ESKERRAK

### San Martzial garbi uzteagatik eskerrak eman nahi du Udalak

Bergarako Udalak eskerrak eman nahi ditu San Martzial gunea garbi uzteagatik. San Martzialeko jaian parte hartu zuten guztiei eman nahi die eskerrak, aurten, ingurua askoz txukunagoa utzi dutelako aurreko urtetan baino. Bide batez, datozen urtetan ere horrelaxe jarraitzeko nahaia azaldu du Udalak.

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.
Era guztietako lanak | Paper pintatuak
Moketa eta sintasola | Harea zorrotada
Iztuku esponjatua | Iztuku faltsua
Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32



elkar
Orain, **elkar txartel berriarekin:**
- %5eko deskontua liburuetan
- %10eko deskontua euskarazko musikan
- Erosketa bakoitzarekin puntuak zureganatzeko aukera
- Ikusentzunezko eta jokoetan promozioak
- eta askoz gehiago...

Zatoz eta **doan** atera.
**elkar megadenda** Bergaran
Ibargarai, 12 - Tel.: 943 764 050
BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA
GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi
BERGARA

Mujika
gozotegia

Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

**JAIAK** > SANTA MARINA

# Santa Marinako jaiak ospatuko dira martitzenera bitartean

Ohikoa denez, martitzenean meza nagusia izango da eta udalbatzak kalejira egingo du aurretik; Aritzetaren emanaldia mezaren ostean



**ARITZETA** Aritzetako kideek emanaldia egingo dute martitzenean, hilaren 18an, Santa Marinako parrokian. GOIENKARIA

**EDU MENDIBIL** > BERGARA
Santa Marinako jaien barruan, tute, mus, briska, toka, igela, bolo eta billar txapelketetako finalak jokatuko dira gaur, egubakoitza, erretiratuen egoitzan, 16:30ean. Ondoren sari banaketa ekitaldia izango da eta 19:30ean *boccia* txapelketaren 14. ekitaldia. Espainiako txapelketan brontzezko domina eskuratu duen Agustin Toledori omenaldia egingo diote.

Bihar, zapatua, Santa Marinako XV. txirrindularitza saria jokatuko da 16:00etan eta gauerako disko festa iragarri dute Matxiategin, 23:30ean.

**BANDA DOMEKAN ESPOLOIAN**
Domekan, Udal Txistularien Bandak kalejira egingo du 09:00etan eta 10:30ean Udal Musika Banda arituko da kaleak alaitzen. Ondoren, eguerdiko 12:30ean, Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du Espoloian. Bandako kideek honako pieza hauek joko dituzte: *Amparito Roca* (J. Texidor), *Magic overture* (T. Doss), *La Gran Vía* (cueca-Valverde), *Caribbean concerto* (K. Vlak) eta *Antzuolako doinuak* (Alfredo Gonzalez Chirlaque).

**SANTA MARINA EGUNEAN MEZA**
Santa Marina eguna ospatuko da martitzenean, hilaren 18an. Meza nagusia izango da Santa Marinan 19:00etan eta ohikoa denez udalbatza izango da bertan. Mezaren ostean Aritzetak emanaldia egingo du. 25 bat lagun ari dira Aritzetan. Imanol Urtzelaik, Larraitz Agirrek eta Xabier Olabarriak zuzenduta, kantu hauek eskainiko dituzte: *Se me quebraron los remos*, *Ilunabarra*, *Corazón coraza*, *Good night sweet heart*, *A tu lado* eta *Ixil ixilik*.



GOIENKARIA

## Kontzertuak gaztetxean bihar eta martitzenean

Gaztetxeak bi kontzertu iragarri ditu datozen egunotarako. Bihar, zapatua, Mexikoko Compadres Muertos eta Oñatiko Show Business taldeek joko dute, 22:30ean hasita. Sarrerak, 3 eurotan. Martitzenean, uztailaren 18an, Alemaniako Spermbirds hard-core taldea (argazkian gaztetxera egindako beste bisita baten) eta Zarautzeko Mantisa arituko dira, 20:30ean. Sarrerak 6 eurotan izango dira salgai.

**MUSIKA** > 'UZTAILEKO OSTIRALAK ESPOLOIAN'

# Malatu taldearen emanaldia gaur gauean Espoloian

Iñaxio Gabilondo bergararra da Malatu taldeko abeslaria

**E.M.** > BERGARA
Malatu taldeak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Espoloian, 22:30ean. Leintz Gatzagako, Gasteizeko eta Bergarako sei lagunek osatzen dute Malatu: Iñaxio Gabilondok (ahotsa eta aho-soinua), Mikel Gartziak (gitarra elektrikoa), Alberto De la Casak (baxu elektrikoa), Laura Ortegak (pianoa), Txefe Ferronik (saxofoia) eta Luis J.R. Barron-ek (perkusioa). Jazz, rock, perkusio afro-latindar eta bakarlarien mundutik datoz Malatuko kideak. Iñaxio Gabilondo bergararra, esaterako, Anastua Jazz Perku Band taldean ibilitakoa da.

Malaturen musikak gitarra elektrikoaren, pianoaren, baxuaren eta perkusioaren oinarri erritmikoan du funtsa, eta erritmo latindarrak eta afrikarrak swingarekin nahasten ditu. 70 minutuko emanaldia egingo dute gaur.

**FOUR FRIENDS, HILAREN 21EAN**
*Uztaileko ostiralak Espoloian* egitarauarekin jarraituz, datorren egubakoitzean, hilaren 21ean, Four Friends taldearen emanaldia izango da.

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

FRONTOI
TABERNA
Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

OGIZUN
koop. elk.
okindegia
Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13


Toki-Ona bodegoia
Matxiategi 1
Itziar mertzeria
Matxiategi 1
Saloki mertzeria
Matxiategi 2
Herran
Matxiategi 3-4
Gorosti loradenda
Matxiategi 1
Antia harategia
Matxiategi 8
Bergarako Ozioso bideokluba
Matxiategi 6
Estella ortopedia
Matxiategi 5
Kayak taberna
Matxiategi 3
Eladio oinetakoak
Matxiategi 2
Juana Elgetarra mertzeria
Zubieta 38
Yon Bilbao elektrizitatea
Fleming 11
Ikasle liburudenda
Fleming 11
Aralar taberna
Matxiategi 3
Belire eskulanak
Fleming 11
Ondo pasau Santamaiñetan!
IRUDIA: RICARDO OTAÑO

**FUTBOLA** > IPINTZAKO TXAPELKETAKO FINALAK, GAUR

# Angiola ala Juve, zein gailenduko da?

Bi talde horiek gaur arratsaldean jokatuko dute Ipintzako F-11ko final nagusia (19:45)

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Ipintzako Txapelketa iritsi da azken txanpara. Hala, gaur arratsaldean jokatuko dituzte Kopako eta Ligako finalak. Kopakoei meritua kendu barik, Ligako norgehiagokak izango du berebiziko garrantzia. Aste barruan jokatu dituzten finalerdi erabakigarrietan Angiolak eta La Juvek egin dute aurrera. Angiolak 3-1 irabazi zion Indar Gorriri, eta La Juvek gol bat gehiago egin zion Gorriones taldeari (4-1). Hala bi talde horien artean erabakiko dute nor den aurtengo Ipintzako txapelduna (gaur, 19:45ean).

**AURRETIK, KOPA**

Finala baino lehenago jokatuko dute Kopa Txapelketa (18:45). Eta, Ligako finalera gutxigatik sailkatu ez diren Gorriones eta Indar Gorri taldeek jokatuko dute partidu hori. Ligan kanporatuak izan diren taldeak zuzenean sartu dira Kopa jokatzera. Gauzak horrela, bi talde horiek A Ze Flaxa Galways eta Ez Dakiu taldeen kontra jokatu zituzten finalerdiak. Eta, bi norgehiagokak penaltien bidez erabaki zituzten.

## Santamarinako sarian Penabad da faborito

Bihar arratsaldean egingo dute Santamarinako ziklismo saria (16:00). Lokatzakoek 100 txirrindulari inguru espero dituzte, Bizkaiko eta Arabako hainbat talde gonbidatu dituzte-eta. Gazte mailako lasterketa izango da, eta ziklistek etapa luzea izango dute aurrean, 103 kilometro: "Asko eta asko ez dira helmugaratuko", esan digu Peio Garitanok. Taldekoek Asier Penabad ikusten dute faborito, eta txirrindularia ere garaipen gosez dago.



GOIENKARIA

> BATZARRA

### Gaur egingo du Bergara Kirol Elkarteak batzarra

Bergara Kirol Elkarteak gaur arratsaldean egingo du, kultura etxean, urteko batzar orokorra, eta bazkideei batzarrera joateko dei egiten die.

Batzarrean, joan den denboraldiko kirol balantzea egingo dute, eta baita balantze ekonomikoa ere. Horrekin batera, datorren denboraldian izango duten aurrekontua zein den azalduko dute, eta baita ikasturtea zein asmorekin hasiko duten ere. 19:30ean hasiko da batzarra.

> IGERIKETA SAILA

### Gaur egingo dute igeriketa saileko zozketa

Gaur, egubakoitza, egingo dute Bergarako igeriketa saileko zozketa. Igeriketako lagunen laguntza-txarteletan azaltzen da uztailaren 15a, zapatua, izango dela zozketaren eguna, baina data hori okerra da.

Hala, igeriketa taldekoek oker hori zuzendu guran zera argitu gura dute: gaur bertan egingo duten zozketan jakingo dela nor den sariaren irabazlea.


# SANTAMAIÑAK 2006



**Uztailaren 10etik 13ra**
AITONETAN, tute, mus, briska, toka, rana, bolo eta billar kanporaketak jokatuko dira.

**Uztailaren 13a, osteguna**
12:00etan, Etxafleroak eta kanpai hotsak jaiak adierazteko.

**Uztailaren 14a, ostirala**
10:30ean, Aitonetan XVIII. Ibilaldi Neurtua jubilatuentzat.
16:30ean, Aitonetan: Tute, mus, briska, toka, rana, bolo eta billar FINALAK jokatuko dira.
Ondoren, Aitonetan sari banaketa.
19:30ean, XIV. BOCCIA txapelketa. Agustin Toledori omenaldia. Espainiako BOCCIA txapelketan brontzezko domina lortu du-eta.
Ordu berean, PETRIKOL dastatzea auzoko tabernetan.

**Uztailaren 15a, larunbata**
16:00etan, TXIRRINDULARITZA lasterketa, XV. Santamaiña saria.
23:30etatik goizaldera arte DISKO FESTA Matxiategin.

**Uztailaren 16a, igandea**
9:00etan, Herriko txistularien kalejira.
10:30ean, Bergarako Udal Musika Bandaren kalejira.
12:30ean, Espoloian (Udal pilotalekua berritzen hari dira-eta) Bergarako Udal Musika Bandaren kontzertua.

**Uztailaren 18a, martitzena, Santamaiña eguna**
19:00etan, Herri Meza Santamaiñako elizan Udal Korporazioarekin.
Ondoren, Aritzeta abesbatzaren kontzertua.

**Ondo ibili Santamaiñetan!**

bergararrak kanpoan

Xabier Eskibel Sesma > Langilea
Indian bizi da

# "Miserian bizi diren arren, beti daukate aurrera egiteko gogoa"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

**Urte hasieran joan zen Xabier Eskibel bergararra Indiara, lan kontuak direla medio. Pune hirian dabil lan eta lan eta, hasieran, urria bitartean bertan geratzeko asmoa du. Bada, hango berri eman digu.**



Xabier Eskibel eskuman, Indiako lankide batekin.

Txinako eta Indiako merkatuak azkar hazten ari direla eta etorkizunerako lehia gogorra izango direla jakinda, lan kontuengatik Xabier Eskibel Indiara joan zen urte hasietan: "Gauzak bertatik bertara ikustea gustatu zait beti eta Rinder Industrial SA enpresak Indiara etortzeko aukera eman zidanean, ez nuen bi aldiz pentsatu. Kultura ezberdin baten jendea nola bizi den jakiteak ere jakin-mina piztu zidan".

Eskibel Pune hirian dago, Maharastra estatuan, Indiako hego-mendebaldean, Bombaytik 150 kilometrora. Xabierren berbetan, "hiri industriala da, ez dago asko ikustekorik. Astean zehar gure bizimodua lanean zentratzen da. Asteburuak laburrak dira, larunbatetan ere lan egiten baitugu. Igandeetan eguneko irteerak egiten ditugu edo igerilekura joan. Beroarekin hori da aukera erosoena. Tarteka lau eguneko oporraldiak ere hartzen ditugu Indian zehar bidaiatzeko".

**"Horrenbeste jende batera bizi izanda ez badituzte neurriak hartzen zikinkeriak jango ditu"**

Xabierrek ez zuen pentsatuko hainbeste jende batera bizi zitekeenik. "Jende guztia kabitzeko autoak, trenak, motorrak... indiarren estilora erabiltzen dituzte (hamarrendako tokian 30 sartuz). Kaleko eskuterretan lau lagun ikustea gauza arrunta da".

**JENDE ALAIA ETA KUTSADURA**

Gehien gustatu zaiona jendearen motibazioa eta alaitasuna dira. "Miserian bizi arren beti daukate aurrera egiteko gogoa, beraien aurpegian nabari da", dio Eskibelek. Gutxien, berriz, kutsadura. "Horrenbeste jende batera bizi eta ez badituzte neurriak hartzen, zikinkeriak jango ditu. Indiara etorri eta bigarren hilabetean aurkitu nuen lehendabiziko zaborrontzia Bombayko kale nagusi batean".

Opor sasoia izanik hara doazenei zer gomendatuko liekeen galdetuta zera esan digu: "Toki turistikoez gain benetan merezi duena kalera irten eta jendea nola bizi den ikustea da. Janari eta edariekin kontu pixka bat izatea ere gomendagarria da oporrak disfrutatu ahal izateko".

Urria bitartean han geratuko da, baina oraindik ez du bueltako txartelik. Bitartean zenbait gauzaren falta sumatuko du: "Lanetik irtenda, bizikletan buelta bat ematea aire garbia hartuz eta janaria, hemengoarekin moldatzea zaila egiten zait eta".

bere ustez


Aitziber Azkondo

## Herrian ordezkaritza egiten

Herriko beheraldi garaia aspalditik datorrela ikusita, kezkagarria iruditzen zait, bi taberna berri zabaldu izana. Hirugarrena azarorako iragarri dute. Kezka baino gehiago harridura da. Ausardia izan behar da aisiaren kultura momentu gorenean ez dagoela jakinda.

GOIENKARIAko argazkiak ere harridura eragin zidan alkatea inaugurazioan antzematean. Ohitura ei da alemaniar tabernatan, agintari gorena gonbidatzea. Ordezkariak jakin behar du, zer eta zergatik ordezkatzen duen eta herriaren onerako bada, aurrera. Ez noa zalantzan jartzera.

**"Ausardia izan behar da aisiaren kultura momentu gorenean ez dagoela jakinda taberna zabaltzeko"**

Hala ere, hainbat ekitalditan, jaietan nagusiki, sumatu den ordezkarien arreta eza azpimarratu nahi nuke. Hizpide izan zen kalean. Jaiak herrikoentzat diren unetik, herriko arduradunek, ekitaldiek esperotako erantzuna izan dutela ziurtatu behar dute; horrela ez bada, balantzea egin eta hurrengorako gauzak hobetzen saiatu. Are gehiago, herri giroak jaietan ere beherakada izan duela jakinda eta gutxienez urtero musu-truk lanean diharduten pertsonen babes gisa. Ordezkaritza beharrezko uneetan egitea onura da, diplomaziak beti egin du bere lana. Ezinbesteko uneetan ezin daiteke huts egin.



TERRAZA
UDAKO AUKERAK

taberna TarTuFO jatetxea

**ENTSALADA, PIPERRAK, PATATAK ETA OILASKOA**
Ogia eta urteko ardoa
15€
*txampana aukeran, botila 3€ gehiago.

**URDAIAZPIKO IBERIKOA**
**BAKAILAO NAHASKIA**
**ENTSALADA (letxuga eta kipula)**
**IDI TXULETA PARRILLAN**
Ogia eta kriantza ardoa ( Marques del puerto)
30€

**CHEF-aren DEGUSTAZIO MENUA**
Foie terrina, Pedro Ximenez- saltsarekin eta mahaspasa eta intxaurdun ogiarekin.
Entsalada epela, olagarro eta esparrago trigueroekin.
Ajoarriero bakailao- kurruskariak, bere zuku gutxituan.
Bakailao- zati konfitatua, patata eta berakatzezko krema harrotuaren gainean.
Solomilloa foie-arekin eta mahats – saltsarekin.
Maracuya zopa, kokozko helatuarekin eta piña kurruskagarriakin.

Ardoa , Marques del puerto erreserba.
40€

Erreserbak: 943763551

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

## Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida




hemen bada
giro!







































**HIRIGINTZA** > OTALORA KALEKO SANEAMENDU LANAK

# Saneamendu lanak aprobetxatuta, guztiz berrituko dute Otalora kalea

Lurzorua, argiteria eta kaleko altzariak bereziki zaindu gura dituzte itxura dotorea emateko herriko iparraldeko sarrerari

Ia 2 milioi eta erdiko aurrekontua dute lanek eta 9 hilabete iraungo dute

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Ur hornikuntza eta saneamendu lanak egiteko konpromisoa hartuta dauka Udalak, eta urtero egiten du kale batean edo bestean. Aurten Otaloran egingo dituzte lanok, eta hori aprobetxatuta kalea erabat berritu eta dotoretzea erabaki du Udalak. Hala onartu zuten astelehenean egindako osoko bilkuran, EAJ eta PPko aldeko botoekin; Aralar eta Ezker Batua abstenitu egin ziren.

**DURANA KALEAREN ITXURA**

Ur hodiak ez ezik argiteria, telefono kableak, lorategiak, eta lurzorua txukundu eta kaleko altzariak berrituko dituzte. "Herriko iparraldeko sarrera izanik lurzorua, argiteria eta altzariak zaindu gura izan ditugu kalitatezko materialak erabiliz", argitu zuen Jose Mari Segoviak, Hirigintza teknikariak.

Lan bakarra izango da, baina hiru atal izango ditu: Durana kale bukaeran hasi eta Aramaiora doan errepideraino lehenengoa, kuartela izandako eraikineraino bigarrena, eta Santutxuraino hirugarren atala.

Otalora kaletik, gainera, tranbia pasatuko da, eta kontuan hartu du hori Udalak proiektua egiterakoan. Lehenengo zatiari, Aramaioko errepidera artekoari, Durana kalearen itxura emango diote galtzada-harria jarrita. "Tranbiaren lanak hastean harria jaso egingo dute, eta gero berriro jarri, hortaz, ez dugu galerarik izango, ezta aparteko gasturik ere", esan zuen Segoviak.

Hirugarren zatiko Tubos de Precision lantegi pareko espaloia, ostera, ez dute ukituko tranbiak bete-betean harrapatuko duelako. Zati berean baina beste aldean dagoen espaloiak aldaketa handia jasango du. Izan ere, dena bota eta bereiztuta egongo diren bi espaloi egingo dituzte: bata, bereziki atarteetara joateko malda txikiko arrapala luzeekin, eta bestea, kalean dabilen oinezkoarentzat. "Honek garestitu egin du proiektua. Gainera, maila ezberdinetan dauden bi espaloi egitean horma jarri behar da, eta kareharriarekin egingo dugu. Baranda ere jarri beharko dugu, eta altzairu herdoilgaitzez egindakoa izango da", azaldu zuen Segoviak. Argiteria ere zainduko dute tarte honetan herriko sarrerari beste itxura bat eman guran eta ez dituzte edozelako farolak aukeratuko.

**AURREKONTU POTOLOA**

Hiru zati egin dizkioten Otalora kalean 9.080 metro koadro konponduko dituzte. 9 hilabetetan egitea eskatuko diote lanok egin behar dituen enpresari, gehiegi ez luzatzeko. Aurrekontu potoloa daukate, gainera, lanek 2.479.000 euro, hau da, metro koadroak 265 euroko gastua izango du.



OTALORA KALEA Parrokia parean hasi eta Santutxuko ermitara bitartean egingo dituzte lanok; ur hodiak aldatu ez ezik itxura dotorea eman gura diote kaleari. M.A.

ARALAR ETA EB EZ DAUDE ADOS

## Proiektua atzeratzearen alde Aralar eta EB

Aurtengo Udal aurrekontuan 610 mila euro aurreikusita zituen Udalak Otalora kalearentzat. Gastua, baina, lau aldiz handiagoa da, eta Pausoka haur eskolako eraikina erosteko gordeta zeukan dirua hartuko du. Hala, erdia baino zertxobait gehiago, 1.300.000 inguru, 2006ko aurrekontuarekin estaliko du, eta gainerakoa, 2007ko aurrekontuan sartzeko utzi du.

**LEHENTASUNAK FINKATZEKO ESKAERA**

Aralar eta Ezker Batua ez ziren bat etorri alkateak aurkeztutakoarekin. Batetik, Hezkuntza arlotik dirua hartzearen kontra azaldu zen Xabier Sarasua, eta bestetik, lehentasunak finkatu behar direla herrian halako proiektu potoloa onartu aurretik esan zuen. Argitu zuen saneamendu lanak egitearen aurka ez daudela, ezta kaleak txukuntzearen alde ere, baina ia bi milioi eta erdiko gastuetan sartu aurretik lehentasunak finkatu beharko liratekeela herrian. Alkateak erantzun zion momentu honetan daukala Udalak halako inbertsioetan sartzeko ahalmena, zor txikia duelako, eta aprobetxatu egin behar dela. Aralar eta Ezker Batuak proiektua atzeratzearen alde bozkatu zuten, baina ez zuen aurrera egin.



EGUZKIGRAF inprimategia
KOOP. E.
Abuztuaren 11tik 29ra
ITXITA
*Ondo pasa Andramaixak!!*
Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

**UDALA** > HIRU MOZIO ONARTU ZITUZTEN OSOKO BILKURAN

# Eskumenak eman dizkie alkateak hainbat zinegotziri eta Gobernu batzordeari

Aralarko Xabier Sarasuak esan zuen adierazgarria dela halako erabakia hartzea gobernuan EAJ bakarrik dagoenean eta batzorde guztiak euren eskuetan daudenean



**EAJ-KO ZINEGOTZIAK** Hainbat eskumen eman dizkie alkateak batzorde-buruei eta Gobernu batzordeari. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Eztabaida luzeak izan zituzten Aralarko Xabier Sarasuak eta alkateak asteleheneko osoko bilkuran. Hiru mozio aurkeztu zituzten Aralar eta Ezker Batuak; baita guztiak onartu ere, moldaketaren bat edo beste eginda.

**HIRU MOZIOAK ONARTUTA**

Errekaren beste aldeko etxe tasatuen prezioak finkatzeko asmoarekin, Bruesa enpresari eskatu gura zioten 2006ko irailean moduluak izango duen prezioa baino altuagoa ez aplikatzea. Eskaera eginda dagoela erantzun zuen alkateak, eta hitzez onartuta. Uztail bukaeran, enpresako batzordetik pasatzerakoan gaia, idatziz bidaliko dutela. Hala ere, onartu egin zuten mozioa, EAJren eta PPren abstentzioekin.

Bidegorriari dagokion mozioarekin erabaki zuten Aldundiari eskatzea Arrasate eta Aretxabaleta arteko pasabidea egiten dabiltzan bitartean egiteko CVL lantegira bitarteko tartea. Eta herri barrukoa Udalak berak egitea. Alkateak azaldu zuen Bidegiko Nestor Aranak konpromisoa hartuta duela Almenera bidean dagoen tuneletik Eskoriatzara arteko tartea egiteko, aurten bertan. Hiltegiaren gaineko mozioa ere onartu egin zuten.

**TALDE LANA ERRAZTEKO**

Bestalde, asteleheneko GAOn argitaratu zenez alkateak eskumen batzuk eman dizkie Galo Sanchez, Maitane Urrutia, Iñaki Saenz de Azkunaga, Mikel Uribetxebarria eta Jesus Mari Herrasti zinegotziei. Baita Gobernu batzordeari ere. Aralarrek bere garaian eskatu zuen hori, eta Sarasuaren esanetan adierazgarria da EAJ bakarrik dagoenean gobernuan onartzea. "Orduan ere ondo iruditu zitzaidan eskaera, baina gobernuak talde bezala funtzionatu behar du. Eskumenak ez dira gura dena egiteko, taldearen lana errazteko baizik, nahiz eta kolore batekoa izan gobernua", esan zigun alkateak.

**HIRUATX** > EKUATORE GINEAKO PROIEKTUA

# Mitemeleteko arduraduna izan da herrian

Manuel Owono txiten gaineko kontuak ezagutzera etorri zen joan zen asteburuan

**M.A.** > ARETXABALETA

Ginea Ekuatoreko Mitemelete herrian dabil garatzen azken proiektua Hiruatx elkartea. Joan zen asteburuan bertako arduraduna izan zen gurean, Manuel Owono.

**HEGAZTI-GRANJA ERAIKITA**

Oilaskoak hazi eta salduko dituzte Mitemelete herrian. Horregatik oilaskoen gaineko kontuak ezagutzera etorri zen Owono. Hain zuzen txitek behar duten elikadura, bakunak eta beste horrenbeste kontu argitu dizkiote gure herriko adituek.

Horiez gain beste gai batzuk ere landu ditu Mundukide eta Hiruatxeko kideekin bisita aprobetxatuta: kudeaketa taldea zela antolatu, hegazti-hazkuntzarako tresnerian egin beharreko inbertsioak, nekazaritzaren inguruko gaiak eta beste hainbat.

Hegazti-granjaren oinarrizko eraikinak egin dituzte dagoeneko, ugalketarako eta txitak berotzeko eraikinak, hain zuzen. Eta behin lekua gertu egonda lehenengo hegaztiak hazten hasiko dira. Udazken-negu inguruko emaitzak lortzea da asmoa.

Kooperatibaren gaineko kontuak ere aurrera doaz eta kudeaketa taldea dagoneko antolatu dute; orain indarra hartzen dabil.

Owono benetan pozik zegoen orain arte egindako guztiarekin, eta Mitemeleteko herritar guztien izenean eskerrak eman zizkien Hiruatxi eta laguntzaileei hartutako konpromisoagatik.

> GAZTEAK

### Gazte Astea egiten dabil Atxabaltako Gazte Ekimena

Atxabaltako Gazte Ekimenak Gazte Astea antolatu du, eta eguaztenean hasita hainbat berbaldi egin dituzte. Gaur, egubakoitza, *AHT Gelditu!* berbaldia eskainiko dute Herriko Plazan, 19:00etan. Eta bihar, zapatua, ekitaldi bi egongo dira: 10:00etan Herriko Plazatik irtenda mendi buelta Isurieta auzotik Apotzagara bitartean, autobidearen ibilbidea ezagutzeko. Arratsaldean, 18:00etan, kontzertua herriko taldeen eskutik: Ares, The Pitxons, Scam eta Dravel Crow, tartean.

> DIRULAGUNTZA

### Euskararen erabilera sustatzen duten elkarteei laguntzak

Euskararen erabilera bultzatzeko lan egiten duten irabazi asmorik gabeko elkarte eta erakundeei dirulaguntzak emateko oinarriak argitaratu ditu Udalak. Euskara Zerbitzuaren ardura izango da laguntzok banatzea, eta 4.400 euro dituzte gordeta.

Eskaerarekin batera ekintzen egitaraua aurkeztu beharko dute taldeek. Argibide gehiago gura dutenak uztailaren 5ean argitaratutako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aurkituko ditu.

> INTERNET

### Ikastaroak eta IT txartela ateratzeko probak KZgunean

Arratsaldez, 16:00etatik 20:00etara dago zabalik Aretxabaletako KZgunea, eta hainbat ikastaro dituzte: Irudi digitalaren gaineko bi egingo dituzte hilaren 17tik 20ra bitartean, Internet ezagutzeko uztailaren 17tik 28ra eta posta elektronikoa erabiltzen ikasteko hilaren 26an.

Horiez gain, IT txartela eskuratzeko proba egingo dute uztailaren 21ean; hortaz, argibideak gura izanez gero deitu 943 79 94 44 zenbakira.

SANER
ITURGINTZA
Selaikua baserria
Apotzaga auzoa
ESKORIATZA
605 71 66 92 / 943 71 52 51

Iber
Loteria
Paper denda
Liburuak
Otalora 2. ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

BENGOA
URDAITEGIA
Bertako okelak
eta mortzilak
Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

**KULTURA** > JAIETARAKO KARTELA ETA ESALDIAK

# Jose Angel San Miguelen kartelak iragarriko ditu aurtengo Andramaixak

## 15 taldek ia 100 esaldi aurkeztu zituzten egitarauan zein jaietan erabiltzeko

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Andramaixak gero eta hurrago ditugu eta Kultura Saila egitarauko azken kontuak lotzen dabil. Kartela eta esaldiak dagoeneko aukeratu ditu.

**JAIETAKO PASARTEAK**

Zazpi kartel jaso zituzten Andramaixak iragartzeko eta biren artean izan zuen zalantza epaimahaiak. Jose Angel San Miguel aretxabaletarrarena aukeratu zuten azkenean, eta jaietako pasarteak jasotzen dituen irudiak aurkeztuko digu aurtengo egitaraua.

Esaldi lehiaketara, bestalde, 15 talde aurkeztu ziren. Guztien artean 98 esaldi jaso zituzten Udalean, eta nahikoa lan izan zuten aukeratzen. Egitarauan azalduko den esaldia Basabeazpiko guraso diren Mari taldeak aurkeztu zuen: *Busti ezpainak eta astindu mingaina, hemen dagoela giro bikaina. Andramaixak dira alajaina!* Jaietan erabiliko dituzten pegatinak egiteko hiru esaldiak Antonio Carlos Amaral eta Arantzazu Martinezek asmatu dituzte: *Andramaixetan zurekin ligau ezkero, ez dut bizitzan ezer hoberik espero*; *Aurtengo beraneorako azken oferta, Andramaixetan 4 egun "pension completa"*; eta *Jaixetan gustora nabil hementxe, txarri baltza lokatzaretan letxe*.



**KARTELA** Andramaixetako pasarteak ditu Jose Angelen kartelak. KULTURA SAILA



M.A.

## Anjel Zubillagak aurkitu zuen Txinarako bidaia

Kontseiluak antolatutako Euskal Tonbolak sari bikaina utzi du Gurea tabernan: Txinara bidaia. Anjel Zubillagak egunero hartzen zuen tonbolako txartel bat kafea hartzerakoan eta joan zen astean aukeratu zuenak bidaia zeukan gordeta. Udazken inguruan joango dira bidaian, eta zazpi gau eta bederatzi egun egingo dituzte. Beste sari batzuk ere banatu dituzte Gurean, eta DVDa eta MP3a, esaterako, *Fito*-k eskuratu zituen. Tonbola bukatzear dago eta Gurean dagoeneko ez daukate txartelik.

> DANTZA

### Beinke-Loramendi dantza erakutsiko dute hilaren 20an hasita

San Migel jaietan egin izan den Beinke-Loramendi dantza erakutsiko dute Loramendi dantza taldeko kideek. Loramendi EEk antolatu du ekimena, eta asmoa da azken urteotan egin ez den dantza berreskuratzea iraileko jaietan. Uztailaren 20an, eguena, izango da lehen saioa. 19:45ean elkartuko dira Loramendin gero dantzako lokalera joateko.

> KIROLA

### Batzar orokorra egingo du UDAk gaur, 18:30ean, udaletxe zaharrean

Aretxabaleta Kirol Elkarteak, UDAk, ohiko batzar orokorra egingo du gaur. 2005-2006 denboraldiaren eta diru kontuen berri emango dute zuzendaritza batzordeko kideek, eta irailean hasiko duten denboraldia eta aurrekontua aurkeztuko dituzte. Bazkideek galderak eta eskaerak egiteko aukera izango dute, 18:30ean, udaletxe zaharrean.

> IRTEERA

### Islara irteera antolatu du Zaraia Mendizale Taldeak hilaren 22rako

Denboraldiari bukaera emateko hondartzara antolatu du irteera Zaraia MTk. Kantabrian dagoen Isla herrira joango dira uztailaren 22an, zapatua. Bidaia eta bazkaria 20 eurotan eskaini dute mendizale taldeko kideek, eta izena eman gura dutenek dei egin dezatela 943 79 03 34 zenbakira edo Zaraiaren lokaletik pasatu 17:00etatik 19:00etara.

Mitartegarai
Baserri turismoa eta taberna
Areantza auzoa
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 17 51



Mobiliario Arenaza
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP
Garbiketa orokorrak
Errekabarren 3- Behea ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 606 665 448

**AUZOAK** > AUZO LOKALA INAUGURATU DUTE MARINEN

# Maringo auzotarrek badute elkartzeko lokala eta aspaldiko eskaera lortu dute

Lanek 2 urte iraun dute, eta auzotarrek, Aldundiak eta Udalak finantzatu dituzte. Elkartzeko eta auzoko ospakizunetarako erabiliko dute lokala



**AUZOTAR ASKO** Erakundeetako ordezkariez gain, auzotar dezente batu ziren inaugurazioan. GOIATZ ARANA.

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Herenegun, eguaztena, inauguratu zuten auzo lokala. Ekitaldian Maringo auzotarrak, Udaleko eta Mankomunitateko ordezkariak eta Aldundiko Landa Garapenerako diputatu Rafael Uribarren izan ziren. Lehengo eskola zaharrean egin dute auzo lokala eta lanek 2 urte iraun dute.

Maringo auzotarren aspaldiko eskaera zen auzo lokala jartzea. Izan ere, iraganean, orain dela 25 bat urte, auzotarrek eskola zaharra erabiltzen zuten batzeko, baina eraikina oso egoera txarrean zegoen eta erabiltzeari utzi zioten. "Aspaldian auzotar guztiak autoan gora eta behera ibiltzen gara, eta dagoeneko ez dugu ia elkar ikusten. Horrez gain, batzarrak egiteko-eta ez genuen leku aproposik. Lokal horri esker auzotarren arteko giroa eta harremanak sendotuko ditugula uste dugu", azaldu zigun Maringo auzo alkate Unai Salaberriak.

Auzo lokala egiteko Aldundiko Landa Garapenerako laguntza jaso dute, baita Udalarena ere, baina diru gehiena auzotarrek jarri dute. Marinen dauden 24 baserrietatik 21 bazkide egin dira. Urtebeteko epea izan dute horretarako, eta bazkide egiteko falta direnek penalizazioa izango dute bazkide egin gura badute.

**APARKALEKUAREN PREMIA**

Lokalak 70 metro koadro ditu eta hiru zatitan banatuta dago: areto nagusia, sukaldea eta aldageletako armairuak. Hain zuzen ere, baserri bakoitzak giltza eta armairu bana izango ditu.

Maringo auzotarrek uste dute lan horiek Udalak, Aldundiak eta auzotarrek ordaindu beharrean, autobidea egiten dabiltzanek ordaindu beharko luketela. "Askotan Bidegik kalte-ordainen gainean berba egin du, baina gero ez ditu auzoak laguntzen. Oraindik aukera dute laguntzeko, lokalaren ingurua urbanizatu eta aparkalekuak egiteko premia handia daukagu-eta".

Auzotarrak pozik daude, eta aurtengo jaiak bereziagoak izango direla aurreratu dute.

**LANAK** > SANTA ANA AUZOA JANZTEN

# Lanak bukatutzat emateko Santa Ana hornitzen dabiltza

Santa Anako lanei azken bukaera egiten eta lore-ontziak, kale-argiak eta bestelakoak jartzen dabiltza

**I.B.** > ARRASATE

Luze jo dute Santa Ana auzoa berriro urbanizatzeko lanek. Iazko irailean hasi zen lanean Amaral enpresa, baina ez ditu agindutako epeak bete. Horregatik, Santa Anako auzotar eta merkatari askok kexak helarazi zituzten Udalera.

Lanek 800.000 euroko aurrekontua izan zuten adjudikatzeko orduan, eta auzoa hankaz gora jarri dute.

**AUZOA ALTZARIEKIN JANZTEN**

Egunotan auzoa janzten eta hornitzen dabiltza. Hain zuzen ere, lore-ontziak, kale-argiak, pibotak eta beste jartzen dihardute. Horrez gain, argiztapenerako bi elektrizitate-panel jarriko dituzte, eta horrek horniketa apur bat atzeratuko du.

Bestalde, Udalak jakinarazi digu espaloi muturrak bukatu, baldosak konpondu eta lanen bukaera egiten dabiltzala.

Aparkalekuekin lotutako kexen gainean, Udalak honako hau argitu du: "Legezko aparkaleku kopuru bera dago orain, baina egia da legezkoak ez zirenak piboten bidez mugatu ditugula".



**TXUKUNA** Beste itxura bat eman diote auzoari. IKER BARANDIARAN

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI

Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika

Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

ERRETIRATUAK > TORREBASON ORTU GEHIAGO

# Torrebasoko ortuetarako izenematea zabaldu dute

Aste gutxi barru erretiratuendako beste hamar ortu eginda egongo dira Torrebaso auzoan

Erretiratuei eta 55 urtetik gorako aurre-erretiratuei zuzenduta dago ekimena



TXABOLAREKIN Ortu berriek beste txabola eta ur biltegi bat izango dute. I.B.

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Dagoeneko hasita daude ortu gehiago egiteko lanak. Urte hasieran hartu zuen Udalak ortu gehiago egiteko erabakia, eta San Pedroen aurretik esleitu zituen lanok. Frixi Eraikuntzak dabil zeregin horrekin eta Udalaren asmoa da aste gutxitan bukatuta egotea.

Beste hamar ortu egingo dituzte, eta lan horiek 30.000 euroko aurrekontua izango dute. Proiektu horren bultzatzaile Juan Luis Merino zinegotziak jakinarazi digu lehendik abian dauden 17 partzelak aspalditik hartuta daudela, eta oraindik eskaera gehiago izan ez dituzten arren, aukera hori bermatu gura dutela. "Herriko erretiratuak animatu gura ditugu euren aisialdiaren zati bat ortuetan ibil dezaten. Hortaz, gailuak jarri gura ditugu horretarako".

**IZENEMATEA ZABALIK**

Udalaren asmoa da uda ostean Eskoriatzako etxe guztietako atarietan ortuen berri emateko horma-irudiak jartzea. Hala ere, Juan Luis Merinok jakinarazi digu dagoeneko badagoela izena emateko aukera. "Gura duenak udaletxera jo eta harreran horren gaineko eskaera egin dezala. Eskatzailearen izen-abizenak jaso eta zerrendan jarriko dituzte. Eskaeren artean zozketa egingo dugu ortuak bukatu eta epe laburrera".

Ortua erabiltzeko baldintzak honako hauek dira: erretiratuta egotea edo 55 urtetik gorako aurre-erretiratua izatea, Eskoriatzan erroldatuta egotea eta ortu propiorik ez izatea. Horrez gain, proiektuaren bultzatzaileak aztertzen dabiltza beste talde batzuei ere ortuak erabiltzeko aukera ematea. Hala egiten badute, laster jakinaraziko dugu.

**ERRETIRATUEN AISIALDIA**

Bide batez, Juan Luis Merinok ortu horien helburu nagusiak azpimarratu zituen, etorkizuneko erabiltzaileek argi izan ditzaten. Honako hauek dira: erretiratuei aisaldirako aukerak ematea, nekazaritza tradizionalaren ohiturak berreskuratzea, elikadura naturala bultzatzea eta legez kanpoko ortuak kentzea, hain zuzen ere.

Bestalde, ortuko erabiltzaileek aukera dute atseden-gunea eta txabola erabiltzeko. Azken horretan, txabolan, aldageletako armairu bana dute. Horrez gain, ur biltegiak ere dituzte erabiltzeko. Ortuak eta aipatutako zerbitzuak erabiltzeagatik ez dute ezer ordaindu behar.

Orain egiten dabiltzan ortu berrietan ere ur biltegia eta txabola bana egiten dabiltza. Hartuta dauden 17 ortuen erabiltzaileei 2008ko martxora arte luzatu diete ustiapen hori, eta berriei ere epe horretara arte egingo diete.

## HUHEZI alboan aparkaleku gehiago

Udalak hartu du lan horien ardura, eta dagoeneko hasita daude. HUHEZIren alboko orain arteko aparkalekuan dagoen lorategiari zati bat kendu diote, eta han aparkaleku gehiago egiten hasi dira.

41 aparkaleku jarriko dituzte han, eta Udalaren asmoa da irailerako bukatuta izatea. Hain zuzen ere, asfaltoa abuztuan botako dute. Asfaltoa ekartzean, baliatuko dute San Juan kalean eta Dorletan ere botatzeko.



IKER BARANDIARAN

> IRTEERA

## Alabitara txangoa antolatu du Lanbrue taldeak

Datorren asteburuan Alabitara txangoa egingo dute herriko hainbat ume eta gurasok. Lanbrue taldeak antolatu du eta hilaren 22tik 25era bitartean egingo dute.

Lanbrue taldeak urte dezente darama irteera hori antolatzen. Lehen Degurixara egiten zuten, baina gerora Alabitara aldatu zuten. Iaz 35 bat lagunek esku hartu zuten.

Interesatuek Namaste belar dendan eman beharko dute izena (943 71 43 27) eta 6 euro ordaindu beharko dituzte. Irteeran jokoak, txangoak eta beste egingo dituzte.

MIRVAT

Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru Guarda pasealekua 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05
www.mirvat.com





GOIENKARIA
2006ko uztailaren 14a

**JAIAK** > HERRITARREN PARTE-HARTZEA BULTZATU NAHI DUTE

# Aurtengo jaietarako 39.000 euroko aurrekontua onartu du udalbatzarrak

Musika taldeek, umeen parkeek eta herria jaietako egunetan garbi mantentzeak izango dute kostu handien



BERGARAKO BANDA *Antzuolako doinuak* lanaren partiturak emango dizkio bandako zuzendariak Udalari. GOIENKARIA

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Azken osoko bilkuran onartu zuten Udalean aurtengo jaietako aurrekontua 39.000 eurokoa izatea. Diru kontuei garrantzia eman beharrean, ordea, aurten bereziki saiatu dira jaiak herrikoiak izan daitezen eta herritarren parte-hartzea bultzatzen. "Musika talde handiak ez datoz, eta herriko bi talderen emanaldia egongo da. Bertako trikitilariek, dantzariek, txistulariek, dultzaina joleek... ere badute hitzordua jaietan", esan digu Kultura teknikariak. "Era berean, herritarrengandik sortu den beste ekimen bat hontzaren jaitsiera da", esan digu. "Bultzatu behar dena da jaien antolaketa herritarrek egitea herritarrendako".

Aurrekontuari erreparatuz, hala ere, esan digu kostu handien dutenak musika taldeak, umeen parkeak eta herria egun horietan garbi mantentzea direla.

**BERGARAKO BANDARI OMENALDIA**

Bestalde, Bergarako Udal Musika Bandak urte askoan egin du kontzertua Antzuolako jaietan; gainera, bandako zuzendari Alfredo Gonzalez Chirlaquek *Antzuolako doinuak* pieza konposatu du. Alkateari emango dizkio partiturak eta hark trukean herriko bandera eta oroigarria.

> ONDAREA

## Larrugintzaren gaineko proiektua Tellabidek egingo du

Larru-ontze eta uhalgintza proiektuaren aholkularitza eta kudeaketa zerbitzua Josu Tellabideri esleitzea onartu du Udalak. Tellabidek lanean dihardu, lan horretan jardundakoen testigantzak jasotzen, eta laster hasiko da grabatzen. Ondoren, dokumentazio guztia digitalizatu eta katalogatu egingo du artxibo egokia izateko. Bitartean, larruaren interpretazio zentroaren diseinua gertatu beharko du, eta horretarako, besteak beste, antzeko zentroak bisitatu. Asmoa da besteetan oinarrituta Antzuolako zentroa berria, originala eta erakargarria izatea.

## Kaleak garbitzeko makina berria

San Martzial egunean ekarri zuen Udalak kaleak garbitzeko makina berria. Aurrekoak erratzeko baino ez zuen balio; berriak, berriz, erratzeaz gain, zakarrak xurgatzen ditu. Zazpi makina probatu ostean aukeratu dute hori eta 74.240 euroko kostua izan du. Jaietan kaleak garbi mantentzeko gertu daude bai makina eta baita Miren eta Itziar garbitzaileak ere. Honekin batera *Karcher* ekipoa ere erosi du Udalak. Ur bero eta presio bidez kartelak, pintaketak... garbitzea erraztuko du.



MARKEL AZKARGORTA

**bere ustez**



Iraia Gabilondo

## Ametsetako bidaia udako oporretan

Egutegiaren seigarren orrira iristean zerbait aldatzen dela dirudi. Urte guztian horrenbeste desio dugun uda iristen baita. Milaka plan izaten ditugu, eta horietako bat nola ez, bidaiatzea da. Eguraldi ona gure inguruan, zeru urdina eta guztiak eguzki azpian kiskaltzen jartzeko desiratzen, baina hemendik urruti bada hobe baino hobeto.

Agian uda ez da horrenbeste ezberdintzen beste hiru urtaroetatik, udan egin behar duguna ere, ez dakit zein indarrek, ezarrita baitago. Adibidez, abuztuan bidaiatzea tokatzen zaigu. "Betebehar" honi beste ñabardura bat gehitu behar zaio.

**"Eguzki azpian kiskaltzen jartzeko desiratzen, baina hemendik urruti bada hobe"**

Maiz, buruan biraka izaten dugu ametsetako bidaia, eta geure buruari udaran joango garela esan ohi diogu. Uda hurbiltzen denean bidaia agentzia batera joaten gara eta bertako "eskaintza berezi" direlakoak begiratzen hasten gara liluraturik, eta bat-batean urte osoan buruan izan dugun bidaia urrutira joaten da.

Jada, bizitzako beste hainbat aspektutan gertatzen zaigun bezala, ez dugu gure desioen arabera bidaiatzen, kanpotik datozkigun eskaintzen arabera moldatzen ditugu gure ametsetako bidaiak.

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

GOROSTI
Taberna
Ondo pasau Antzuolako jaixak!
943 76 62 96
Zurrategi plaza
ANTZUOLA

OKINDEGIA
GOXOTEGIA
DAZTAKETA
KROISSANTEGIA
ONDO PASAU JAIXETAN!
ALTZARTE
Kalebarren 18. Tel.: 943 76 62 94
ANTZUOLA

**ETXEBIZITZAK** > TASATUAK URUBURUN

# Irailean hasiko dira Uruburuko etxe tasatuak egiten

Guztira, 18 etxebizitza izango dira eta 27 lagunek eman dute izena; horietatik hiru lagunen eskariak ez dituzte onartu

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA
Asteon kaleratu dute Uruburuko etxebizitza tasatuetarako izena eman dutenen zerrenda. Guztira 18 etxebizitza izango dira eta zozketa egin ostean, aukeratutakoen izenak hilabete honen amaierarako jakinarazteko asmoa dute. Lanak, berriz, irailaren amaieran hasiko dituzte eta gehienez urte eta erdiko epea izango dute amaitzeko.

Hirualde Bat enpresak egingo ditu lanak Uruburun, gaur egun elkarri atxikitako etxebizitzak eta familia bakarrekoak eraikitzen diharduten lekuan.

Etxebizitza gehienak bi logelakoak izango dira 60 eta 70 metro koadro artekoak; eta bi etxebizitza hiru gelakoak eta 75 metro koadrokoak. Gainera, guztiek izango dute garajea, baita trasteleku itxia ere.

**FAMILIA BAKARREKO GEHIAGO**
Bestalde, bigarren arean, Sesto ondoko lurretan familia bakarreko etxebizitzak egiteko asmoa atzeratu egingo da oraingoz.

Diputazioan proiektu hori etenda daukate. Izan ere, aurrez saihesbidearen bigarren zatiaren proiektua egin behar dute, eta Bergararako bidean biribilgunea aurreikusita dagoenez, non egingo duten erabaki bitartean etxebizitzen proiektuak ez du aurrera egingo. Lur horietan familia bakarreko 16 etxebizitza ziren egitekoak baina baliteke kopurua ere aldatzea.

## Behin-behineko zerrenda

**ONARTUAK**
Arianne Perez Brasa
Joseba Julen Barrutia Ule
Iban Arantzabal Arrieta
Itziar Zabala Arbulu
Eneko Arantzeta Gutierrez
Raul Lopez Gonzalez
Xabier Arantzabal Azpitarte
Alain Elorriaga Royuela
Enrike Elkoro Sarasua
Jone Muxika Sarasketa
Miren Zubizarreta Bolinaga
Igor Arizmendiarrieta Barrero
Jon Ormaetxea Saiz
Unai Garro Arrazola
Idoia Errasti Ojanguren
Etor Sarasua Mendizabal
Txomin De Vega Izagirre
Mikel Juaristi Alonso
Manuel Montiel Gonzalez
Rakel Urien Eguren
Iratxe Uzuriaga Olaortua
Iñigo Ibaibarriaga Gorospe
Ana Askasibar Errasti
Igor Iglesias Alaminos

**BAZTERTUAK**
Azahara Montes Del Rio
Estibaliz Askasibar Ardantza
Oskar Askasibar Zubizarreta

# Egokirekin 22 lagun joan dira Pirinioetara

Egoki elkarteak antolatuta 22 lagunek Pirinioetara irteera egin zuten asteburuan. Zapatuan ibilaldia Lintzan abiatu eta Hiru Erregeen Mahaia mendia igo ostean, batzuek Auñamendira jo zuten, gainontzekoek aterpetxera. Domekan 16 lagunek kanoi jaitsiera egin zuten Hechon, beste batzuek Ezkaurre mendira joan ziren eta eskalada egin zuten besteek. Hurrengo irteera Midi D'Ossaura egingo dute seguru aski, baina oraindik zehazteke daude irteera horren nondik norakoak.


AITOR GARATE

> FUTBOLA
### Bolinagak eta Ormaetxeak asmatu dute kiniela

Futbol taldeak Munduko Futbol Txapelketa dela-eta kiniela antolatu zuen astebururako. Iraitz Bolinagak eta Mikel Ormaetxeak asmatu zuten finalean banako berdinketa izango zela eta Italia izango zela txapelduna. Emaitza hirugarren batek ere asmatu zuen, Lorea Larrañagak, baina Frantzia ipini zuen irabazle kinielan eta penaltiek eskuetatik kendu zioten saria.

Kinielaren irabazlearendako saria (bi txuleta eta taldeko kamiseta) zozketatu beharrean, afari batekin ospatzea erabaki dute Iraitz Bolinagak eta Mikel Ormaetxeak. Bi horiek, gainera, futbol talde berriko jokalariak dira. Beraz, ea kiniela asmatzeko erakutsi duten trebezia futbol zelaian ere erakusten duten irailean hasiko duten denboraldian.

**ERAKUSKETA** > ESPAINIAKO GERRA

# Errepresioaren testigantza Espaloian

Antolatzaileek erakusketa ibiltaria osatu nahi dute Debagoieneko fusilatuen senitartekoek lagatako argazkiekin

**I.A.** > ELGETA
Uztailaren 20ra bitartean ikusgai izango da Espaloian Espainiako gerran fusilatutakoen gaineko testu eta argazki erakusketa. Batez ere Debagoieneko jendearen erreferentziak ikusiko ditugu bertan.

Zazpi paneletan, irudi eta testu bidez ibarrean gerra garaian bizi izandako errepresioaren berri eman nahi diete hura bizi izan ez zutenei; eta garai haiek gogorarazi gerra sasoian bizi zirenei.

**ARGAZKIAK LORTZEKO ASMOA**
Gerraren hasieraz, Elgetan egondako errepresioaz, heriotza zigorraz, euskararen aurkako errepresioaz, isunez, lantokietako errepresioaz eta Gurseko kontzentrazio eremuetan debagoiendarrek pairatutakoez dihardute panel horietan.

Erakusketa ibiltaria da eta antolatzaileen asmoa da herrietan barrena aurpegiak ipintzea izenei. "Izenak identifikatu arren ezinezkoa zaigu argazki guztiak lortzea; pixkanaka osatu nahi dugu erakusketa izenei dagozkien argazkiak senideen bitartez eskuratuz", dio antolatzaile batek.

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

RECYDE
RECYDE, S.A.
Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es
AENOR
ER
Empresa Erregistratua
ER-0182/2/95
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949



NAFARRATE Argazkian, Juan Luis Nafarrate azaltzen da, tiratzaile lanak egiten; lehiaketa 200 platieretara zen. E. ULLIBARRIARANA

**KIROLA** > PLATER TIROA

# Hiru sari ekarri dituzte Andorratik plater tiratzaileek

La Rabassan jokatu zuten lehiaketa; Aramaiotik hiru tiratzaile joan ziren eta beste bat Bedoñatik

UBANE MADERA > ARAMAIO

Joan den asteburuan jokatu zuten txapelketa. 120 lehiakidek parte hartu zuten, Estatukoak, Frantziakoak (gehienak) eta Andorrakoak. Euskal Herritik zazpi tiratzaile joan ziren, tartean, hiru aramaioar: Enrike eta Iñaki Ullibarriarana, eta Juan Luis Nafarrate; eta Juan Inazio Garai bedoñarra (Arrasate).

Lehiaketa, Gran Premio La Rabassa izenekoa, 200 platereta-ra izan zen.Kategoriaka sailkatuta lehiatu zuten tiratzaileak.

**HIRU SARI ETXERA**

Hala, Enrike Ullibarriarana bigarren geratu zen hirugarren kategorian eta hamabigarren sailkapen orokorrean. Are gehiago, bere kategoriako lehenengoaks plater bakarreko aldea atera zion: Enrikek 200etik 188 plater bota zituen eta lehenengoak, berriz, 189. Beraz, sariarekin itzuli da hura etxera.

Eta sariarekin bueltatu dira, baita ere Juan Luis Nafarrate (hamalaugarren); eta Juan Inazio Garai (hirugarren, beteranoetan).

**DOMEKAN, AREXOLAN**

Bestalde, oraingo asteburuan Arexolako jaietan, tiroketa egingo dute Kurtzetan, 17:00etan. 15 platieretara da. Parte hartzeko hara joatearekin nahikoa da.

Horrez gainera, jakinarazi digute San Juanetako tiroketa joan den zapatuan jokatu zutela. Jon Uribarrenek irabazi zuen, anaia Mikel izan zen bigarren eta Ander Garate hirugarren.

**JAIAK** > KARTA JOKOAK, ARRAKASTATSU

# Karta-jokoen emaitzarekin oso pozik daude erretiratuak

Nagusiekin batera, gazteak ere ibili ziren karta-jokoan, zein baino zein finago

U.M.> ARAMAIO

Eten barik dabiltza azkenaldian Aramaioko erretiratuak karta-jokoan. Gasteizko txapelketan lehiatu eta gero, herriko jaietan ere ibili ziren karta-jokoan. Horren adierazle da zeuei erakusteko utzi diguten argazkia. Mus txapelketako irabazleen argazkia da, eta ikusten duzuen moduan eta karta-jokoetan ibiltzeko ohitura batez ere pertsona nagusiek izan arren, jaietako txapelketara herriko zenbait gazte ere gerturatu ziren. Hala kontatu digu erretiratuen elkarteko idazkari Maria Angeles Garatek.

**HORRELA JARRAITZEKO ASMOA**

Hark kontatu digu 35 bat lagunek parte hartu zuela Udalak antolatutako karta-jokoen lehiaketan: "Oso interesgarria izan zen, oso erantzun ona lortu genuen eta horrela jarraitzeko asmoa daukagu. Oraindik ez dakigu noiz antolatuko dugun beste txapelketa bat, baina seguru egingo dugula".



IRABAZLEAK Ramon Nafarrate, Argi, Amaia Belloso eta Maria Angeles. ALAIAK



ZUIAKO KOADRILA

# Erretiratuak Añanako koadrilan bisitan

Ederki asko ibili ziren Aramaioko erretiratuak Añanako koadrila bisitatzen, Erretiratuen IX. Topaketetan. Aramaiotik 43 lagun joan ziren (Oletakoak barne). Eta argazkiak erakusten duen moduan, Baronaren dorretxea bisitatu zuten, Villanañen. Luxuzko bisita izan zuten; izan ere, Baronatarren oinordeko Rodrigo Baronak erakutsi zizkien dorretxearen ezaugarriak.

Bisitaren ostean, Zuhatzu Kuartangora joan eta hango bainuetxean meza entzun zuten; han bertan bazkaldu zuten eta gero, topaketetan parte hartu zutenen artean opariak zozkatu zituzten. Horren ostean, dantzan, paseoan eta kantuan ibili ziren erretiratuak, bainuetxean. Antolatzaileek, Zuiako koadrilakoek, irteeraren oso balorazio ona egin digute.

> GIZARTE ZERBITZUAK

## Ohe artikulatuen mailegu zerbitzua ipini du Udalak

Gaixoendako prestatuta dauden oheen mailegu zerbitzua abiarazi du Udalak, doan. Ohe horiek artikulatuta daude; nahiko altuak dira eta burua zein oinak altxatzeko aukera ematen dute.

Hala, mota horretako ohe bat behar duenak udaletxean eska dezake, herritarrei lagatzeko halako bi eskuratu dituzte-eta, Zuiako Koadrilako gizarte zerbitzuei esker. Eskaera egiteko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan aldez aurreko hitzordua eskatu behar da; han bakoitzaren kasua baloratuko dute.

Ohea utziz gero, eta ahal denean, udaletxea bera arduratuko da ohea dagokion familiari eramateaz; baina Udalak ezin badu, familiak arduratu beharko du. Ohea itzultzeko, berriz, ez dago data finkorik; beharrak zehaztuko du hori.

**HIRIGINTZA** > LORATEGIA TXUKUNTZEKO ASMOA

# Udaletxe alboko hesia aldatu eta lorategia txukundu gura du Udalak

Lanok zatika egingo dituzte, baina atzeko hesia lehenbailehen aldatu gura du Udalak; aurrekontuak eskatu ditu dagoeneko



**LORATEGIA** Hesiak zulo handia dauka eta hara eta hona ibiltzen dira umeak, horregatik aldatu gura dute. GOIENKARIA

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Udaletxe alboan dagoen lorategia umeentzat gertatuta dago. Jolas egiteko tresnak eta iturria daude, baina herriko umeek gutxi erabiltzen dute. Hori ikusita, biziberritzea erabaki du Udalak.

**PINUAK BOTA**

Loragiaren atzeko partean egurrezko hesia dago, baina zuloa dauka eta umeak hara eta hona ibiltzen dira. Hori konpontzea izango da Udalaren lehen lana: "Horma egingo dugu azpian eta gainean hesia jarri. Aurrekontuak eskatuta dauzkagu eta horren arabera aukeratuko dugu hesia", azaldu zuen Joxerra Perez alkateak. Uztailean bertan hasi gurako lituzke lanok alkateak.

Lehenbailehen egin gura duten beste lan bat lorategiko hiru pinu handiak botatzea da. "Pinuen sustraiak arazoak sortzen hasi direla uste dugu alboko etxe batean ur hodietan arazoak dituztelako, eta adarrak ere handiegiak dituzte", argitu zuen alkateak. Hala, arazo gehiago sortu aurretik botatzea erabaki dute, eta euren ordez txikiagoak diren beste zuhaitz batzuk landatuko dituzte. Belarra, ostera, bere horretan utziko dute, eta pinuen itzal barik biziago haziko da.

Azken pausoa lorategiko jolasak aldatzea izango da. Lanok zatika egingo dituzte; hortaz, jolasen gaineko erabakirik oraindik hartu gabe daukate; daudenak txukundu eta besteren bat jartzea izan daiteke aukeretako bat. Ume txikientzat txoko aparta da udaletxe albokoa, eta egingo dituzten konponketekin benetan dotore geratuko da.

## Txapelketa denboraldiari agur esateko

Pilota denboraldiari agur esateko txapelketa jokatu zuten herriko hamar pilotarik. Guztientzat egon zen saria eta Labideak eskainitako meriendarekin bukatu zuten. Irailerako aurreikuspenak egin dizkigute taldekideek: "Indartuta hasi gura dugu ikasturtea, mutikoak maila hartzen has daitezen", esan zigun Txema Fernandezek. Hori horrela, kanpora txapelketak jokatzera joatea ez dute baztertzen.



TXEMA FERNANDEZ

> INTERNET

## 'Aurkitu zure liburua' ikastaroa hilaren 17an, 10:00etan

KZguneko arduradun Aitor Madrid Gatzagako txokora hurreratuko da astelehenean, uztailak 17. 09:00etatik 13:00etara bitartean egongo da bertan, herritarren zalantzak eta eskaerak erantzuteko. Gainera, *Aurkitu zure liburua* izeneko ikastaroa emango du 10:00etatik 11:00etara. Oporrak gainean ditugu eta garai ona izaten da irakurtzeko. Gustuko dugun liburuaren edo argitaratu berri direnen argibideak izateko Interneteko zein helbidetara jo erakutsiko du Aitor Madridek.

Uztailaren 17a: 095 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen txokoa

**Sariak astero!**

Astelehenean, uztailaren 17an sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

**094 zozketako saridunak**

**Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).**
- Arazeli Azurmendi Txintxurreta (Bergara)
- Ion Errasti Elgarresta (Aramaio)



**095 zozketako sariak**

6 lagunentzako
EUSKALTEL EUSKADI
taldeko 12 kamiseta.
(saridun bakoitzari 2 emango zaizkio)



**Baldintzak**

- *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota:
24 euro
2006 bukaera arte

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



**UBERA ETA LAZKANO** Martitzen ilunkeran, Uarkapen, entrenamendu saioa hasi baino lehen. Astean birritan elkartzen dira entrenatzeko; udan, baina, nahikoa dute partiduak jokatzearekin. XABIER URTZELAI

**PILOTA** > ORDAGO ENPRESAN DABILTZAN AITZOL LAZKANOREKIN ETA XABIER UBERAREKIN IZAN GARA

# "Aldagelara broma giroan sartzen ez dena etxera bidaltzen dugu"

Bi pilotari horiek urtebete daramate Ordago pilota enpresan, eta jarraitzeko asmoz dabiltza

Datozen hilabeteotan 50 pilota jaialdi ingurutan izango dira: Leonen, Burgosen, Salamancan...

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Aitzol Lazkano (Arrasate, 1980) eta Xabier Ubera (Elgeta, 1979) Ordago enpresa sortu zutenetik daude taldean: "Badira hiru edo lau urte Ordago sortu zutenak ezagutzen ditugula. Eurekin lagunartean jokatzen hasi ginen, eta enpresa sortu zutenean eurekin jarduteko proposatu ziguten". Orain dela urtebete izan zen hori: "Urte ona izan da, gustura ibili gara", esan digute biek. "Urtebete dela hainbat egunkaritan azaldu zen profesional bilakatu behar ginela, eta jendeak zorionak eman zizkigun. Guk, baina, argi geneukan pilotan zein mailatan jardun behar genuen; ondo dakigu ez gaudela enpresa handietako pilotarien mailan".

**EGUTEGIA, BETE-BETETA**

Uberak esan digu udan 50 hitzordu inguru izango dituztela, gehienak abuztuan eta irailean, eta joan den urtean guztira 70 pilota partidutan hartuko zuela esku: "Lesiorik ez badugu, ondo egin daiteke partidu kopuru hori". Gainontzeko profesionalek ez dituzte askoz ere norgehiagoka gehiago jokatzen: "Titin gauza da urtean 100 partidu jokatzeko, baina eskuak zaintzea ere komeni da", gaineratu du Lazkanok.

**BROMA GIROAN, HOBETO**

Elkarrizketarako Uarkape pilotalekuan genuen hitzordua egina, eta pilotaleku txikian aurkitu ditut biak, pilotan baino bata besteari adarra jotzen. Lazkanok enpresako elastikoa ekarri dio Uberari, erretratuak txukunago ateratzeko: "Atzean honen abizena jarri beharrean *pakete* jarri beharko luke", Lazkanok. "*Pakete* I.a neurean eta *pakete* II.a zeurean", Uberak. Argazki saioan ere saltsan ibili dira, barrez, eta bistan da taldean ere aldarte berdintsuan ibiltzen direla: "Oso giro ona dugu. Pilotari berri bat azaltzen bada aldagelara, eta ez bada broma giroan sartzen, etxera bidaltzen dugu". Hamasei pilotari inguru daude Ordagon: "Mikel Goñi eta Medina beste maila batean daude, baina gainontzekook oso maila parekoa dugu. Horrekin batera, arlo ekonomikoan ere pilotarion artean oso alde txikia dago, eta esango nuke talde barruan ondo konpontzeko ere hori garrantzitsua dela, esan digu Elgetakoak". Aitzolek jarraitu du berbetan: "Badakigu enpresa handietan ez dagoela horrelako girorik. Hainbat kasutan, aldagelara sartzen direnean bakoitza berera ibiltzen da, ondokoari kasu handirik egin barik. Izan ere, enpresa horietan pilotariek irabazten duten zenbatekoaren artean alde handia egoten da".

**OPORRAK PILOTAN**

Aurten, bigarrengoz, pilotako jaialdi batetik bestera igaroko dute bi horiek uda, kilometro asko dituzte aurretik: "Gustura gauden artean jarraituko dugu. Gainera, nahiz eta pilotan jokatu oporretara joateko beste modu bat ere bada, leku mordoa ezagutzen dugu-eta. Askotan jaialdian esku hartu eta gero hainbat egun egiten ditugu bertan".

Lehenago aipatu ditugu datu ekonomikoak. Orain dela ez asko Frontis enpresako Inazio Errandoneak aitortu zigun Frontis enpresako pilotari gehienak pilotatik bizi zirela, hori zutela ogibide. Eta, galdera bera egin diegu Uberari eta Lazkanori: Hau da, Asegarcetik eta Aspetik kanpora badago pilotatik bizitzerik? "Ez, diru apur bat egiten dugu, baina ez bizitzeko adina. Izan ere, udan partidu asko jokatzen ditugu, baina neguan lasai ibiltzen gara, entrenatzen".

Eta, elkarrizketa egiteko behar baino denbora gehiago erabilita, partidutxoa jokatzen utzi diegu, nahiz eta berandu izan: "Lasai, honi irabazteko ez dut denbora asko behar", esan digu Uberak. Eta Lazkanok barre egin du.

ZALETASUN HANDIA

## "800 lagun egon izan dira gu ikusten"

Ordagoko pilotariek aitortu digute Euskal Herritik kanpora jokatzen dutenean harritu egiten direla Burgosko, Leongo edo bestelako lekuetan pilotarekiko zelako zaletasuna dagoen: "Jaialdia gure herrian antolatzen dugunean jende gutxi etortzen da gu ikustera. Kanpoan berriz, herrietako pilotalekuak bete egiten dira. Adibidez, partidu batean 800 ikusle izan genituen".

Jendeak hemengo pilotarako zaletasunaren gainean galdetzen ei die: "Eta, eurek zaletasun handiagoa dutela erantzuten diegu".

ESANAK

## "Pilotarekin gozatu egiten dudan bitartean jarraitzeko asmoa dut"

Xabier Ubera

## "Kilometro mordoa egingo dugu datozen hilabeteotan; orain jokatzen dugu gehien"

Aitzol Lazkano

**IGERIKETA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Debagoieneko hamabost igerilari gazte, onenen artean

## Oñatiko eta Bergarako igeriketa taldeetako hamabost ordezkari izango dira Galdakaon

## Nielka Ibargurenek eta Ander Zarketak aukerak dituzte Espainiako Txapelketarako sailkatzeko


**GIPUZKOAKO TXAPELKETAN** Bergarako hamahiru igerilarik hartu zuten esku; zazpi izango dira Galdakaon. AMAIA ANDUEZA

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Denboraldian egindako lanak Gipuzkoako Txapelketan eman zituen fruituak. Gutxieneko markak gaindituta, Bergarako eta Oñatiko igeriketa taldeetako hamabost lagun izango dira domekan Galdakaon, Euskadiko Txapelketan. Hauek dira Bergarako zazpi ordezkariak: Nielka Ibarguren (bular igeriketa), Ana Balentziaga (estilo librean), Peru Alustiza (200 estilotan eta tximeletan), Erik Gorosabel (estilo librean eta bular igeriketan), Irati Fernandez (bular igeriketan), Urki Ibarguren (estilo librean eta bizkar estiloan), eta Ander Franco (estilo librean). Horrekin batera, errelebutako lasterketetan ere jardungo dute.

### OÑATIK ZORTZI ORDEZKARI

Xabier Infantek eman digu oñatiarren zerrenda: Oier Ibabe, Ander Zarketa, Iñigo Markinez, Illargi Gorostegi, Maialen Kortabarria, Maialen Agirre, Itziar Zubia eta Aitziber Iglesias. Igerilari horiek hainbat distantziatan lehiatuko dira, bizkar, bular eta crawl modalitateetan.

Duda barik, igerilariendako urteko hitzordu garrantzitsuenetakoa izango da domekakoa. Gazte horiek hilabeteak daramatzate domekako probarako prestatzen. Lehenengo, bertara sailkatzeko egin dute lan, eta orain geratzen da azken ahalegina.

Xabier Infantek badaki igerilariek ondo egin dutela orain arteko lana, erlojuak erakusten dueta hori. Hori bai, Espainiako Txapelketarako sailkatzea beste kontu bat da: "Nahiz eta proba irabazi, gutxieneko marka gainditzen ez dutenak ez dira Bartzelonara joango. Nielka Ibarguren eta Ander Zarketa ikusten ditut horretarako gauza. Gainontzekoendako gaitza izango da, hemen ez dago sorpresarik".

Txapelketa amaituta, igerilariak itsaso zabaleko zeharkaldietan jarriko dira buru-belarri.

LASTERKETA ONA EGITEKO GAKOAK

### "Abiadura proban ezin da akatsik egin"

Lasterketa on bat egiteko zer behar den galdetu diogu Xabier Infanteri: "Hasteko, beharrezkoa da igerilaria psikologikoki ondo prestatuta egotea. Gero, eta batez ere abiadura proban, ezinbestekoa da irteera ona egitearekin batera itzulia ere ondo egitea. Horrelako proba batek 26-27 segundo irauten du, eta irteeran edo itzulia egiterakoan segundo bakarra galduz gero, akabo lasterketa dena. Erabateko mekanizazioa behar da".

Ikus itzazu argazkiak, astero, Astelehenekeo Goienkarian!

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA **II. LEHIAKETA**

**Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak**

**...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!**

**Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak**



**Har ezazu parte!**

**Baldintzak**

- Udako argazkiak izan beharko dute: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Inoiz argitaragabeak.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Argazkiak jasotzeko epea zabalik dago 2006ko irailaren 18ra (astelehena) arte.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin).
- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz *argazkiak@goiena.com* helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
  - Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate.
  - Arrasate: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
  - Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
  - Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta *jpg* formatuan.
- Parte-hartzaile bakoitzak bidali ahal izango ditu, gehienez ere, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, eta abar).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero; azken sorta, irailaren 25eko ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.
- Urriaren 2ko ASTELEHENEKO GOIENKARIAn aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epaimahaiak baloratuko ditu: gaia, kalitatea, originaltasuna, momentua, bizitasuna..., besteak beste.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAren artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, betiere egilea aipatuta.

**Sariak**

**1. saria: Olympus E-500 reflex** argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
8 milioi pixel. / Bi objektibo aldagarri: Zuiko digital 14-45 mm eta 40-150 mm. / Flash eta guzti. / 2,5 pulgadako HyperCrystal LCD pantaila.



2 3



- **2. saria:** Hoteletan gaua pasatzeko Talon Plan Card txartela.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Babeslea: kutxa

Laguntzaileak: kiñu argazkilariak, Barceló Bidaiak, GURE AMETSA JATETXEA

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa
Harpidedun egiteko:
902 36 38 51

GOIENKARIA
2006ko uztailaren 14a




TROPELA APURTUTA Ibilbidearen gogortasuna ikusita zaila izango da Elgetara tropela batera iristea. GOIENKARIA

TXIRRINDULARITZA > MENDIKO 21. KRITERIUMA

# Elite eta 23 urte azpiko onenak Elgetan izango dira domekan

Antolatzaileek 120 ziklista inguru espero dituzte domekan egingo duten Euskalduna Sariko proban; Cafes Baque taldea da indartsuena

XABIER URTZELAI > ELGETA

Domekan (10:00) lasterketan esku hartuko duten talde guztien izenematea konfirmatu barik badago ere, antolatzaileek 120 lasterkari espero dituzte Euskalduna Sariko Mendiko Kriteriumerako. Antolatzaile lanetan dabilen Emilio Mandaluniz, baina, ez dago txirrindulari kopuruarekin arduratuta: "Kantitatea baino kalitatea behar dugu". Probako izenak ondo dioen moduan, gorabehera handiko etapa izango da, igoera eta jaitsiera asko izango ditu, malda handiak tartean, eta seguru egon lasterketa erabat hautsita iritsiko dela Elgetara, 120 kilometro egin eta gero.

**AREITIO ETA ASENTZIO**

Langarikaren izenean emandako trofeoa irabazi ahal izango dute txirrindulariek proban zehar. Elgetatik Bizkaia aldera egingo dute ziklistek: Elorrio, Abadiño, Matiena (tarteko helmuga), Berriz, Zaldibar, Areitio gaina (mendiko saria), Ermua, Eibar (Kantoi gasolindegian tarteko helmuga), Eibarko saihesbidea, Maltzaga, Soraluze, Bergara, Angiozar, Asentzio gaina (mendiko saria), Elgeta, Elorrio, Berriz, Abadiño, Atxondo, Elorrio, Asentzio gaina (Langarika saria), Kanpanzar, Epele, Bergara saihesbidea, Elgeta. Duda barik, Elgetakoa denboraldiko proba gogorrenetakoa da.

Antolatzaileek espero dute 13:00ak aldera iritsiko direla Elgetako helmugara. Emiliok ondo daki zeintzuk izan daitezkeen etapako gakoak: "Elorriotik Asentzioko gainera bidean geratuko dira lehenengo txirrindulariak atzean. Aurrerago ere hainbat leku daude tropela apurtzeko aproposak, baina azken kilometroetaraino talde batek eusten badio, Elgetako azken igoera erabakigarria izango da".

**CAFES BAQUE, INDARTSUENA**

Emiliok ez digu faboritoen izenik esan gura izan, baina orain arte Euskalduna Sarian egin dituzten 13 lasterketetan Cafes Baque taldeak erakutsi du indartsuena dela. Atzetik dabiltza Caja Rural, Bidelan Kirolgi eta Seguros Bilbao moduko taldeak, baina ez dute Ruben Gorosperen taldeak duen jarraikortasuna (taldekako sailkapenean sei lasterketa irabazi dituzte). Egia da, baita ere, azken lasterketetan (Leintz Gatzaga eta Irun) Caja Rural taldea indartsuago ibili dela; aurreko postuetan izan dituzte lasterkariak, baina ez dute asmatu lana biribiltzen, beste talde batzuetako ziklistendako izan da-eta garaipena: Alfus Tedes taldeko Jon Pena nagusitu zen Gatzagan eta Bidelan Kirolgiko Iker Aramendia izan zen Irunen onena. Cafes Baquek, berriz, ondo errematatzen ditu lasterketak; Seguran jaun eta jabe izan ziren.

ETA IBARREKOAK?

### Azpiru Inmobiliaria lana ondo egiteko asmoz etorriko da

Talde horretan dabiltza Debagoieneko ziklista gehientsuenak. Iker Amutxastegi, taldeko zuzendariak, baieztatu digu Joseba Itziar (Oñati), Gurutz Larrea (Antzuola) eta Eddy Perez (Arrasate) lasterketan izango direla: "Ander Nafarratek erorikoa izan zuen apirilean, eta ez da errekuperatu. Eta, oraindik ez dakigu Unai Arantzabal (Bergara) domekan Elgetan izango den; bizkarreko minekin dabil, eta ikusi egin beharko da". Euskalduna Sarian maila oso ona dagoenez, Ikerrek onartu digu gaitza izango dela aurrean ibiltzea, baina lana ondo egiteko asmoz datoz.

PILOTA > ANTZUOLAN BI JAIALDI GAUR ARRATSALDEAN

## Gazte mailako pilotariak eta ondoren, profesionalak

Antzuolako jaien barruan, pilota izango da arratsaldeko hitzorduetako bat

X.U. > ANTZUOLA

Antzuolako pilota elkarteak pilota ikuskizunekin berotu gura du gaurko arratsaldea. Hala, gazte mailako ibarreko pilotariekin zeingehiagoka erakargarria antolatu dute arratsaldeko 18:00etarako. Partidu hori jokatutakoan beste hainbat ekintza egongo dira jaien barruan, eta geroago egingo dute Garfe pilota enpresakoek norgehiagoka. Hala, gazte mailako Mendizabalek eta Agirianok Atxotegiren eta Azkarateren kontra neurtuko dituzte indarrak.

Profesionaletan, berriz, Antzuolakoek norgehiagoka interesgarriaren alde egin dute. Berraondo eta Muruamendiaraz aurrez aurre jarriko dituzte. Berraondok Zezeagaren laguntza izango du, eta Muruamendiarazek Sukiarena.

TENISA > DEBAGOIENEKO FINALA, DOMEKAN

## Juan Luis Etxaniz eta Jorge Aranes, aurrez aurre

Joan den astean finalerdiak gaindituta, Zubikoan jokatuko dute txapelketako finala

X.U. > OÑATI

Domekan jokatuko dute Juan Luis Etxanizek eta Jorge Aranesek Debagoieneko Tenis Txapelketako finala. Bi tenislari horiek erakutsi dute 18 lehiakideren artean onenak direla, baina onena nor den erabakitzea falta da. Domekan, Zubikoan 11:00etan hasiko duten finalean erabakiko dute hori.

Lehenago jokatuko dute joan den astean finalerdiak gainditu ez zituzten Jorge Caballerok eta Roberto Irizarrek (09:30). Kontsolazio finala izango da hori.

**FINALERDIETAN ONDO**

Finalera sailkatu diren bi jokalariek joan den asteko finalerdietan erakutsi zuten gorputzaldi onean daudela. Etxaniz (6-1) eta (7-5) gailendu zen. Aranesek, berriz, (6-2) eta (6-3) irabazi zion Robertori.



FINALERDIA Etxanizek Caballerori irabazi zion, 6-1 eta 7-5. ARANTZAZU EZKIBEL

> ATLETISMOA

### Gipuzkoako selekzioa bigarren sailkatu zen Frantziako Tolosan egindako txapelketan

Joan den asteburuan egin zuten Frantziako Tolosan Lurraldekako Selekzioen Arteko Joko Europiriniarrak. Gipuzkoako selekzioarekin batera Languedoc, Midi Pyrenees eta Andorrako selekzioak lehiatu ziren, eta bai mutilen eta baita emakumeen txapelketetan Gipuzkoa bigarren sailkatu zen, Midi Pyrenees-en atzetik.

Gipuzkoako selekzioa ordezkatzen bi arrasatear izan ziren: Lander Errasti eta Remi Diosdado. Lander Errastik 4,20 metroko jauzia egin zuen pertikarekin, eta bera izan zen atleta azpimarragarrienetako bat. Bestalde, Remi Diosdadok 100 eta 200 metroko lasterketan bere marka pertsonalak gainditu zituen.



**> DISKOAK**
Cool Panicen *Nowhere earth* eta Mahaster River grabaziotan **> 45**




**> 'TAGZANIA.COM'**
Mundu osoko lekuak aurkitzeko aukera eskaintzen du **> 51**

**> ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL**
Gaztetxotatik dauka idazteko ohitura, eta orain dela gutxi Idazle Eskolan ibili da. Renotik bueltan, bere egitasmoen berri eman digu Zuriñek **> 50**




supercools.


Los Cretinos.


Enboskada.


Denial.



Potemkin.


Sharon Stoner.


Isarevolution.


N_oph.


Muted.

DANBAKA
DEBAGOIENEKO 1. MUSIKA LEHIAKETA

# Grabazioak aurkezteko epea zabalik

Irailaren 19an bukatuko da kantuak aurkezteko epea

Bakarlariei zuzendutako sari berezia sortu dute

**IKER BARANDIARAN** > ELGETA
Danbaka Debagoieneko Musika Lehiaketa 2 urtean behin egingo zutela iragarri zuten antolatzaileek, Goienak eta Espaloia Kafe Antzokiak. Eta hala egin dute. Dagoeneko kalean dago iazko irabazleen, Sharon Stonerren, diskoa, eta heldu da bigarren edizioa abiarazteko unea.

Lehenengo edizioak musika taldeen eta ikus-entzuleen harrera itzela izan zuen, eta hala izan da baita ere taldeek izan duten oihartzuna.

Aurtengoan, gainera, antolatzaileek hainbat berrikuntza eta hobekuntza gehitu dizkiote lehiaketari: sari gehiago, eta ikus-entzuleen esku hartze handiagoa, besteak beste. > 44

ARGAZKIAK: GOIENKARIA

**MUSIKA** > DANBAKA DEBAGOIENEKO II. MUSIKA LEHIAKETA

# Berrikuntza askorekin dator Danbaka musika lehiaketaren bigarren edizioa

Herenegun aurkeztu zuten Elgetako Espaloia Kafe Antzokian

Hiru kantuz osatutako grabazioak aurkezteko epea zabalik dago irailaren 19ra arte

Diskoaren grabazioa ordaintzeaz gain, antolatzaileek disko hori kaleratuko dute




**ANTOLATZAILEAK ETA MUSIKARIAK** Goiena eta Espaloiko ordezkariez gain –antolatzaileak–, musikariak ere izan ziren protagonista prentsaurrekoan. MAIDER ARREGI

**IKER BARANDIARAN** > ELGETA

Herenegun, eguaztena, aurkeztu zuten Danbaka Debagoieneko II. Musika Lehiaketa prentsaurrekoan. Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izan zen ekitaldia eta Espaloiko arduradun Samu Gorrotxategik, Goiena Telebistako Amagoia Lasagabasterrek eta Danbakako koordinatzaile Iker Barandiaranek azaldu zituzten lehiaketaren nondik norakoak.

Horrez gain, azalpenen ostean, lehiaketaren lehenengo edizioko irabazle Sharon Stoner taldeko kideek emanaldi berezia egin zuten. Taldeko Iñigo, Egoitz eta Mikelek hiru abestiz osatutako kontzertu akustikoa egin zuten, Malenkoniako Iñigoren laguntzarekin.

**IBARREKO TALDEAK SUSTATZEA**

Danbaka lehiaketa Goiena multimedia enpresak eta Elgetako Espaloiak antolatu dute, Gaztekutxak lagunduta. Horren helburua da ibarreko musika taldeak sustatzea eta gazteei alternatibak eskaintzea.

Aurreko edizioak arrakasta eta harrera ezin hobea izan zuen, eta antolatzaileek iragarri zuten bi urtean behin errepikatuko zutela. Hala, herenegun izenematea zabaldu zuten eta talde eta bakarlariek irailaren 19a aurretik aurkeztu beharko dituzte hiru kantuz osatutako lanak. Horrekin batera, taldearen gaineko biografia txiki bat, argazki pare bat eta harremanetan jartzeko telefono zenbaki edo helbidea jarri beharko dituzte.

Arrasateko 132 posta-kutxara edo *danbaka@danbaka.com* helbidera bidali beharko dituzte lanok. Bestela, aukera dute Goienako ordezkaritzatara eramateko.

**IRABAZLEEN DISKOA KALERATU**

Edizio honetan ere emanaldi guztiak Elgetako Espaloia Kafe Antzokian egingo dituzte. Urritik abendura bitartean izango dira, egubakoitzetan. Horren ostean, finala egingo dute 2007ko urtarrilaren hasieran.

Antolatzaileek hainbat berrikuntza iragarri zituzten: batetik, jakinarazi zuten edizio honetan talde irabazlearen diskoaren grabazioa ordaintzeaz gain, antolatzaileak lan hori kaleratzeaz arduratuko direla. Horretarako, Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen laguntza izango dute.

**BAKARLARI ONENARI SARIA**

Aipatutako sari nagusiaz eta ikusleek aukeratutako taldeak jasoko duen sariaz gain, beste sari berri bat asmatu dute: "Aurreko edizioan ikusi genuen bakarlari asko aurkeztu zirela. Horregatik, erabaki dugu bakarlari onenari sari bat ematea", azaldu zuten antolatzaileek.

Bestalde, izenemateari dagokionez, Goiena eta Espaloiko ordezkariek jakinarazi zuten iazko hiru finalistek (Sharon Stoner, Muted eta Potemkin) ezingo dutela esku hartu. Sailkatu ziren gainontzeko taldeek, berriz, izango dute aukera hori, baldin eta aurkeztutako hiru abestiak berriak badira.

**IKUSLEAK ERE EPAIMAHAI**

Aurten ere antolatzaileek epaimahaia aukeratu dute taldeak sailka eta balora ditzan, baina epaimahaiak entzuleen laguntza izango du. Hain zuzen ere, aurkezten diren taldeen artean 20 sailkatuko dira zuzenean jotzeko. Horietako 19 epaimahaiak aukeratu eta aditzera emango ditu. Horren ostean, entzuleek aukera izango dute *danbaka.com* webgunean parte-hartzaile guztien kantuak entzun eta sailkatuko den 20. taldea aukeratzeko.

**'DANBAKA.COM', ERREFERENTZIA**

Lehiaketaren oinarriak, edizio honetan emango dituzten sariak eta bestelako zehaztasun guztiak *danbaka.com* webgunean daude eskuragarri dagoeneko. Horrez gain, lehiaketaren nondik norako guztiak han batuko ditutzte.

Aurreko edizioan moduan, oraingoan ere Danbakak oihartzun eta jarraipen handia izango du Goienak kudeatzen dituen hedabideetan. GOIENKARIAK egubakoitzeko emanaldiak aurkeztuko ditu; *Asteleheneko Goienkaria*-k emanaldi horien kronika eta argazkiak batuko ditu; Arrasate Irratiak kontzertu guztiak emango ditu eta elkarrizketen bidez taldeen gaineko informazioa landuko dute; eta GOITBk emanaldi guztiak jasoko ditu, eta talde guztien gaineko elkarrizketak eta erreportajeak egingo ditu.

**SOINUA HOBETU**

Horren harira, antolatzaileek saiakera berezia egingo dute emanaldien soinua telebistan hobeto jasotzeko.

**JAKIN BEHARREKOAK**

**> HIRU ABESTI ORIGINAL, IRAILAREN 19RAKO**
Zabalik dago izenematea irailaren 19ra arte. Hiru abesti original, biografia txiki bat, bi argazki eta harremanetarako kontaktu bat bidali beharko dira Arrasateko 132 posta-kutxara edo *danbaka@danbaka.com*-era.

**> BAKARLARIAREN SARIA SORTU DUTE**
Lehiaketako sari nagusiaz eta ikusleek aukeratutako taldeen sariaz gain, antolatzaileek bakarlari onenari beste sari bat emango diote.

**> IRABAZLEAREN DISKOA KALERATZEKO KONPROMISIOA**
Goienak eta Espaloiak erabaki dute lehiaketako irabazle nagusiari diskoaren grabazioa ordaintzeaz gain, emaitza ere kaleratzea. Horretarako Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen laguntza izango dute.

**> IAZ SAILKATUTAKOEK HIRU KANTU BERRI AURKEZTU BEHAR**
Aurreko edizioan sailkatutako taldeek, hiru finalistek ezik, edizio honetan esku hartzeko aukera izango dute. Baina, baldintza bat bete beharko dute: aurkeztutako hiru kantuak berriak izan beharko dira.

**> 'DANBAKA.COM'-EN BITARTEZ, ENTZULEEN ESKU-HARTZEA**
Goienak orain dela gutxi sortutako *danbaka.com* webgunean bestelako musika albiste eta ibarreko taldeen blogak lantzeaz gain, Danbaka lehiaketaren gaineko zehaztasun zabalak batuko dituzte. Horrez gain, Espaloian zuzenean jo eta lehiatu behar ditu 20 talde sailkatzerako orduan horietako bat entzuleek aukeratuko dute *danbaka.com*-en abesti guztiak entzun ostean.




*Danbaka.com*-en daude lehiaketaren oinarriak. GOIENKARIA

**MUSIKA** > LAN BERRIAK

# Cool Panicen diskoa kalean eta Mahaster Riverrena labean

'Nowhere earth' euren hirugarren lana kaleratu dute Cool Panic taldekoek; Mahaster Riverrek diskoa grabatu berri du Garate estudioetan

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Cool Panic bergarar taldearen hirugarren diskoa kalean da. *Nowhere earth* izenburupean, hamar kantu batu dituzte. Itziar Iturbe (ahotsa eta pandereta), Alex Muela (gitarra), Joseba Lasa (gitarra), Txarli (baxua) eta Iker Narvaez (bateria) ditugu Cool Paniceko kideak. 1998an sortutako taldea eta, esan bezala, aurretik bi disko kaleratu dituzte: *Made of stone* (2001) eta *Soul on fire* (2004).

Rock-and-rollaren eta poparen arteko hamar kantu dira *Nowhere earth* diskoan. Alex Muelaren hitzetan, "orain arte egin dugun diskorik onena dela esango nuke. Badaramagu urte dezente elkarrekin eta nabaritzen da eboluzio hori. Abesti landuagoak dira; doinu melodikoagoak egin ditugu oraingoan eta *Show me the way* kantua, esaterako, pop kantua dela esango nuke". Hain zuzen ere, aipatutako kantuarekin bideo-klipa egin dute Josu Otaegirekin eta laster telebista kate ezberdinetan ikusi ahal izango da. Kantu denak Cool Panicenak dira, Screaming Trees taldearen *Witness* kantuaren bertsioa salbu.



**MAHASTER RIVER** Argazkian, Fernando Laskurain Garate estudioetako Aritz Harreguy soinu teknikariarekin. GOIENKARIA




Cool Panicen *Nowhere earth*.

Usurbilgo Aeroson estudioetan egin zuten grabaketa eta aurreko *Soul on fire* diskoarekin gertatu bezala, GP disko etxeak kaleratu du. Hamar eurotan dago salgai Cool Panicen lan berria. Irailetik aurrera hainbat kontzertu emango dituzte. Aurretik, abuztuan, baliteke Donostiako FNACen diskoa aurkeztea.

**MAHASTER RIVER, GRABATZEN**

Bestalde, Mahaster River taldeko kideak Andoaingo Garate estudioetan izan dira egunotan, euren lehenbiziko diskoko kantuak grabatzen. Aritz Harreguy soinu teknikaren laguntzarekin, dozena bat abesti grabatu dituzte. Pare bat moldaketa kenduta, gainerako kantuak taldeak konposatutakoak dira. Laster berriro itzuliko dira Andoainera, nahasketak eta azken errematea egiteko. Dena dela, gustura geratu dira Andoainen egindako lanarekin.

Unai Azkaratek, Mikel Azkargortak (Cool Paniceko kide ohia) eta Fernando Laskurainek osatzen dute taldea. Hamabi sokako gitarrarekin, baxuarekin eta gitarra elektroakustikoarekin, emanaldi akustikoak dituzte gustuko. Allman Brothers, Bob Dylan edo Black Crowesen kantuak zein euskaraz sortutako abesti propioak jotzen dituzte.

Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**

**ABOKATUAK**

**BERNARDINO MAIZTEGI**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**BIDEO EKOIZPENAK**

**ISLADA MULTIMEDIA**
BERGARA / Telleria 17 A05 (Labegaraieta ind.)
T/F: 943 76 33 56
islada@isladamedia.com

**AHOLKULARITZAK**

**AIERDI AHOLKULARITZA**
BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

**ARKITEKTO TEKNIKOAK**

**DORLETA EGUIARA FDEZ-RIVERA**
ARRASATE / Arrasate Pasealekua 16 - 1D
T: 636 38 69 87 / 943 79 58 80
deguiara@yahoo.es

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

**JUAN MARI OSINAGA**
ARRASATE / Zerkaosteta 17, behea
T: 943 79 67 78
F: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

**ASEGURUAK**

**GOIENA ASEGURU ARTEKARITZA**
ARRASATE / Antso Abarca 6
T: 943 79 59 81
BERGARA / Zurradero 2
T: 943 76 97 65

**DISEINU GRAFIKOA**

**ISLADA MULTIMEDIA**
BERGARA / Telleria 17 A05 (Labegaraieta ind.)
T/F: 943 76 33 56
islada@isladamedia.com

**ETXE ADMINISTRAZIOAK**

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
URIBESALGO@telefonica.net

**GESTORIAK**

**EGUREN**
BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

**PROKURADOREAK**

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 71 23 91** zenbakira.

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
- Duplexa. Masterreka. 180 m².
- Duplexa. Ortuibar. Oso ondo.
- Sukia eraikuntza. Prezio oso ona.
- Masterreka 92 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 55 m². Berrituta.
- Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
- K. Eleizalde 90 m² + teilatu azpia.
- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- T. Aranzadi 140 m². Oso ondo.
- Ibargarai 109 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 96 m². Oso ondo.
- Fraiskozuri 104 m². Prezio ona.
- Ortuibar 97 m². Oso ondo.
- Martoko 85 m². Oso ondo
- Zubiaurre 70 m². Ondo.

Antzuola:
- Elkarren ondoan eraikitako 8 txalet salgai: Hiru solairu, eguzkitsua, sarbide ona, garajea, txokoa eta terraza. Aukera ona.
- Sagasti 90m². Prezio ona.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

BERGARA:
- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta, 60 m². Oso ondo.
- Koldo Eleizalde 87m². Ondo.
- Aranerreka 75 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
- Matxiategi 80m². Ondo.
- Madura 51m². Berrituta.
- Zabalotegi 80 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 71 m². Erdi berrituta.
- Artekale 74 m². Ondo.
- Angiozar bi solairuko etxea. Berritzeko.
- Masterreka 87 m². Oso ondo.
- Ibargarai 80 m². Ondo.
- Fraiskozuri 102 . Ondo.
- Arrizuri 97 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 62 m². Ondo.
- San Lorentzon 18 etxebizitza berri. Garajea eta trastelekuarekin.

ANTZUOLA:
- Duplex berria erdialdean.
- Sagasti 71 m². Ondo.

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

BERGARA
**IPARPROJECT erreformak egiten dituen dekorazio dendan (zeramika, bainugelak eta sukaldeak) NESKA behar da. Informatika eta AUTOCAD ezagutzak izan behar ditu.**
**943 76 98 30**

BERGARA
**Duplex berria eta garaje itxia salgai.**
**699 49 14 14**

ANGIOZAR
**Ortzi erretegia alokatzen da.**
**943 78 22 80**
**665 72 24 46**

BERGARA
**Langile bat behar da eraikuntzako kalitate-kontroleko lantegi baterako. Debagoienekoa izatea baloratuko da. B1 gida baimena beharrezkoa.**
**695 78 73 39 (Julio)**

ELGETA
**Panaderokua jatetxean zerbitzari euskalduna behar da.**
**943 76 80 97**

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Angiozar.** Baserria salgai. Prezio interesgarria. 626 35 60 89.

**Antzuola.** Etxea salgai Sagasti auzoan. 90 m2. Terraza eta balkoiarekin. Garaje itxia aukeran. 607 63 48 88.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza txikia salgai. 19:00etatik aurrera deitu. 677 78 37 72.

**Arrasate.** Doneztebe Portuko kalean. 69 m2. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bi soto. Arratsaldez deitu. 652 77 87 71.

**Arrasate.** Otalora 2, azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 bainugela, bizitzera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

**Bergara.** Duplexa salgai herri erdian. 659 44 76 75.

**Eskoriatza.** Santa Ana auzoan etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela eta bi komun. 90 m2. 686 21 02 23.

**Oñati.** 88 m2. Oso toki egokian dago. Hiru logela ditu, sukaldea, egongela, bi bainugela eta trastelekua. 1991ko eraikina. 646 20 42 94.

**Oñati.** Duplexa. Erdigunean. Berria, estreinatzeko. Kanpoko terraza du. 627 21 87 49.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxea errentan. Unibertsitatetik gertu. 655 72 14 80.

**Arrasate.** Ikasleentzat etxebizitza errentan ematen da. San Andres auzoan. 3 logela. Tel. 679 92 82 41.

**Benidorm.** Etxebizitza ematen da errentan. Abuztuko lehen hamabostaldia eta iraila. 945 29 33 80.

**Calpe.** Etxebizitza errentan ematen da. Bi logela, terraza. Hondartzatik gertu. 655 74 57 97.

**Cambrils.** Apartamentua ematen da errentan. Hondartzatik oso gertu. Igerilekua eta lorategia ditu. 610 79 47 29.

**Conil (Cadiz).** Etxebizitza emango nuke errentan. 615 75 11 47.

**Donostia.** Abuztuan. Amara auzoan. 3 logela. Bizitzera sartzeko. Jantzia. Ekonomikoa. 943 71 50 87.

**Elizondo.** (Nafarroa). Lau logelako etxebizitza errentan ematen da. Zortzi lagunendako egokia. 600 euro asteko. 943 79 58 75 edo 630 08 33 85.

**Eskoriatza.** Irakasleendako moduko etxea ematen dut errentan. 3 logela ditu. Guztiz osatua dago. Telefonoa: 605 76 37 71.

**Loredo (Kantabria).** Bi logela ditu eta hondartzatik 400 metrora dago. 943 79 81 38 edo 679 35 29 70.

**Peñiscola.** Apartamentua errentan uztailean eta irailean. Hondartzatik gertu. Aparkalekua eta igerilekua. 943 79 48 82 edo 605 75 61 69.

**Torrevieja.** Apartamentua. 2 logela, jantzita, hondartzatik gertu, erdialdean. 80 euro eguneko. 657 79 47 95.

**Vera (Almeria).** Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza alokatzen da. Guztiz jantzita. Igerilekuarekin. 657 73 94 25.

**Villanua** (Pirinioak). Igerilekua. Garajea. Uztaileko bigarren hamabostaldia eta abuztuko lehena. Deitu gauez. 943 78 03 08 edo 656 74 80 47.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Neska batek etxe txiki bat edo ganbara bat hartuko luke errentan. Telefonoa: 697 86 55 61.

**Bergara.** Emakume batek logela bat hartuko luke errentan. 685 72 21 33.

**Bergara.** Neska batek logela errentan hartuko luke. Telefonoa: 650 73 13 39.

### 105. ETXEAK OSATU

**Antzuola.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. Telefonoa: 616 45 00 20.

**Aretxabaleta.** Beste lagun batzuekin etxea osatu nahiko nuke. Deitu telefono honetara: 943 76 58 16.

**Bilbo.** Etxebizitza osatzeko jende bila gabiltza. Deitu telefono honetara: 646 63 24 64 edo 635 20 37 36.

**Gasteiz.** Neska bat behar da etxea osatzeko. Gorbeia kalean. 350 euro, gastuak barne. Deitu telefono honetara: 652 72 18 87.

### 106. BESTELAKOAK

**Lekeitio.** Logelak alokagai. Deitu telefono honetara: 665 71 35 20 edo 944 65 07 90.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Antzuola.** Bi autorendako lekua duen garaje itxia salgai Kalegoian. 666 44 10 09.

**Aretxabaleta.** Garaje itxia saltzen edo alokatzen dut erdialdean. 685 72 16 52 edo 665 73 40 09.

**Eskoriatza.** Garajea salgai Intxaurtxueta kalean. 943 71 55 33 edo 616 76 88 35.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Antzuola.** Garaje itxia. 38 metro koadro. 656 73 79 54.

**Antzuola.** Trastelekua duen garajea emango nuke errentan. Sagastin dago. 616 03 05 01.

**Aramaio.** Garaje berria errentan ematen da Nardeaga kaleko 21ean. 15 m2 ditu. Gauez deitu. 945 44 51 97.

**Aretxabaleta.** Bi garaje emango nituzke errentan. Santa Kruz kalean dago bat eta Asuncion kalean bestea. Deitu telefono honetara: 616 15 00 63.

**Arrasate.** Garaje itxia Olarte kalean. Deitu telefono honetara: 616 70 78 91.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Bergara.** Barruti industrialdean, 10. zenbakia. 176 metro koadro. Deitu telefono honetara: 943 76 35 09 edo 943 76 55 29.

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Zigorrolan 30 m2-ko lokala errentan ematen da. Deitu telefono honetara: 617 91 12 43.

### 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Ganbara hartuko nuke errentan, ahal bada San Antonion edo Martokon. Premiazkoa da. Deitu telefono honetara: 696 84 19 51.


Garbi, S.L.
**PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.**
**649 84 67 09 (BERGARA)**
**943 33 18 37 (HERNANI)**

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Emakume bat behar da goizetan etxeko lanak egiteko. 630 98 08 57.

**Oñati.** Goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da. 943 53 41 91 edo 655 72 68 87.

**Tabernari** edo zerbitzari lanak egingo nituzke taberna edo jangela baten. Eskarmentua daukat. Egun osoan lan egiteko gertu. Yuli. 618 04 45 18 edo 943 79 81 01.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** 14 urteko mutil batek lan egingo luke propaganda etxez etxe banatzen edo beste lan batzuetan. 695 58 88 59.

**Arrasate.** Emakume euskaldun batek umeak edo adineko pertsonak zainduko lituzke. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakume euskalduna umeak eta adineko pertsonak zaintzeko gertu. 659 82 75 18.

**Bergara.** Esperientziadun mutila ondorengo lanak egiteko prest: pertsona nagusiak zaindu, tailerreko laguntzaile, galdategian, soldadore, garbiketan, zerbitzari, uzta jasotzen, baserrian lan egiten eta igeltsero laguntzaile moduan. 639 42 82 80.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egiteko edota pertsonak nagusiak zaintzeko prest nago. 943 03 45 94.

**Debagoiena.** Mutila lanerako prest. 647 19 36 95.

**Debagoiena.** Mutila lanerako prest. Roxana. 662 08 22 03.

**Debagoiena.** Pertsona bat gertu garbitasun lanak egiteko eta umeak eta nagusiak zaintzeko. 686 80 56 59.

**Neska.** Goizetan hiru ordutan lan egiteko prest. Garbitzen, nagusiak zaintzen... 618 91 33 30.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeles eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

**Arrasate.** Irakasleak behar bereziak dituzten umeei laguntza eskola emateko prest. 645 73 04 69.

**Debagoiena.** Ingeles eskolak ematen ditut, azterketak, laguntza eskolak... 610 97 49 68.

**Gitarra** eta harmonia eskolak ematen ditut. Estilo eta maila guztiak. Iñigo. 650 62 34 38.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Bursner** 435 TN karabana salgai. Udarako oihala eta negurako abantzea dauzka. 2001ekoa da, eta oso egoera onean dago. Berogailua, komuna eta sukaldea ditu, eta bidaiatzeko eta goi mendirako balio du. 669 13 28 94.

**Citroën ZX** 1.8i autoa salgai. 11 urte, egoera onean. Deitu telefono honetara: 605 73 75 30.

**Golf GTI** autoa salgai. Prezio interesgarria. Deitu telefono honetara: 652 77 71 08.

**Opel Corsa Sport 1.7** DTI autoa salgai. 38.000 km, lau urte, 7.800 euro. Deitu telefono honetara: 696 70 80 31.

**Rover** 214 SI autoa salgai. 1.400 cm3, 103 ZP, gasolinazkoa. 8 urte. Egoera onean. Ibilgailuen azterketa teknikoa beteta dauka. Deitu telefono honetara: 636 17 33 24.

**Scooter Peugeot Trekker** motorra salgai. 50 cc. Deitu telefono honetara: 605 75 53 27.

**Scooter** kymco Bet&Win. 150 cm3. 6.000 kilometro. Deitu telefono honetara: 636 85 74 43.

**Seat Ibiza** autoa. 11 urte. 92.000 km, 1.000 euro. Deitu telefono honetara: 943 76 45 81 edo 653 71 77 67.

**Suzuki** Samurai mendiko autoa salgai. Bertsio luzea. Deitu telefono honetara: 647 60 68 88.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Altzariak salgai.** Egongelako altzaria, mahaia eta sei aulki. Gaztelar estilokoak. Oso ondo daude. Deitu telefono honetara: 686 60 10 09.

**Amstrad** CPC-6128 ordenagailua salgai. 128 k eta koloretako monitorea (CTM-644). Amstrad CPC-464 64 k eta koloretako monitorea (GT-64). Amstrad ordenagailuetarako jokoak. Kaxa originalekin. Deitu telefono honetara: 600 77 05 56.

**Autorako maletategia** salgai. 100 euro. Deitu telefono honetara: 943 76 71 21.

**Canon Eos 50e** kamera analogikoa (reflexa). 50-80 mm-ko objektiboa, filtro babesgarria, polarizadorea eta izarduna, poltsa eta gida liburua. Aukeran flasha eta 70-210 mm-ko objektiboa. Deitu telefono honetara: 685 76 44 77.

**Dendako altzariak** eta makineria salgai. 610 78 46 22.

**Egurrezko** bi mahai salgai. 1,5 eta 2 metrokoak. Bakoitza dagokion bankuekin. Tere. 943 79 65 31 edo 635 75 09 47.

**Errepideko bizikleta** salgai, oso gutxi erabilitakoa. 250 euro. Iñigo. 656 78 17 28.

**Piragua** salgai. 649 01 12 28.

### 805. TRUKATU

**Hektarea bateko pinudia** aldatzen dut nekazaritza lursail baten ordez. Deitu telefono honetara: 678 72 75 72.

### 807. AURKITU

**Ezkon eraztuna.** Bergarako bidebarri kalean. 615 79 61 16.

**Graduatutako** betaurreko ilunak aurkitu ditugu Espoloi azpiko frontoian, Bergaran. Udaltzaingoan utzi ditugu.

**DEIALDI PUBLIKOA**

Bergarako Udala

Bergarako Udalak kaleratu du
**Gazteentzako informazio guneko zerbitzua**
lehiaketa bidez kontratatzeko deialdi publikoa
(GAO 2006/07/05, 127 ZKIA).

Instantziak aurkezteko epea
**2006ko uztailaren 20an** amaitzen da.

**Informazio gehiago:** Kultura etxea.
Tel.: 943 77 91 60
eta www.bergara.net web gunean.

ARANZADI IKASTOLA

**ARANZADI IKASTOLAK** ondorengo profila duen pertsona behar du **IDAZKARI LANPOSTUA** betetzeko:
- Euskara eta gaztelania erraztasunez erabili eta bietan alfabetatua dagoena.
- Giza harremanetarako gaitasuna duena.
- Ekimena/iniziatiba duena.
- Informatika eta kontabilitate ezagutzak lehenetsiko dira.

**BIDALI CURRICULUMAK HELBIDE HONETARA uztailaren 24a baino lehen: bergara@ikastola.net**

**Aranzadi Ikastola San Martin Plaza, 4**
**20570 BERGARA Tel.: 943 76 90 71**
Idazkaritzako ordutegia: 08:00 - 13:00

## hildakoak

- **Joseba Peña Unamuno.** Bergaran, uztailaren 6an. 42 urte.
- **Lucino Carlos Monreal Velaz.** Arrasaten, uztailaren 7an. 72 urte.
- **Jon Iñaki Iartza Eizagirre.** Arrasaten, uztailaren 8an. 72 urte.
- **Sebastian Sanchez Madruga.** Arrasaten, uztailaren 9an. 53 urte.
- **Carlos Ginart Artzamendi.** Arrasaten, uztailaren 10ean. 85 urte.
- **Jose Bermudez Dacosta.** Arrasaten, uztailaren 10ean. 72 urte.
- **Carmen Igartua Kortabarria.** Bergaran, uztailaren 11n. 91 urte.
- **Gregoria Larruzea Basaras.** Aretxabaletan, uztailaren 12an. 100 urte.
- **Jose Merino Ramos.** Aretxabaletan, uztailaren 12an. 74 urte.



**Nerea Txintxurreta** eta **Iker Kortabarria** oñatiarrak ezkontza egunean zoriontzeko lagunek mezu hau bidali digute: *"Ezkontza momentua be etorri da azkenian Zorionak opa dotsuegu lagun zaharren izenian Egun ederra pasau daigula danok umore onian eta disfrutau egizue Indonesia aldian".*



**Agustina Horrillo** eta **Abel Iglesias** 1981eko uztailaren 18an ezkondu ziren Gatzagako elizan. Zilarrezko ezteiak ospatzen dituzten honetan bere bi alabek gurasoak zoriondu nahi dituzte. Zorionak bikote, eta urte askotarako.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 01**

**Eskelaren prezioa: 85 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

**Goienkaria: astero, 19.500 etxetan.**



URTEURRENA

## Ramiro Lopez Baez



Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 16an, 09:30ean, Bergarako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Bixente Askasibar Arana



Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 16an, 12:00etan, Elgetako Jasokundeko Amaren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

DANBAKA

Debagoieneko II. Musika Lehiaketa

# PARTE HARTU NAHI?

Izena emateko azken eguna: irailak 19

INFORMAZIO GUZTIA:

**www.danbaka.com**

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



Gurdia
Ezer
Haitz arteko hutsune
Banan-banan
Jelate, izotzaldi
Atzizki txikigarria
Errukarri
Paper lodi
Hobezin
Orbana, orina
Kantatzen
Kulero txikia
Zerez atzizkia
Barazki hostotsua
Tona
Punta, gailur
IRUDIKO MENDIA
Dantza egiten duena
Tantaloaren sinboloa
Emakume izena
Neba
Lehergai ezaguna
Hidrogenoa
Abeltegia, itoia

LUMA

## umore giroan



Kike Amonarriz

### Migeliko Lizarrako azokan

Migeliko Lizarrako ganadu azokara joan da. Abereak ikusten ari dela honako hau galdetu dio abeltzain bati:

- Aizu, esango al zenidake behi honek zergatik ez duen adarrik?

- Presidente jauna. Badira adarrik gabe jaiotzen diren behiak eta baita adarrak harkaitzen kontra puskatutakoak ere.

- Bitxia da. Eta honi zer gertatu zaio?

- Beno, hau..., ez...

- Aizu, baina esango al didazu behingoz ze kristo gertatu zaion behi honi adarrik izan ez dezan?

– Ezer ez, presidente jauna. Behi hau zaldia baita!

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 8 | 4 | | 6 | 2 | | |
| 4 | | 9 | | | | 6 | | 5 |
| 3 | | | 7 | | 5 | | | 1 |
| | 3 | | 9 | | 8 | | 6 | |
| | | | | | | | | |
| | 9 | | 3 | | 2 | | 7 | |
| 8 | | | 5 | | 1 | | | 6 |
| 7 | | 5 | | | | 4 | | 8 |
| | | 2 | 8 | | 4 | 5 | | |

## hieroglifoa

Gipuzkoako herria



## hizki salda

Debagoieneko bost auzoren izenak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | G | A | R | R | A | Z | I | L |
| G | U | K | O | L | F | H | D | O |
| A | L | D | A | B | E | R | G | U |
| I | G | E | R | R | O | L | E | D |
| P | I | L | O | K | A | B | D | A |
| S | R | T | B | S | L | A | R | L |
| P | K | E | A | A | T | U | J | A |
| Z | U | B | I | L | L | A | G | A |
| U | R | N | E | T | A | K | I | O |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ■ | O | ■ | H | ■ | I |
| | | | E | R | B | A | T | Z |
| | | | ■ | G | A | I | X | O |
| ■ | B | ■ | K | A | N | T | U | Z |
| T | I | T | A | ■ | A | Z | ■ | T |
| ■ | K | A | R | A | K | A | T | E |
| D | A | N | T | Z | A | R | I | ■ |
| ■ | I | G | O | A | ■ | T | N | T |
| A | N | A | I | ■ | H | E | I | A |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 5 | 8 | 4 | 9 | 6 | 2 | 3 | 7 |
| 4 | 7 | 9 | 2 | 1 | 3 | 6 | 8 | 5 |
| 3 | 2 | 6 | 7 | 8 | 5 | 9 | 4 | 1 |
| 5 | 3 | 7 | 9 | 4 | 8 | 1 | 6 | 2 |
| 2 | 8 | 4 | 1 | 6 | 7 | 3 | 5 | 9 |
| 6 | 9 | 1 | 3 | 5 | 2 | 8 | 7 | 4 |
| 8 | 4 | 3 | 5 | 2 | 1 | 7 | 9 | 6 |
| 7 | 1 | 5 | 6 | 3 | 9 | 4 | 2 | 8 |
| 9 | 6 | 2 | 8 | 7 | 4 | 5 | 1 | 3 |

**Jeroglifikoa:** Errenteria.
R-en T eria.


| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | G | A | R | R | A | Z | I | L |
| G | U | K | O | L | F | H | D | O |
| A | L | D | A | B | E | R | G | U |
| I | G | E | R | R | O | L | E | D |
| P | I | L | O | K | A | B | D | A |
| S | R | T | B | S | L | A | R | L |
| P | K | E | A | A | T | U | J | A |
| Z | U | B | I | L | L | A | G | A |
| U | R | N | E | T | A | K | I | O |


## bono fotoa



**1527an eraikitzen hasi ziren Bergarako San Pedro elizak ez zuen obren amaiera ezagutu dorre barrokoa jaso zuten arte. Noiz gertatu zen: 1542, 1642 ala 1742an?**

**Argazkia eta galdera** > Miguel Angel Elkoroberezibar


Super BM

Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA ......................
IZEN-DEITURAK ......................
TELEFONOA ......................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Kas, 2 litroko bipacka
1,69 € 281 pta.
Super BMn beti eskaintzarik onenak!


AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
JUAN MARI CERDEIRArendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: Orixol edo Etxaguengo atxa.

# Debagoieneko **GREMIOAK**



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

**BIDABURU AROZTEGIA**
Oñati
• Era guztietako berrikuntza lanak, leihoak, neurri guztietako atariak, zoruak, eta abar.
Zubillaga 20
T: 943 78 35 00 / 627 48 58 13
bidaburu.h@euskalnet.net

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

**ARETXARGI**
Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

**BELLIDO ELEKTRIZITATEA**
Oñati
• Erreformak orokorrean
• Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa
Kale zaharra 60 - 3 erd.
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

**RELE**
Eskoriatza
• Instalazio elektrikoak
Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Aranburuzabala 56
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

**ZUTARRI SL**
Arrasate
Zerkaosteta 17, behea
T: 943 79 67 78 / Faxa.: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

## ESKAIOLISTAK

**EMILIO ESKAIOLAK**
Aretxabaleta
• Eskaiolazko eta pladurrezko sabaien dekorazioa, sabai desmuntagarriak
Bedarretako San Migel auzunea 14, behea D
T: 943 79 60 65 / 675 70 25 12

## IGELTSEROAK

**DE LA TORRE IGELTSEROTZA**
Eskoriatza
• Barruko lanetan espezialitatea
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

**G. IZCUE IRURZUN**
Arrasate
• Igeltserotza orokorra
• Etxeen berrikuntza
• Sukaldeak, komunak…
Munar 6
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## ITURGINTZA

**ARETXABALETA ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
- Iturgintza
- Berogailua eta gasa
- Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**J.J. IRURE ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Ura
• Gasa
• Kalefakzioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

**TXORROTA**
Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIC**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**LEIHATEK**
Arrasate
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
Okendo 1 - behea
T: 943 79 69 91
ventanasleihatek@hotmail.com

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
T: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
T: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

**L. GONZALEZ PINTURAK**
Aretxabaleta
• Pintura orokorra, pintura papereztatua
Basabe poligonoa F-6
T: 686 113 581

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

Zuriñe Velez de Mendizabal > Kazetaria

# "Oso gogorra naiz nire buruarekin literatura idazten dudan bakoitzean"

Zuriñe Velez de Mendizabalek gaztetxotatik dauka idazteko ohitura, eta orain dela gutxi Idazle Eskolan ibili zen. Gaztetxotan, uretako eskiko txapelketa dezente irabazi zituen. Baina, gerora, kirol hori alboratu eta Kazetaritza ikasketak egin zituen. Atzerrian ere hainbat alditan izan da, ingelesa ikasten eta lanean: Oxforden, Washingtonen, Renon...









IKER BARANDIARAN

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

**Zuriñe Velez de Mendizabal Renotik bueltan da. Hamar hilabete egin ditu han, Euskal Ikerketen Zentroan lanean. Iraganean kazetari lanak egin zituen hainbat hedabidetan, eta berriro ere hasiko da horretan.**

**Zer izan gura zenuen nagusitan?**

Ez nekien, baina beti gustatu izan zaizkit animaliak, batez ere txakurrak. Horregatik, batzuetan esaten nuen albaitari izan gura nuela. Horren harira, txikia nintzenean txakur bat izan genuen etxean. Txakurrarendako leku egokia izan ezean ez nuen besterik hartuko.

**Txikitan txintxoa zinen?**

Denetatik. Batzuetan bai, baina bihurrikeriak ere egiten nituen. Bestalde, ikasle on samarra nintzen, baina arlo teknikoa ez zitzaidan batere gustatzen.

**Noiz hasi zinen idazten?**

Aspaldi. Normalean poesiak egiten ditut. Lehen, lagunei oparitzen nizkien, baina aspaldian niretzat gordetzen ditut; ez ditut erakutsi gura izaten.

**Noiz inspiratzen zara gehien?**

Ohitura handia daukat ilunkeran idazteko edo bestela aspertuta nagoenean. Hala ere, gero idatzitakoa zortzi bat bider irakurri eta aldatu egiten dut. Oso gogorra naiz nire buruarekin idazten dudanean, ez naiz konforme gelditzen.

**Blog pertsonala ere izan zenuen, ezta?**

Bai, Renon nengoela blog bat abiarazi nuen lagunek eta senideek nire berri eduki zezaten. Bururatzen zitzaizkidan kontuak idazten nituen, baina dagoeneko ez dago abian.

**Noiz eta nola erabaki zenuen Kazetaritza ikastea?**

OHOko 7. mailarako pentsatuta neukan ikasketa horiek egitea. Horrez gain, Itzulpengintza ere ikastekotan egon nintzen, hizkuntzak ikasten beti ondo moldatu naizelako.

**Zer aurkitu zenuen Leioako fakultatean, espero zenuena?**

Unibertsitatearekin desengainua hartu nuen. Ikasketak euskaraz egin gura nituen, baina irakasle asko ez ziren gai hala erakusteko. Bestalde, bakarrik bizitzen ikasteko oso esperientzia aberasgarria izan zen. Eta, jakina, Bilbon oso gustura ibili ginen, aukera asko ematen dituelako.

**Ikasketekin lotutako praktikak Arrasaten egin zenituen...**

Bai, *Arrasate Press*-en egin nituen, eta oso esperientzia ona izan zen. Herri baten kazetari lanak egitea ondo dago. Ikusi nuen lana zelakoa zen eta konturatu nintzen uste baino gauza gehiago egin behar izaten direla herri kazetaritzan.

**Horrez gain, beste hedabide batzuetan ere ibili zinen...**

Bai, GOIENKARIA-ko egoitza nagusian eta *Ze Barri?*-n ere ibili nintzen, bietan kazetari lanak egiten. Horrez gain, *Euskonews* webgunean ere aritu nintzen. Azken hori, besteekin alderatuta, oso desberdina zen. Etxetik lan egiten nuen, eta Interneterako albisteak beste modu baten lantzen genituen.

**Kazetaritzaz gain, idazle izateko ere ikasi duzu..**

Bai, Bergaran Idazle Eskolan ibili nintzen. Bi urteko ikasketak dira, baina nik bakarra egin nuen Renora jo nuelako. Oso gustura ibili nintzen, eta laster ikasketa horiek jarraitzeko asmoa daukat. Narratiba, hitz jokoak, ipuinak... idazten ikasten ibili naiz, eta oso interesgarria da. Kazetaritzan zelan ikasi banekien, baina ez literaturan.

**Argazki dotoreak egiten dituzula esan digute...**

Tira, Renon argazki asko egin behar izan nituen, eta bai, hartu diot praktika.

**Argitu iezaguzu zeren bila joan zinen Renora (Nevada)...**

Ingelesa hobetzera eta esperientzia hartzera. Renoko unibertsitateko Euskal Ikerketen Zentroan lana eskaini zidaten. Diseinu kontuak egiten ibili naiz esku-orrietarako, liburuetarako... Horrekin batera, argazkiak egiteko eta tratatzeko ardura neuk izan dut. Hamar hilabete egin ditut zeregin horretan.

**Zer moduzko esperientzia izan da Renokoa?**

Oso ona. Ingelesa asko hobetu dut eta esperientzia handia hartu dut. Horrez gain, mundu guztiko jendea ezagutu dut.

**Eta orain zer asmo daukazu?**

Uda gozatu gura dut, eta irailean kazetari lanean hasiko naiz Euskal Herrian.

PERTSONALA

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 24 urte. **Ikasketak:** Kazetaritza. **Zaletasunak:** Musika entzun, irakurri, lagunekin irtetea, idaztea eta argazkiak egitea. **Debagoieneko jairik onenak?** Arrasateko Santamasak. **Gizateriaren aurrerapen handiena?** Hizkuntzak. **Inoiz diskriminatuta sentitu zara emakumea izateagatik?** Ez, baina matxismo handia dago eta gogor egin beharra dago. **Disko bat?** Nirvana taldearen *Nevermind*. **Zerk eragiten ditu negarra?** Gauza askok. Adibidez, Gazak. Oso sentimentala naiz.




**ETIKETAK** Begiratu baten mapako puntua ikus dezakegu eta inguruan dauden beste leku interesgarriak. GOIENKARIA

**WEB 2.0** > LEKUAK ETIKETA BIDEZ SAIKATZEKO WEBGUNE KOLEKTIBOA

# 'Tagzania.com', munduko txoko guztiak mapa bidez sailkatzeko ataria

'Tagzania.com' da Google Maps oinarri hartuta egindako programa. Munduko tokien kokapenak gorde eta etiketa bidezko sailkatze kolektiboa

**A.L. /M.A.**> ARRASATE

*Tagzania.com* webgunean mapa pertsonalizatuak ageri dira, besteak beste. Mundu osoko lekuak hartzen ditu bera baitan. Adibidez, Irakeko gerraren eta Katrina urakanaren emaitzak ikus ditzakegu. Izan ere, Tagzaniak satelite bidezko irudiak erabiltzen ditu gehienbat. Horrez gain, eskualde batzuetan, hegazkinetik ateratako ortofotografiak ere erabiltzen dituzte. Dena den, geroz eta mapa zehatzagoak eskaintzen ditu Tagzaniak. Hain zuzen ere, kale eta auzoetako mapak ikusteko aukera dago.

**BERRIKUNTZAK**

Duela gutxi irudi berrikuntza handia ere egin dute, eta ondorioz, Googlen irudietan oinarritutako zerbitzu batzuk erakusten dituzte. Adibidez, Euskal Herriko mapa zehatzak ageri dira, non herri bakoitzeko planoak kaleen izenekin ageri diren.

Tagzania lekuekin eta etiketekin dago osatua. Izena emanez gainera, hainbat aukera eskaintzen ditu: gustuko lekuak gehitzeko edo mapak gordetzeko aukera, besteak beste. Horren haritik, puntu bat gehitzen duzuen bakoitzean etiketa bat edo gako-hitza emango dizu. Behin izena emanez gero, *tagzania.com* webgunean erraz da toki bat *tag*-eatzea; azaltzen den mapan nahi dugun lekua bilatzea besterik ez zaigu faltako.

**EUSKAL ENPRESA**

Tagzania Codesyntax euskal enpresak sortutako proiektua da. Codesyntax-ek Interneteko zerbitzu ugari eskaintzen ditu. Intranet zein Extranet mailan bezeroen beharretara egokitutako aplikazioak egiten dituzte. Interneterako estrategia aholkularitza integrala ere eskaintzen dute, eta web aplikazioen zerbitzarien teknologia aurreratuekin lan egiten dute.

Euskal Herrian ez da horren erraz satelite-bista hutsarekin kokapen zehatzak aurkitzea. Edonola ere, baliabideak hobetu ahala, gero eta aukera gehiago izango ditugu.

**teknologia berriak**

> JOKOAK

## Nintendo konpainiak Wii izeneko kontsolaren merkaturatzea aurreratu gura du

Nintendo Wii: izen horrekin bataiatu du Nintendok joko kontsola berria. Printzipioz, 2006ko abendurako jarri gura zuen kalean. Azken berriek diote, baina, data hori bi hilabetez aurreratuko dutela. Hala, Nintendok aurre hartuko dio azaroan merkaturatuko den Play Station 3 kontsolari.

Nintendok, gainera, baieztatu du da kaleratuko duten produktua Xbox 360 baino merkeagoa izango dela. Wii-k 199 eta 249 dolar bitartean balioko du.



Kalitate grafiko paregabea izango duela diote, Interneteko hainbat forotan, adituek.

> AUTOA

## Radarrak non dauden detektatzeko Europako gailurik salduena da InfoRad

Puntukako gidabaimena delaeta, abiadura kontrolatzeko aparailu aproposa da InfoRad. Radarrak non dauden lokalizatzen du eta guztiz legala da. Barnean daraman datu baseak radarrez gain adierazten du non dauden biderik arriskutsuenak edo noiz gauden ikastolako pasabide batean.

InfoRad-ek ez du instalazio beharrik eta erabilerraza da oso. Argazkian duzuen modeloak 99 euro balio du eta bi urteko garantia du.



Radarrak non dauden jakiteko aparailuak ez du instalazio beharrik.

> AUTOA

## Alkohol-detektagailu digitala, autoa hartzeko moduan gauden jakiteko metodo erosoena

Safe-Mate izenarekin aurkeztu dute alkohol-detektagailu digital modernoa. Barnean daramagun alkohol kopurua zein den jakiteko modurik erosoena eta errazena eskaintzen du. Aparailuak duen sentsore baten putz egin eta berehala, bost segundotan, azalduko da LCD pantailan jakin beharreko datua.

Safe-Matek neurri txikia du, eta ondorioz, edozein tokitan gorde daiteke. Pila txiki birekin dabil. Merkatuan, 40 eta 60 euro artean aurkituko duzue salgai.




Safe-Matek bost segundoren buruan adieraziko dizu gorputzean daramazun alkohol kantitatea.


## Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

**www.goiena.net-eko blog komertzialak**

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaitza onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

**Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:**
**www.goiena.net/blogak ·**
**azabarte@goiena.com ·**
**943 76 92 70**

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

www.goiena.net/blogak

/4quattro4 /argi-plastik /arregi /atai /azkarate /joseba
/BZ-sistemas /dragon-oriental /dukiena /ego /elejalde
/ezkutuorly /gallastegi /ganesha /garaia /gorkagarai /gorkataxi
/guztizeder /irudisport /korozabaleta /maulanda /mayte /merkeopari
/multiopticas /ohiak /okipark /vitoria /pando /richimaier
/udalatx /udalaitz /urdeki /markiegi /urbieta

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com
www.ehmff.com.



## berriak

> PROGRAMAZIOA

### Kooperatibismoaren gaineko saio berezien grabazioa ibarrean

Oraingo egunetan kooperatibismoaren eta Arizmendiarrietaren gaineko saio bereziak grabatzen dihardute zenbait telebistak gure ibarrean.

La Sexta telebista katea ari da Arizmendiarrietaren bizitzaren gaineko dokumentala egiten, eta Arrasateko kaleetan zenbait grabazio egin dituzte. Era berean, Frantziako produkzio-etxe batek kooperatibismoa aztertuko du beste dokumental baten.

> PROGRAMAZIOA

### Gitarra jotzen ikasteko DVDa argitaratuko dute

Gaztelupeko Hotsak diskoetxe soraluzetarrak produktu berria argitaratuko du udazkenean. Gitarra jotzen ikasi nahi duenarentzat material didaktikoa izango da.

Keu musikari eta gitarra jotzaile ondarrutarrarekin egiten ari dira grabazioak egunotan eta DVD formatuan kaleratuko dute. Gitarra jotzen ikasteko kontzeptu basikoak jasoko ditu ikusentzunezkoak.

> ARRASATE IRRATIA

### Jazz musikaz bustitako arratsalde eta gauak

Uda jazzaldiekin lotzen dugu Euskal Herrian; horregatik, bada, Arrasate Irratiko musika orduetan ere tartea egin diogu jazzari.

Hala, egunero izango duzue big-bandetatik hasi eta jazz fusiora bitarteko doinuak entzuteko aukera. Artista klasikoetatik hasi eta joera modernoetarainoko doinuak entzungai, beraz, 16:00etan, 20:00etan eta baita gauean, 22:00etan.

> SARIAK

### Donostiako Aquariumerako sarrerak eskuragai

Arrasate Irratian bainulekuetara egiten dugu bisita egunero. *Uda giroan* saioan izaten da, eta bisita horien artean Donostiaraino hurbiltzen gara, Aquariumera, hain justu ere.

Informazioaz gain, entzuleen artean banatzeko sarrerak ere jasotzen ditugu astero. Horrela, bada, zozketan parte hartu nahi izanez gero, deitu 943 71 17 31 telefonora edo bidali eskutitza *irratia@goiena.com* helbidera.

**'ANTZUOLAKO JAIAK'** > MARTITZENA, 21:15

# Antzuolako jai nagusiak, etxetik mugitu gabe

Goiena Telebista Antzuolako kaleetan izango da oraingo egunotan herriko jaiekin gozatzen

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Antzuolako jai nagusiak ospatzen ari dira eguenetik domekara bitartean eta Goiena Telebistan jai horien gaineko saio berezia ikusteko aukera izango da martitzenean, 21:15ean.

Zapatuan egingo dute jai egitarauko ekitaldirik esanguratsuena, Mairuaren Alardea, eta ekitaldia grabatuko dute GOITBko kameralariek. Era berean, kaleko giroa, Udalbatzakoen dantza eta gainerako ekitaldiak ere grabatuko dituzte. Antzuolako jaiak bakarrik ez, oraingo astean Lesakako San Ferminak ere izango dira ikusgai GOITBn.



**ANTZUOLAKO JAIAK** Mairuaren Alardea egingo dute zapatuan. GOIENKARIA

**'HARMAILATIK'** > ASTELEHENA, 21:15

# Denboraldiko azken saioan Elgetako Mendiko Kriteriuma ikusgai

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Elgetako Txirrindulari Elkarteak antolatuta domekan jokatuko da 21. Mendiko Kriteriuma. Goizeko 10etan abiatuko da lasterketa herriko plazatik eta 122 kilometro egin beharko dituzte elite eta 23 urtez azpiko txirrindulariek, Elgetako helmugara iritsi aurretik.

Goiena Telebistako kameralariek motorra erabiliko dute lasterketa grabatzeko eta astelehenean ikusgai izango da, 21:15ean hasita. Hain zuzen ere, denboraldiko azken *Harmailatik* saioa izango da astelehenekoa. Julen Iriondok zuzentzen eta aurkezten duen saioak aurten protagonismo berezia eskaini dio txirrindularitzari. Besteak beste, zenbait lasterketari jarraipen berezia egin die saioak: Leintz Gatzagakoari, Euskal Bizikletako etapa amaierari, Gorlako Igoerari eta oraingo astean Elgetako lasterketari. Edozelan ere, futbolak ere izan du tarte berezia, Aloña Mendi taldearen denboraldi bikainari saio berezia eskainiz. Saskibaloian Mugarri Alkesaren denboraldia izan da aipagarriena.

## telebegi

**Unai Moraza**

### Berdinetan gaude

Denboraldia udazkenean hasi zen. Urtero bezala, ETBko arduradunek ETB1 indartzeko zituzten asmoak jakinarazi zizkiguten. Bederatzi hilabete joan dira eta berdinetan gaude. TelePelotaren programazioak ez du hobera egiten: marrazki bizidunak, kirola, ETB2koak baino txarragoak diren albistegiak, marrazki bizidunak, kirola, barne ekoizpeneko telesailak, marrazki bizidunak, kirola, *Bakarrik edo* eta *Wazemank*.

Zinema euskaraz sustatzeko saiakera batzuk egin dituzte, *La fuga de Segovia* filmaz gain bestelako zinta interesgarriagoak emititu dituzte. Hala ere, gai honetan arrazoia eman beharko diegu; izan ere, ikusleok bizkarra eman diegu.

Telesailetan barne ekoizpenetara mugatu dira, gainontzeko kateetan nazioartetik ekarritako telesail interesgarriak ikusten ditugun bitartean: *24*, *Los Soprano*, *House*... ETB1, ordea, ez da horretan saiatzen. Bakar bat ere ez dago. Zenbat jende erakarriko luke astero *CSI*-ren moduko atal batek? Asko, zalantzarik gabe. Baita pelikulak euskaraz ikusten ez dituztenak ere.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**

**10:00** Asteko gainbegiratua.
Bake prozesuaren gainean iritzi bila, besteak beste, Jose Ramon Bengoetxea, Oñatiko Zuzenbide Soziologiako Nazioarteko Institutuko zuzendaria, Maite Aristegi, 18/98 +plataformako kidea; Bidaien tartean, Zuriñe Velez de Mendizabalen eskutik, Renora joateko aholkuak...

**Domeka**

**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**

**10:00-12:00** Uda Giroan!
Albistegiak.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Bainurako tokien egoera (Garaio urtegia, Musakolako igerilekua).
Elkarrizketak.
Zozketak (Donostiako Aquarium-erako sarrerak...)
Ateraldiak egiteko proposamenak.
Zorion agurrak.
(parte hartzeko: 943 71 17 31).
**12:05** Izarren ordua: abesti ezagunak.
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errepikapena).

**17:00,19:00,21:00,23:00** Albistegi laburra
**17:15** Zorion Agurren tartea (errepikapena)

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 14**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Zorion agurrak eta marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15** Musika saioa. **14:30** M1: Eguraldia eta zerbitzuak. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Iparrorratza. **15:30** M1. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Didjeridu **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** Berbaire. **17:30** Eltze beroa. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Ilunpean. **18:15** Erreportaia. **18:45** Albiste aurrerapena. **19:00** Klipak. **19:15** Jazz. **19:45** Albisteak. Julen Iriondo **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Berriak. **21:15** Behazulo **21:45** Albisteak. Julen Iriondo. **22:15** Ilunpean.. **22:45** Berriak. Deiane Arrieta. **23:15** Didjeridu. **23:45** Albisteak. **00:15** Emisio amaiera.

**Zapatua, 15**
**07:55** Emisio hasiera. **08:00** Marrazki bizidunak bilduma. **10:50** Astekoak. Informazio saioa. **11:00** Jazz. **11:30** Klip. **12:00** Didjeridu. **12:30** Mkt. **13:00** Jaiak 2006: Doneztebekoak eta 2005eko Antzuolakoak. **14:00** Astekoak. **14:15** Ilunpean. **14:45** Erreportaia: Gasna feria. **15:15** Marrazkiak. Snorkeldarrak **16:00** Bihurkorrak. **17:00** Debarri. Landa Garapenerako Diputatua. **18:00** Teknopolis. **18:30** Berbaire. **19:00** Sustraia. **19:30** Munduari bueltaka. **20:00** Astekoak. **20:15** MKT. **20:30** Behazulo. **21:00** Ilunpean. **21:30** Harmaillatik. **22:00** Jaiak 2006: Doneztebekoak eta 2005ko Antzuolakoak. **23:00** Didjeridu. **23:30** Debarri. Landa Garapenerako Diputatua. **00:30** Emisio amaiera.

**Domeka, 16**
**07:55** Emisio hasiera. **08:00** Marrazki bizidunak bilduma. **11:00** Behazulo. **11:30** Ilunpean. **12:00** Berbaire. **12:30** Harmailatik. **12:50** Astekoak. **13:00** Debarri. Landa Garapenerako Diputatua. **14:00** Jaiak 2006. Doneztebeko jaiak eta 2005eko Antzuolakoak. **15:00** Klip. **15:15** Erreportaia. **15:45** Marrazki bizidunak. Card Sakura/Snorkeldarrak. **17:15** Didjeridu. **17:45** Astekoak. **18:00** Iparorratza. **18:30** Jazz. **19:00** Elkartasun bideak. **19:30** Harmailatik. **20:00** Debarri. Landa Garapenaren gaineko saioa **21:00** Jaiak 2006: Doneztebekoak eta 2005eko Antzuolakoak. **22:00** Berbaire. **22:30** Behazulo. **23:00** Ilunpean. **23:30** Eltze beroa. **00:00** Didjeridu. **00:30** Astekoak. **00:45** Emisio amaiera.

**Astelehena, 17**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Zorion agurrak eta marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Behazulo. **14:15** Eltze beroa: Mihi arraina. **14:30** M1. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Munduari bueltaka. **15:30** M1. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Ilunpean. **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** Didjeridu. **17:30** Zera dio: Amonarriz eta Etxagibel. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Berbaire. **18:15** Sustraia. **18:45** Albiste aurrerapena. **19:00** Klipak. **19:15** Behazulo. **19:45** Berriak. Deiane Arrieta. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Berriak. Goiatz Arana. **21:15** Harmailatik: Elgetako mendiko kriteriuma. **21:45** Berriak. **22:15** Harmailatik. **22:45** Berriak. **23:15** Jazz. **23:45** Berriak. **00:15** Emisio amaiera.

**Martitzena, 18**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Zorion agurrak eta marrazki bizidunak. Card Sakura. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Jazz. **14:15** Zera dio. **14:30** M1. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Elkartasun bideak. **15:30** M1. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Harmailatik. **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** Jazz. **17:30** M2. Danbaka. Potemkin. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Erreportajea: Sarako itzulia. **18:15** Munduari bueltaka. **18:45** Albiste aurrerapena. **19:00** Klipak. **19:15** Harmailatik. **19:45** Albisteak. Julen Iriondo. **20:15** Marrazki bizidunak eta zorion agurrak. **20:45** Berriak. **21:15** Jaiak 2006: Antzuolako jai nagusiak. **21:45** Gaurkoak. **21:47** Lesakako San Ferminak **22:15** Berbaire. **22:45** Berriak. **23:15** Segurako Erdi Aroko Azoka. **23:45** Albisteak. **00:15** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 19**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Zorion agurrak eta marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15** M2. Danbaka. Potemkin. **14:30** M1. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Jaiak 2006: Antzuolako jai nagusiak **15:45** Gaurkoak. **15:47** Segurako Erdi Aroko Azoka. **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** Berbaire. **17:30** Zera dio. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Sustraia. **18:15** Teknopolis. **18:45** Albiste aurrerapena. **19:00** Klipak. **19:15** Didjeridu. **19:45** Albisteak. **20:15** Marrazki bizidunak eta Zorion Agurrak. **20:45** Berriak. **21:15** Teknopolis. **21:45** Gaurkoak. **21:47** Debarri: Debagoieneko Mankomunitateko ordezkariak. **22:45** Berriak. **23:15** Jaiak 2006: Lesakako San Ferminak. **23:45** Gaurkoak. **00:15** Emisio amaiera.

**Eguena, 20**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Zorion agurrak eta marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Harmailatik. **14:15** Klipak. **14:30** M1. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Sustraia. **15:30** M1. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Debarri: Debagoieneko Mankomunitateko ordezkariak. **16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** Jazz. **17:30** MKT musika. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Elkartasun bideak. **18:45** Iparrorratza. **18:45** Albiste aurrerapena. **19:00** Klipak. **19:15** Erreportajea: Sarako itzulia. **19:45** Albisteak. **20:15** Marrazkiak. **20:45** Berriak. **21:15** Berbaire. **21:45** Albisteak. **22:15** Didjeridu. **22:45** Berriak. **23:15** Harmailatik. **23:45** Albisteak. **23:15** Emisio amaiera.

# SHARON STONER

**DANBAKA LEHIAKETAKO I. EDIZIOKO IRABAZLEA**

## DISKO BERRIA ZURE ESKU




ESKAINTZA BEREZIA
ASTELEHENEKO GOIENKARIA-KO HARPIDEDUNENDAKO

CDa + etxean jasotzea*: **10 euro**

Harpidedun ez bazara, harpidetu orain eta jaso CDa etxean* **DOAN**




ASTELEHENEKO
**Goienkaria**
astelehenean, aste bukaera osoa

Egin zure eskaria uztailaren 21a baino lehen!

Deitu telefono honetara: **902 36 38 51** 9:00etatik 18:00etara

**EDO** harpidedun bazara, eta nahiago baduzu, bete kupoia eta bidali:

Harpideduna (Izen abizenak) ...........................................

Kalea.............................................. Herria..............................................

Telefonoa......................................

Bidali kupoia GOIENAra: 132 posta kutxa 20500 ARRASATE

*Astelehenko Goienkaria-ko banaketak onartzen duen kasuetan bakarrik.

# Uztailaren 14tik 21era

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

## Jaiak



ARAMAIO
**> Arexolako jaiak ospatuko dituzte aste bukaera osoan**
Arexola-Arriolako gazteek denetariko ekintzak antolatu dituzte: gaur, egubakoitza, bertso afaria; bihar, zapatua, Arexolara igoera, kanpai-jotze erakustaldia, txokolate-jana… Eta etzi, domeka, meza, soinu emanaldia eta jolasak.

## Kontzertua




BERGARA
**> Kompadres Muertos (Mexiko) eta Show Business (Oñati) taldeak**
Mexikoko hiriburutik etorriko da Kompadres Muertos taldea gaztetxean jotzera, zapatuan, 22:30ean. Rock-and-roll freskoa egiten dute. Show Business talde oñatiarra (argazkian) ere indartsu dabil azkenaldian, eta haiek ere joko dute.

## Erakusketa



BERGARA
**> Usoa Mendikute artista bergarar gaztearen erakusketa zabalik dago**
Bergaran jaio baina azkenaldian Londresen bizi da Usoa Mendikute. Hala ere, uztail osoan jaioterrian du margo erakusketa, Aroztegi aretoan. *Pop art* korrontea lantzen du, eta oso kolore biziak eta alaiak erabiltzen ditu.

## Lehiaketak

EUSKAL HERRIA
**> Elgoibarko kirol argazki lehiaketan parte har daiteke**
Kirol argazki lehiaketa antolatu dute Elgoibarko Udalak eta Ongarri argazki elkarteak. Edozeinek parte har dezake koloretako edo zuri-beltzezko argazkiekin. 24 x 30 cm-koak izan behar dute, 30 x 40 cm-ko euskarrian. Gehienez ere lau aurkez daitezke. 200 eta 100 euroko sariak daude, adin multzoka.
Argibide gehiago, *www.elgoibar.org* helbidean.
Mugaeguna, uztailaren 21a.

BERGARA
**> I. Film Laburren lehiaketa antolatu du Bergarako Udalak**
I. Film Laburren lehiaketa antolatu du Udalak, Debagoienean bizi den edozeinendako.
Lanak bakarka edo taldeka aurkez daitezke irailaren 15era arte, kultura etxean. 300 eta 250 euroko sari bana dago, eta bergarar onenarendako 100 eurokoa.
Argibideak: *www.bergara.net.*

DEBAGOIENA
**> 'Gomendatzen dizut…' lehiaketan parte har daiteke**
Arrasateko eta Bergarako Gazte Informazio Zerbitzuek antolatutako Gomendatzen dizut… gomendio lehiaketan parte har daiteke. Oporren gaineko aholkuak eta, ahal bada, argazkiak ere eskatzen dituzte. Oporraldiak eta irteerak daude sari moduan.
Mugaeguna, irailaren 28a. Argibideak: *www.aizue.com.*

EUSKAL HERRIA
**> III. Euskal Herriko Grafiti Lehiaketa antolatu dute**
Hirugarren aldiz antolatu du Topaguneak, Euskara Elkarteen Federazioak, Euskal Herriko grafiti lehiaketa, eta taldeek egin nahi dituzten grafitien zirriborroak bidaltzeko epea zabalik dago abuztuaren 31ra arte.
Argibideak, *gazteak2@topagunea.com* helbide elektronikoan.

DEBAGOIENA
**> II. Udako Argazkien lehiaketa antolatu du Goienak**
Debagoieneko edozeinek parte har dezake. Argazkiak koloretan edo zuri-beltzetan izan daitezke, baina ezinbestekoa da udakoak izatea, eta inoiz argitaratu barikoak. Gehienez, bost argazki aurkez ditzake norberak. Olympus E-500 kamera, hotelean gaua eta bi lagunendako bazkaria edo afaria Gure Ametsa jatetxean, horiek dira sariak.
Oinarriak eta jasotako argazkiak: *www.goiena.net/blogak/argazkiak.*

## Musika

ARRASATE
**> Igelaren Trikimailua taldeak folk-rock emanaldia egingo du**
Igelaren Trikimailua taldeak emanaldia egingo du, AEDk eta Kultur Errotak antolatuta. Manu eta Patxi Iturregi anaiek sortu zuten talde hori, eta beste bi kide gehitu zatzaizkie ordutik. Euskal, bretoi, eskoziar eta irlandar doinu herrikoiak jotzen dituzte.
Gaur, egubakoitza, Ferrerias kaleko plazatxoan, 23:00etan.

ARRASATE
**> Kontzertua izango da gaur, egubakoitza Gure-Lekun**
Lost Souls taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, Zarugalde kaleko Gure-Leku tabernan.
23:00etan hasiko da kontzertua.

ARAMAIO
**> Rumba entzun eta dantza egiteko aukera izango da**
Rumba jaialdia girotuko du Arrasateko eta Gasteizko kideak dituen Omare taldeak gaur, egubakoitza. Rumba doinu beroak entzuteko eta horien erritmora dantza egiteko modua izango da.
Anboto tabernan, 23:00etan.

ELORRIO
**> Makala Band taldeak musika beltz emanaldia egingo du**
Mikel Untzurruntzaga Schmitz, Makala, diskojartzaile, baxu-jole, abeslari eta promotorearen taldea da Makala Band. Denetariko erritmoak lantzen ditu: reggaea, drum'n'bass-a, latinoa eta funka. Musika beltza entzuteko eta dantzatzeko aukera, beraz.
Gaur, egubakoitza, San Jose auzoan, 22:30ean.

PROPOSAMENA

ANTZUOLA
### > Herriko jaiak ospatuko dituzte datozen egunotan

Antzuolako jaietan ondo pasatzeko aukera izango da asteburuan. Gaur, egubakoitza, bertso bazkaria, pilota partiduak, kalejirak eta umeendako jolasak izango dira; bihar, zapatua, alardea, ekitaldi nagusia, eta baita musika bandaren eta dantzarien emanaldia, presoen aldeko ekitaldia, herri afaria eta beste batzuk. Domekako ekitaldi nagusia herri sagardotegi solidarioa izango da. Txosnak ere zabalik daude.
Mairuaren Alardea bihar, zapatua, izango da 18:00etan.



BERGARA
**> Spermbirds hardcore talde aitzindariaren kontzertua**
Alemaniako Spermbirds hardcore talde aitzindariak emanaldia egingo du. Iaz ere Bergaran jo zuten, arrakasta handiarekin.
Zarauzko Mantisa taldeak ere joko du gau berean. 6 euro da sarrera.
Martitzenean, hilak 18, gaztetxean, 20:30ean.

## Antzerkia

ELGETA
**> 'Todos nacemos vascos' antzezlanerako txartelak**
*Todos nacemos vascos* umorezko antzezlana egingo du Glu Glu taldeak hilaren 21ean, egubakoitza, eta txartelak salgai daude. Dagoeneko 100 sarrera saldu dituzte, eta komeni da lehenbailehen erostea.
Salneurria, 10 euro Goibekoko bazkideendako, eta 12, gainerakoendako.

## Erakusketak

ARRASATE
**> Loixe zeramika elkarteko ikasleen erakusketa**
Loixe zeramika elkarteko ikasleek ikasturte bukaerako erakusketa ipini dute Monterron kultura etxean.
Hilaren 25era arte egongo da bisitatzeko aukera, liburutegiaren ordutegian.

## Jaiak

ARRASATE, BERGARA
**> Santa Marina jaiak ospatzen jarraituko dute asteburuan**
Honako ekintzak daude Bergaran: erretiratuendako ibilaldia, boccia txapelketa eta petrikol-dastatzea (gaur, egubakoitza); txirrindularitza lasterketa eta disko-festa (bihar, zapatua) eta udal txistularien eta musika bandaren emanaldiak (etzi, domeka).
Arrasaten, gaur, egubakoitza, hasi eta domekara arte ospatuko dituzte jaiak.
Domeka da Santa Marina eguna.

OÑATI
**> Triana auzoko jaiak ospatuko dituzte asteburu osoan**
Beste batzuen artean, honako ekintzak izango dira Trianan: gaur, egubakoitza, jai hasiera, 19:00etan; umeendako marrazki saioa, musika-poteoa, 26. mus txapelketa eta txistulari, txorimalo eta erraldoien kalejira, bihar, zapatua; eta gastronomia-aisialdia Aterpe elkartean, etzi, domeka.
Gaur, egubakoitza, hasiko dira jaiak Astotrastori ongietorriarekin (19:00).

## nire aukera



**Asun Agiriano**
Liburuzaina
Arrasate

## "Nekazari giroa berreskuratzea nahiko nuke"

Nire kasuan ofizioak eta afizioak lotura estua dute; beraz, denbora dudanean, ordu luzeak irakurtzen igarotzea gustatzen zait.

Adibidez, egunkari ezberdinek asteburuetan izaten dituzten gehigarriak irakurtzen ditut, horrela atera berri diren liburuak jakiteko, musika eta kontzertuen berri izateko, estreinatu diren film berriak… Interesgarri dudan gauzekin zerrenda egiten dut eta horrela, denbora (berriz hitz magikoa) dudanerako, proposamen hauek gorde.

**Orain zer duzu irakurtzeko?**
Oporrak hartzen ditudanerako, *Dantzaldia*, Irene Nemirovskyrena, oraintxe bertan Txalaparta argitaletxeak euskarara itzuli duen liburua dago. Intrigazko eleberriak ere gustatzen zaizkit, horien artean *Almas grises*, Philippe Claudel-ena, eta *Literatura y mujeres : escritoras, público y crítica en la España actual* saiakera, Laura Freixas-ena.

**Irakurtzeaz gain, zein duzu zaletasun gustukoena?**
Gurasoak adinean aurrera sartu ahala, eurekin egotea gustatzen zait; nekazariak dira eta ofizio horretako memoria eta mundua errekuperatzea nahiko nuke. Niretzat, oso inportantea da Arrasaten galtzen ari den mundu hori gertutik ezagutzea.

**Udako oporretan non izango zara?**
Leongo Babia bailaran izango naiz. Espainiako Erregeak bertara joaten ziren eta hortik dator esaera, *Babian egotea*. Bi zentzutan hartuko dut nik: lasai egon, ezer ez egiteko ahalmena errekuperatzen saiatu, irakurri, bapo jan, mendian ibili.

# Zinema

### ARETXABALETA
#### HERRIKO PLAZA

**Oliver Twist**
Egubakoitza: 22:30.

**El jardinero fiel**
Martitzena: 22:30.

### ARRASATE
#### MONTERRON PARKEA

**El código Da Vinci**
Egubakoitza: 22:30.

### ELGETA
#### ESPALOIA ANTZOKIA

**Amen**
Egubakoitza: 22:30.

### ESKORIATZA
#### HERRIKO PLAZA

**Oliver Twist**
Egubakoitza: 22:30.

**Brokeback mountain**
Astelehena: 22:30.

**Aupa Etxebeste!**
Eguaztena: 22:30.

### EIBAR
#### UNZAGA

**Superman returns**
Egubakoitzetik eguaztenera: 18:30, 22:00.

#### RIALTO

**En la tiniebla**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ
#### GURIDI

**La casa del lago**
22:30.

**Scary movie 4**
16:30, 18:15.

**Cars**
17:00, 19:45, 22:30.

**El tigre y la nieve**
17:30, 20:00, 22:30.

**Superman Returns**
16:30, 19:30, 22:30.

**Los managers**
17:30, 20:00

**H 6 diario de un asesino**
16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**El señor de la guerra**
20:00, 22:30.

**Ella es el chico** 17:30, 18:00, 22:30

#### FLORIDA-GURIDI

**La educación de las hadas**
18:00, 20:15, 20:30.

**Cars**
18:00, 20:15.

**Un toque de seduccion**
18:00, 20:15, 22:30.

**El asunto Ver Barka**
18:00, 20:15, 22:30.

**Tu vida en 65 minutos**
18:00, 20:15, 22:30

**El secreto de Anthony Zimmer**
18:00, 20:15, 22:30.

**Pintar o hacer el amor**
18:00, 20:15, 22:30.

#### ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

**Vecinos invasores**
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

**Cars**
16:00, 19:00, 22:00, 00:30.

**People**
22:00, 00:30.

**Ice age 2**
16:00, 18:00, 20:00.

**Misión imposible 3**
22:00, 00:30.

**Superman returns**
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

**X-Men: la decisión final**
16:00, 18:00, 20:00.

**Plan oculto**
16:30, 19:00.

**Las colinas tienen ojos**
16:00, 19:00, 22:00, 00:30.

**El código Da Vinci**
17:00, 20:00, 23:00.

**Misión imposible 3**
22:00, 00:30.

**Rosario Tijeras**
22:00, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

#### YELMO CINEPLEX-GORBEIA

**Superman returns**
12:15, 16:00, 19:00, 22:00.

**Tu vida en 65 minutos**
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

**Vecinos invasores**
12:15, 16:10, 18:10.

**X-Men: la decisión final**
20:15, 22:25, 00:35.

**Ultravioleta**
20:10, 22:10, 00:10.

**El código Da Vinci**
12:15, 16:15, 19:15, 22:15.

**Ella es el chico**
12:15, 15:50, 18:05, 20:10, 22:20, 00:30.

**Cars**
12:15, 15:45, 18:00, 20:30, 22:45, 00:00.

**El tigre y la nieve**
12:15, 15:30, 17:45, 20:00, 22:15, 00:25.

**Los managers**
12:15, 15:45, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

**La educación de las hadas**
Egubakoitza eta zapatua: 16:25, 01:00.
Domeka: 12:15, 22:25.

**Las colinas tienen ojos**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**La casa del lago**
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**El señor de la guerra**
12:15, 16:15, 19:45, 22:15, 00:45.

**Astérix y los vikingos**
12:15, 16:35, 18:35.

**¡Vaya vacaciones!**
12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

#### ÁBACO BOULEVARD

**X-Men: la decisión final**
12:00, 17:00.

**En la tiniebla**
22:30, 01:00.

**¡Vaya vacaciones!**
12:00, 16:05, 18:15, 20:25.

**Astérix y los vikingos**
12:15, 16:20, 18:20.

**Ella es el chico**
12:00, 16:15, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

**La casa del lago**
12:00, 16:20, 18:20, 20:25, 22:30, 00:45.

**Superman returns**
12:00, 16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

**Los managers**
12:15, 16:10, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

**El código Da Vinci**
19:30, 22:20, 01:00.

**Cars**
12:10, 17:00, 19:30, 22:10, 00:30.

**La profecía**
20:15, 22:30, 01:00.

**Shutter**
22:25, 00:45.

**Vecinos invasores**
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:30.

**Devuélveme mi suerte**
12:10, 16:10, 18:15, 20:20.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**El código Da Vinci** **
AEB, 2006. Zuzendaria: Ron Howard. Aktoreak: Tom Hanks, Audrey Tautou.
160 min. Thrillerra.
*Robert Langdon* sinbologistak Louvreko museora bidaiatzen du, zaintzaile baten hilketaren ondoren agertu diren pista eta kodeak ikertzera. Jesukristoren bizitzaren inguruko misterio batzuk azalera irtengo dira.

**Amen**
Frantzia, 2002. Zuzendaria. Costa-Gavras. Aktoreak: Ulrich Tukur, Mathieu Kassovitz, Ulrich Mühe.
130 min. Drama.
Nazien garaian, alde batetik, Vatikanoaren diplomazia dago, eta bestetik, aliatuena. Filmak bi pertsonaia hartzen ditu aitzaki moduan: *Kurt Gerstein*, SStako kidea baina sarraskia salatzen duena; eta *Riccardo* jesuita, hori ere nazien aurka dagoena. Baina beste asko isildu egiten dira.

**El jardinero fiel** ****
Erresuma Batua, 2005. Zuzendaria: Fernando Meirelles. Aktoreak: Ralph Fiennes, Rachel Weisz.
129 min. Thrillerra.
Kenyan, herriaren garapenaren alde lan egiten zuen emakume bat, *Tessa Quayle* (Weisz) hil egiten dute. Alarguna, *Justin Quayle* (Fiennes), emaztea farmazia-enpresen gaineko eskandalua ikertzen ari zela konturatzen da.

**Oliver Twist** ***
Frantzia-Erresuma Batua, 2005. Zuzendaria: Roman Polanski. Aktoreak: Ben Kingley, Barney Clark.
130 min. Drama.
Charles Dickens-en klasikoaren moldaketa da. *Oliver Twist* umezurtza (Clark) umezurztegitik bota egiten dute eta Londresko gaizkileen giroan sartuta bukatzen du.

**Los managers**
Espainia, 2006. Zuzendaria: Fernando Guillén Cuervo. Aktoreak: Enrique Villén, Manuel Tallafé.
105 min. Komedia.
*Maca* eta *Rena* 40 urtetik gorako bi langabe dira, eta ahalegin barik aberats egin nahi dute. Telebistan abeslari berrien bila dabiltzala eta, *Pipo* eta *David* gazteen manager bihurtzen dira eta Los Reyes del King izena ipintzen diete.

**Superman returns**
AEB, 2006. Zuzendaria: Bryan Singer. Aktoreak: Brandon Routh, Kevin Spacey, Kate Bosworth.
154 min. Akzioa, abenturak.
*Kal-El* beste planeta batetik etorri da, eta betidanik *Kent* senar-emazteek zaindu dute euren seme balitz bezala, *Clark* izenarekin. Handik gutxira, botere handia duela konturatu eta *Superman* heroi bihurtzen da. Baina, halako baten, desagertu egiten da, eta *Lex Luthor*-rek *Superman*-en botereak bere probetxurako erabili nahi ditu...

**H6: diario de un asesino**
Espainia, 2005. Zuzendaria: Martín Garrido Barón. Aktoreak: Fernando Acaso, María José Bausá.
99 min. Beldurrezkoa.
*Antonio Frau* gizon arrunta eta lasaia da itxuraz, baina egitan psikopata hiltzailea da. Hoztasun izugarriz, bere hilketak munduari ezagutarazteko argazki-album baten batzen ditu.

**Ella es el chico**
AEB, 2006. Zuzendaria: Andy Fickman. Aktoreak: Amanda Bynes, Channing Tatum, Laura Ramsey.
105 min. Komedia erromantikoa.
*Viola*-k 17 urte ditu eta futbola da bere pasio handiena, baina ez diote mutilen ekipoan jokatzen uzten. Orduan, anaia bikia Londresen dagoela aprobetxatzen du haren nortasuna hartzeko.

**Una historia de Brooklyn** ***
AEB, 2005. Zuzendaria: Noah Baumbach. Aktoreak: Jeff Daniels, Laura Linney, Jesse Eisenberg.
88 min. Komedia dramatikoa.
*Bernard* eta *Joan* banantzen direnean, egoera berri bat sortuko da eurendako eta seme-alabendako. Ahalik eta ondoen egin beharko diote aurre.

**La bicicleta**
Espainia, 2006. Zuzendaria: Sigfrid Monleón. Aktoreak: Pilar Bardem, Sancho Gracia, Bárbara Lennie.
98 min. Drama.
Bizikleta bat hainbat jaberen eskutik pasatzen da, eta hiru istorio kontatzeko aitzakia da.



## No estoy hecho para ser amado ***

**Zuzendaria:** Stéphané Brizé.
**Aktoreak:** Patrick Chesnais, Anne Consigny, Georges Wilson.
Frantzia, 2005.
93 min. Komedia dramatikoa.

Stéphané Brizé-k *No estoy hecho para ser amado*-n kontatzen digun istorioa komedia dramatikoa edo sentimenduzko komedia da. Protagonista nagusiak 50 urte pasatxo ditu, egiten duen lana ez da oso atsegina, eta bere semearekin eta bere aitarekin dituen harremanak ez dira onegiak; bere bizitza nahiko grisa eta tristea da. Tango dantza ikasketek monotoniatik ihes egiteko balio diote, eta horietan, emakume gazte batekin sortzen diren harremanen bitartez bere bizitza aldatzeko aukera izango du. Filma txikia, goxoa eta hunkigarria da. Bertan kontatzen zaigun istorioa nahiko xumea bada, pertsonaien deskribapenean eta eszenaz eszena bikotearen artean gertatzen den maitemintze prozesuaren deskribapenean datza filmaren erakargarritasuna. Tangoa ez da zuzendariak erabiltzen duen osagai apaingarri bat, dantza eta musika mota horrek duen sentsualitatearen bitartez ondo susmatzen eta ulertzen dugu sortzen den amodio istorioa. Bikoteak hitz gutxi erabiltzen ditu, baina haien begiradek, keinuek, arnasteko moduek edo bata bestearengana hurbiltzeko eta ukitzeko erek ederki adierazten dituzte maitemintze prozesu horren pauso guztiak.

Filmeko pertsonaiak gertuak eta maitekorrak egiten zaizkigu, erraz uler ditzakegu haiek dituzten sentimenduak, dudak eta beldurrak. Ikusleok eurekin bat egiten dugu, gauzak okertzen zaizkienean kezkatu egiten gara, gauzek hobera egiten dutenean poztu egiten gasra, eta hori lortzea ez da gauza erraza.

**Antonio Zabala**

ZINEMA MERKEAGO
Txartel hau moztu eta sarrera merkeago izango duzu
www.cinesabaco.com
SARREREN SALMENTA ServiCaixa 902 52 08 52
C.C EL BOULEVARD
C.C LAKUA
Promozio baliagarria 2006/07/31 , astelehenetik ostiralera, jai egunetan eta bezperetan izan ezik. Ez da bateragarria beste promozioekin.
ÁBACO ZINEMA MAILA GORENEAN

**Goienkaria**

**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2006-07-14

# Arrasate-Torrevieja, 40 orduan

**843 KILOMETRO** Arrasatetik Torreviejara 843 kilometro egin zituen bizikletan Baldezatek, geratu barik

**APUSTUA** Balentria hori egitearen arrazoia Jose Luis Sanz lagunarekin egindako apustua izan da

**ERREPIDEAN BERRIZ** Baldezate zikloturista izandakoa da, baina zortzi bat urte zeraman bizikletan ibiltzeke

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Tourrean ari diren txirrindularien pareko marka egin du Luis Baldezate arrasatearrak. Joan den eguaztenean 06:00etan Arrasatetik atera eta uztailaren 6ko 21:30ean Torreviejara iritsi zen. 843 kilometro egin zituen bizikleta gainean, geratu barik, gasolindegietan egindako hainbat geldialdi salbu. Balentria hori egitearen arrazoia Jose Luis Sanzekin egindako apustua izan da: "Erdi txantxetan hasi ginen; berak 48 orduko tartea ematen zidan ibilbidea betetzeko eta azkenean denbora soberan... Uste baino hobeto ibili nintzen. Gogorrena Paniza mendatea egin zitzaidan, Cariñenatik aurrera. Gauez ere ondo moldatu nintzen, linternarekin eta txaleko islatzaile batekin. Apustua irabazi dudanez, Jose Luisek erretzeari utzi beharko dio orain...".

Baldezatek 50 urte ditu eta laster 25 egingo ditu Arrasateko udaltzain. Zikloturista izandakoa da, baina zortzi bat urte zeraman bizikletan ibiltzeke; apustua egin zutenean, orain dela urte eta erdi inguru, hasi zen berriro entrenatzen. Azken hilabeteotan egunero 100 bat kilometro egin ditu bizikletan eta 11 kilo galdu ditu. Esan bezala, Torreviejara bidean gasolindegietan bakarrik geratzen zen, edatera. "Motxilan barratxo energetikoak, linterna eta aldatzeko arropa eraman nuen, besterik ez. Haizea alde izan nuen eta ondo ibili nintzen. Ez zitzaidan hain gogorra gertatu. Arrasateko bi lagunek orain dela pare bat urte Paris-Brest-Paris egin zuten bizikletan, 1.260 kilometro. Txarrena zera da: ipurdiko mina", diosku.



**TORREVIEJARA** 40 ordu baino gutxiago behar izan zituen Luis Baldezatek Arrasatetik Torreviejara iristeko. XABIER URTZELAI

**LANKIDEAREN ANIMUAK**

Bide gehiena bakarrik egin bazuen ere, Antxon Gonzalez de Txabarri lankideak berarekin egin zuen topo uztailaren 6ko arratsaldean. Azken kilometroak autoan zihoan lagunaren animuak ez zitzaizkion falta. Torreviejan ez zuten eguzkiarekin gozatzeko aukerarik izan. Ostiralean bueltatu ziren handik.

## ahobero

### "Espainiaren batasuna ez da fede kontua, moral kontua baizik. Eta horrela aitortu behar da"

**Antonio Cañizares** > Espainiako Kardinal Primatua

Fedea, morala eta Espainiaren batasuna, Hamaikagarren Agindua balitz. Sentsibilitate ezberdinak direla da aitortu beharrekoa. Dena dela, zenbait apaizek politikari izan nahi dutela ematen du eta batzuen jarrera agerian dago...

## iturri onetik

### Ura edateko iturri bat jarriko dute Oñatiko unibertsitate aurrean dagoen berdegunean

Oñatiko unibertsitate aurreko kalean, hainbat lan egin dituzte azken hilabeteotan: lorontzi altuak jarri dituzte batetik, eta espaloi gainetan oztopoak jarri dituzte ibilgailuak gainean ez aparkatzeko. Orain pentsatu dute ura edateko iturri bat ere jarri daitekeela unibertsitate pareko berdegunean eta horixe egingo dute. Kanpotik datozen bisitariek ere egarria aseko dute laster iturri horretan.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Totxo zatarrak

Arrasate atontzen ari da bere itxuraren adierazle nagusi izango den espazioa: Biteri plaza. Zatika sortua da eta zatikiz osatua egon da urte luzez. Baina lurpeko aparkaleku handia egiteak lur gaineko espazio bakarra bistaratu du. Eta harritu egin gaitu haren tamaina itzelak, herri erdian..

Aurkikuntzak ez du, ordea, asko iraun. Handitasunera ohitzen ari ginenean, hasi dira sortzen han-hemenka berealdiko totxoak, parkingeko sarbideak direla, edo kioskoa, edo amaitzen ari diren pergola. Oso antzinako estiloa aukeratu dute: hormigoi sendoa, sekzio itzeleko burdina, minio eta purpurinaz margotua... Urrun daude Bilboko metroaren sarbide dotoreak, beira eta altzairu herdoilezina. Hain zuzen, zergatik Bilbon dotore eta Arrasaten totxo?

## ai, ene!




### Ursula Andressek jantzi ez zuen bikinia

James Bonden filmetan ez da halakorik agertu oraindik: eguzki izpien intentsitatearen berri ematen duen bikinia.

http://tinyurl.com/zbda5





**Kalitatea, erakargarri**

Prezioa ikusita, harrigarria da hain kalitate handia edukitzea, eta alderantziz

**Toyota Corolla Luna 3 ate D-4D Diesel 15.885€.**

Ondorengo motorrak: azken belaunaldiko D-4D Diesel Common Rail eta VVT-i gasolina. Aire-girogailu automatikoa (aire girotua Sedan eta Wagon bertsioetan). Aire-zakuak: gidariak, gidari-lagunak eta albokoek. ABS+EBD 4 freno-diskorekin. Gurpilak 195/60 VR15"-ko aleaziozko hagunekin. Irratia CD RDS 4 bozgorailurekin. Atzerako ispiluak: margotuta, elektrikoak eta berogailuarekin. Agin-panelean aluminio/karbono itxurako txertaketa (3 ate eta 5 ate). Audio-agintea integratuta duen larruzko bolantea. Optitron instrumentazioa.

Toyota Corolla Luna 2006 gama

BERMEA 3 urte edo 100.000 Km.

FINANCIAL SERVICES

TOYOTA

Kontzesionarioa
www.euskoauto.toyota.es

**EuskoAuto**
Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85
BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI